



kultura

gizartea

kirola

immigrazioa

Euskal Herria ezagutzea

Bertako kulturen,
historian, gizartean
eta erakundeetan
zeharreko bidaia

industria

personaiak

turismoa

jaiak

gastromonia

geografia

oniturak

hizkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
KULTURA SAILA

PRESIDENCIA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Lan honen erregistro bibliografikoa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusian kontsulta daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>.

Euskal Herriaren ezaugarrietako bat, biztanle gutxi baditu ere, gizartearen izate poliedrikoa da. Errealitate sozial, politiko, ekonomiko edo kulturalen forma ugariako prisma bada ere, identitate kolektibo markatuan gauzatzen da.

Osakidetzaren egoitza, Bilbon.



- Edizioa:** 2009ko urtarrila
- Ale-kopurua:** 1.500 ale
- © Euskal Autonomia Erkidegoa
- Internet:** www.euskadi.net
- Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz
- Testuak:** Ramón Zallo eta Mikel Ayuso
- Argazkiak:** Mikel Arrazola[©]. Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco
Joseba Bengoetxea
Beste batzuk
- Maketazioa:** Grupo Proyección. Rúbrica
- Itzulpena:** Josemari Navascués
- Imprimaketa:** GRÁFICAS VARONA S.A.
- I.S.B.N.:** 978-84-457-2865-9
- Lege-gordailua:** Vi. 18-2009



Ikurrina, Bizkaiko Zubiaren goiko pasabidean. Zubia Gizadiaren Ondare da. Portugalete (Bizkaia).



kultura gizartea
kirola
inmigrazioa
politika
ekonomia administrazioa

ikerketa

gizartea
historia diaspora
osasuna
lurraldea justizia

industria

personaiak
turismoa

jaiak
gastronomia
geografia
hizkuntza ohiturak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

HITZAURREA

Material didaktiko hau zergatik eta nola sortu den Erabilitako terminoak

LEHEN ZATIA: HERRIALDEA ETA JENDEA

1. EUSKAL HERRIKO GEOGRAFIA 8

2. HISTORIA APUR BAT 10

- 2.1. Historiaurretik Erdi Arora. Erromanizazioa
- 2.2. Nafarroako Erresuma eta Lurralde Historikoak
- 2.3. Kapitalismo liberalaren sorrera: lehen industrializazioa
 - 2.3.1. Politikari dagozkion alderdiak
 - 2.3.2. Gizarteari eta ekonomiari dagozkion alderdiak
- 2.4. XX. mendea
 - 2.4.1. II Errepublika eta Gerra Zibila
 - 2.4.2. Bigarren Industrializazioa eta frankismo berantiarra
 - 2.4.3. Demokrazia eta Estatutua
 - 2.4.4. Euskal Herria gaur

3. EUSKAL GIZARTEA 14

- 3.1. Gizartearen bilakaera
 - 3.1.1. Gizarte-aldaketa eragiten duten faktoreak
 - 3.1.2. Demografia eta inmigrazioa
- 3.2. Familia
 - 3.2.1. Familia tradizionala eta familia modernoa
 - 3.2.2. Ezkontza eta dibortzioa
 - Homosexualen arteko ezkontza
 - Baliogabetasuna, banatzea eta dibortzioa
 - Izatezko bikoteak
- 3.3. Gizarte-partaidetza
 - 3.3.1. Sindikatuak
 - 3.3.2. Enpresa-elkarteak
 - Enpresa kooperatiboak
 - 3.3.3. Elkarrekin eta mugimenduak
 - 3.3.4. Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE)
- 3.4. Euskal diaspora
- 3.5. Inkestak
- 3.6. Identitatea

Donostia airetik ikusita.



4. ANTOLAKUNTZA POLITIKOA 24

- 4.1. Euskadiko antolakuntza politikoa eta Autonomia Estatutua
 - 4.1.1. Estatutu berriaren proiektua
 - 4.1.2. Zenbait berezitasun historiko
- 4.2. Gobernu-organoen oinarriko egitura
 - 4.2.1. Euskadiko Autonomia Erkidegoa
 - Eusko Legebiltzarra
 - Eusko Jaurlarit
 - 4.2.2. Lurraldeak eta toki-eremuak
 - Batzar nagusiak eta Diputazioak
 - Kontzertu Ekonomikoa
 - Udalak
- 4.3. Herritarren ordezkartza Euskadin. Alderdi politikoak
 - 4.3.1. Alderdi politikoen eginkizunak
 - 4.3.2. Partaidetza eta auteskunde-prozesua
 - 4.3.3. Gaur egungo alderdi politikoak eta hauteskundeetan lortu dituzten emaitzak
- 4.4. Nafarroako eta Iparraldeko erakundeak

5. EKONOMIA 33

- 5.1. Produzioa eta banaketa: zenbait nozio
 - Sektore publikoaren eginkizunak
- 5.2. Euskadiko ekonomia
 - 5.2.1. BPG-aren bilakaera
 - 5.2.2. Ongizatearen bilakaera eta errentaren banaketa
 - 5.2.3. Ikerketa eta garapena
- 5.3. Nafarroako eta Iparraldeko ekono

BIGARREN ZATIA: KULTURA

6. EUSKAL KULTURA 42

- 6.1. Euskara, geure hizkuntza
 - 6.1.1. Euskararen jatorriari buruzko teoriak
 - 6.1.2. Euskara eta ofizialtasuna
 - 6.1.3. Euskaltzaindia
- 6.2. Euskaldunen komunitatea
 - 6.2.1. Euskal Herrian
 - 6.2.2. Euskadiko Autonomia Erkidegoa
 - 6.2.3. Zailtasun historikoak
- 6.3. Irakaskuntzako hizkuntza-ereduak

7. EUSKAL HERRIKO ARTEAK

47

7.1. Artes visuales

7.1.1. Ikusmen-arteak

7.1.1.1. Eskultura

7.1.1.2. Pintura

7.1.1.3. Arkitektura

Erdi Aroko arkitektura

Erromanikoa baino lehenagoko arkitektura

Arte erromanikoa, gotikoa eta errenazentista

Arkitektura barrokoa eta neoklasikoa

XIX-XX. mendeak

7.1.1.4. Zinematografia-arteak

Euskal Filmategia

7.2 Euskal literatura

7.2.1. Euskaraz egindako euskal literatura

Bertsolaritza

Idatzizko lehen literatura

XX. mendeko poesia

Nobela modernoa

7.2.2. Erdaraz (gaztelaniaz edo frantsesez)

egindako euskal literatura

Lehen literatura

XX. mendea

Literatura berria

7.3. Arte eszenikoak eta musika-arteak

7.3.1. Antzerkia

7.3.2. Musika

Tradizioak, instituzioak eta memoria

Herri-musika garaikidea

7.3.3. Dantzak

7.4. Kultura digitala eta multimedia

7.5. Artisautzak

8. KULTURA- ETA KOMUNIKAZIO-ZERBITZUAK
ETA ERAKUNDEAK

62

8.1. Museoak

8.2. Liburutegiak

8.2.1. Fonotekak eta mediatekak

8.2.2. Nafarroako liburutegiak

8.3. Artxibategiak. Nafarroako Artxibategi Orokorra

8.4. Zenbait hezkuntza- eta zientzia-erakunde

8.5. Beste zenbait ekipamendu

8.6. Komunikabideak

8.6.1. Taldeak eta agenteak

8.6.2. Ikus-entzuleak

8.6.3. Prentsa Euskal Herrian

8.6.4. Irratia eta Telebista

8.6.5. Euskara eta komunikazioa

8.7. Saiogileak, zientzialariak eta pertsonaia historikoak

Saiogileak eta zientzialariak

Pertsonaia historikoak

8.8. Gertakizun kulturalak eta artistikoak

8.9. Herri-kultura

8.9.1. Azokak, herri-kirolak eta jokoak

Azokak

Kirolak eta jokoak

8.9.2. Harri-aisialdia eta jaiak

Jaiak

Gastronomia

Parke, ibilbide eta pasealeku interesgarriak

9. EUSKADIKO BALIABIDE ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

82

9.1. Eusko Jaurlaritzari dagozkion baliabideak eta zerbitzuak

9.1.1. Lehendakaritza; Lehendakariordetza

9.1.2. Ogasuna eta Administrazioa

9.1.3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

9.1.4. Herrizaingoa

9.1.5. Industria, Merkataritza eta Turismoa

9.1.6. Etxebizitza eta Gizarte Gaiak

9.1.7. Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza

9.1.8. Osasuna

9.1.9. Kultura

9.1.10. Ingurumena eta Lurraldearen Antolakuntza

9.1.11. Garraioak eta Herri Lanak

9.1.12. Nekazaritza eta Arrantza

9.2. Autonomia Erkidegoaren beste zenbait zerbitzu

9.3. Foru eta udal baliabide eta zerbitzuak

9.3.1. Kultura, Kirolak, Gazteria eta Euskara

9.3.2. Gizarte-ongizatea

9.3.3. Ekonomia eta Nekazaritza

9.3.4. Ogasuna eta Garraioak

9.3.5. Lurraldeen beste zenbait baliabide

9.3.6. Udal baliabideak

9.4. Erakundeen helbide interesgarriak

9.4.1. Eusko Jaurlaritzaren helbideak

9.4.2. Aldundien Helbideak

9.4.3. Hirietako Udaletxeen helbideak

9.4.4. EUDEL-en (Euskal Udalerrien Elkartearen)
helbidea

9.4.5. Arartekoaren helbideak

9.4.6. Inmigranteak babesteko sare publikoaren
helbideakTurismo Bulegoa.
Getxo (Bizkaia).Euskal askatasunaren ikurra den
haritza landatzen Suipachako Euskal
Etxean. (Argentina).

Material didaktiko hau zergatik eta nola sortu den

Liburu hau inmigranteentzat, diasporako euskaldunen seme-alabentzat eta aldizkako bisitariarentzat da.

Gure artean gelditzeko datozen inmigranteak, urteak eta urteak ematen dituzte gora eta behera, integratzen diren gizartearen zenbait klabe ulertu ahal izan arte. Dokumentu honen xedeetako bat bidaia pertsonal saihestezin eta komunitateen arteko komunikazioa bideratzea da. Material hau, biztanle berrien parte handi bat, jarraian bertan biziz gero, eskubide osoko euskal herritar bihurtuko dela eta euren kultura eta ahaleginaz, hartzen dituen gizartearen onurarako, kultura-, gizarte eta zerga-ekarpenak egingo dituztela kontuan hartuta egin dugu.

Beste xede bat, atzerrira inmigratu zuten euskaldunen -hau da, diasporako euskaldunak deritzogunen- ondokoei euren arbasoen herrialdearen oinarrizko ezagutza ematea eta haien sustraiekin kontaktuan jartzea da.

Azkenik, turistentzako ohiko gidarekin konformatzen ez den aldizkako bisitariak, herrialdea ezagutzeko ezinbestekoak diren klabeak aurkituko ditu gida honetan.

Honako hau, Kulturaren Euskal Kontseiluaren aginduz egindako dibulgazio-eskuliburua da, Euskal Herriaren ezagutzaren hastapen laburtua izan dadin. Kulturaren Euskal Planak gure kulturaren alderdi nagusiak aurkezteko unitate didaktikoa egiteko eta inmigranteen, diasporakoen eta turisten hizkuntza nagusietara itzultzeko proposamena egin zuen. Hizkuntza, kultura, arteak eta kultura-zerbitzuak xehetasun samarrez azaltzen dira. Baina irudi horrek osagabea zirudien gure komunitatearen bizimodua eta historia (gure gizartea, balioak, instituzioak, ekonomia, sistema politikoa eta gobernu-sistema) eta zerbitzuak aipatu gabe.

Aldez aurretik idatzitako liburuaren laburpen berridatzi eta zuzenduan oinarritutako dibulgazio-lana da eta ez dauka zertan Eusko Jaurlaritzaren irizpidea izan¹.

Euskal Herriaren ikuspegi laburtu eta pedagogikoa eskaini nahi dugu. Baina, halaber, irakurtzen dutenentzat eragingarria izatea nahi dugu, euren kabuz, hemen aipatzen diren edozein arlo sakontzen ausart daitezten.

Inmigranteentzako berariazko zerbitzuak ez ditugu sartu, zeren, dagoeneko, beste dokumentu batzuetan azalduta baitaude².

Gida honen helburua bertara iristen direnei (inmigranteei eta turisteei) eta joan zirenen (euskal diasporakoenen) ondokoei Euskal Herria oinarrian zer den jakinaraztea da.



Errepideen korapiloa Gasteizko sarreran.



Inmigrazioa itsas marea-ziklikoa bezalakoa da. Mendeetan zehar euskaldunek emigratu egin behar izan dute; orain jatorri askotako pertsonak datoz gure Herrialdera etorkizunaren bila.

Itsas maren adierazlea.
Portugalete (Bizkaia).

Erabilitako terminoak

Euskal Herria, Baskonia, euskaldunen, hau da, gutxienez hainbat milaurtekoz geroztik bertan bizi den subjektu kolektiboaren, herrialdea da, historia, kultura, hizkuntza eta identitateari dagokienez. Euskaldunak. Hala ere, hiru marko juridiko eta politikotan banatuta dago:

- **“Euskadiko Autonomia Erkidegoa”** edo **“Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa”** –Autonomia Estatutuan dioenez–. Hiru lurraldek osatzen dute: Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak, eta Lurralde horietako hiriburuak, hurrenez hurren, Gasteiz (Araba), Bilbo (Bizkaia) eta Donostia (Gipuzkoa) dira.
- **Nafarroako Foru Komunitatea** (Nafarroa). Hiriburua Iruñea da.
- **Iparraldea**, edo Frantziako Euskal Herria, edo Euskal Herri kontinental Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea lurraldeek osatzen dute. Lurraldeotako hiriburuak, hurrenez hurren, Baiona, Maule eta Donibane Garazi dira.

Lurralde horietako bi (Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea) Espainiako Estatuaren edo Espainiaren parte dira, eta **Hegoaldea** edo Penintsulako Euskal Herria osatzen dute. **Iparraldea** Frantziako Errepublikaren parte da.

Beraz, **Euskal Herria** hiru esparru horien batura da, edo beste era batera esanda, zazpi (edo sei, Nafarroa eta Nafarroa Beherea bat eginez gero) probintzien batura, alegia.

“Euskal Herria” terminoaren bidez, gaur egun, berez, eremu politiko instituzional jakin bat zehaztu ezin bada ere, neurri handi batean ondarea, artea, kultura, hizkuntza eta historia eta identitatea partekatzen dituen entitate historiko eta kultural jakin bat zehazten du.

Sinplifikatzeko eta administrazio-hizkera astuna ez erabiltzeko **Euskadi** terminoa erabiliko dugu, Euskadiko Autonomia Erkidegoa izendatzeko eta **Nafarroa** esango dugu, Nafarroako Foru Komunitatea izendatzeko.

¹Ramón Zalloren liburua: *Euskal Herria, gaur. Kultura, historia eta gizartea, aniztasunaren eta ezagutzaren arloan*. Alberdania. Irun. 2006”.

²“*Guía para la orientación de personas inmigrantes*”. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2003, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigratio Zuzendaritzaren web-orrian, Eusko Jaurlaritzaren web-orri orokorrean (www.euskadi.net). Euskaraz zein gaztelaniaz. **“Harresiak Apurtuz”** (Inmigranteen Laguntzarako Euskadiko GKE-en Koordinakundea, Bailen kalea, 11 bis, b/s, 48003 Bilbo. Tel.: 94 415 07 35) erakundearen dokumentua zazpi hizkuntzatan dago (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, txinera, arabiera eta errusiera), eta, halaber, erakunde horrek informazio garrantzitsua ematen du web-orrian ([web www.harresiak.org](http://web.www.harresiak.org)) eta “Guía de recursos para inmigrantes de Bizkaia”. Harresiak-BBK, Bilbo, izeneko liburuan.



Loiuko Nazioarteko Aireportua (Bizkaia)



Euskal Herria (historiari, hizkuntzari eta identitateari dagokienez) hiru esparru juridikotan eta politikotan banatuta dago, hala nola: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea.



Lehen zatia

Herrialdea
eta jendea

Ondarroako portua (Bizkaia)



Euskaldunek, komunitate gisa, milaka urteko historia dute. Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa den euskararen erabilera mantendu dute.

Arrizalako dolmena (Araba)

1. EUSKAL HERRIKO GEOGRAFIA

Euskal Herria 43°-ko paraleloan dago, Pirinioen mendebaldeko muturrean eta Bizkaiko Golkoak (Kantauri Itsasoak). Euskaldunak hortxe bizi izan dira mendeak eta mendeak komunitate gisa, zeren, dirudienez, euskaldunak eta laponiarrek Goi Paleolitoaz geroztik bizirik iraun baitute edo, gutxienez, Neolitoaren amaierako eta Brontze Aroko hasierako hiru tipo europarrak, hau da: iparraldekoa, mediterraniarra eta alpinoa, baino lehenagokoak dira. Euren hizkuntza, euskara, Europako hizkuntzarik zaharrena, agian, mantentzen ahalegindu dira. 20.664 km²-ko azalera du, eta bertan hiru milioi inguru biztanle daude. Beraz, bere identitate, historia eta kultura bereziak dituen antzinako herri txikia da.


Euskal Herriko klima epela da. Ez dago muturreko tenperaturarik, baina nahikoa euritsua da (urtean 2.000 mm. zona hezeetan eta 500 mm. Ebro ibaiaren erriberan). Dena den, hiru klima mota daude: subalpetarra Pirinioetan, atlantikoa edo heze epela kostaldean, eta mediterranean kontinental (beroa udan, hotza neguan eta prezipitazio-kopuru txikiarekin) Arabako hegoaldean eta Nafarroako erdialde eta hegoaldean.

Bi isurialde daude, ondo bereiztuak: kantabriarra eta mediterraneo. Isurialde kantabriarrean (iparraldekoan) biztanle eta industria gehienak daude, eta Ebro ibaiak mugatzen duen isurialde mediterraneanek nekazaritza da nagusi eta herri txikiagoak daude.

Euskal Herriko Iparraldeak (Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea) lurraldearen % 15a hartzen du. Hegoaldeak (Euskadi eta Nafarroa) % 85a hartzen du.

Frantziako Euskal Herriak ez du berariazko administrazioirik. Frantziako Iraultzaren ostean, Biarnoko eskualdeekin batera, Behe Pirinioetako Departamentuan sartu zen. Gaur egun, Iparraldeko gehiengo sozial eta politikoak berariazko Departamentua aldarrikatzen du Frantzian, Euskal Herriko Departamentua, alegia.

Baskoniako biztanleen % 72 Euskadin bizi da, % 19 Nafarroan eta % 9 Iparraldean. XIX. mendearen amaieran, industrializazioarekin, inmigrante asko etorri ziren Bizkaira eta Gipuzkoara, Gaztela, Nafarroa, Errioxa eta Extremaduratik. XX. mendearen 50-70eko hamarkadetan, beste inmigrante kopuru handia etorri zen Arabara eta Nafarroara. Azken urteetan, hazkuntza demografikoa eskasa izan da. XXI. mendearen hasierako inmigrazioak bultzada berria eman du.



Iturria: EUSTAT, Biztalen eta Etxebizitzaren errodia, 2001ean

Hiria eta baserria bitartean, Euskadin udalherri ertain ugari daude.

Oñatiko Unibertsitatea (Gipuzkoa).

Euskal baserri tradizionala.



Biztanle gehienak (% 95) tamaina ertain eta txikiko hirigunetan bizi dira; hala ere, lurralde guztietan herri txiki ugari daude, batez ere, Iparraldean, Nafarroan eta Araban. Hiririk handienak, Bilbok, 354.168 biztanle ditu. Baina Bilbo Metropolitarran (itsasadarreko eskuinaldeko eta ezkerreko herriak sartuta) biztanleak milioi bat inguru dira.

Euskadik 7.234 km²-ko azalera du, eta, bertan, 2.141.166 biztanle daude (INE, 2007) (Euskal Herriko biztanleen % 72). Bizkaian biztanleen % 53,3 bizi da, Gipuzkoan % 32,4 eta Arabak, lurralderik handiena izanda, biztanle-kopuru txikiena du. Arabako barrendegi bat, Trebiñu, alegia (1.333 biztanle), Gaztela eta Leongoa da. Bizkaian dagoen beste enklabe bat, hau da, Turtzioz, Kantabria da.

Nafarroak 605.022 biztanle ditu (INE, 2007) eta 10.421 km²-ko azalera du eta Iparraldean, 262.640 pertsona bizi dira. Guztira, Euskal Herriak 3.008.778 biztanle ditu.

Euskal Herria, lurraldeen multzotzat jo beharrean, herritarren multzotzat joko bagenu, "diasporako" milioika euskaldunak batu beharko genituzke. Euskaldun asko dago Espainiako eta Frantziako gainerako eskualdeetan, Hego Amerikan eta AEBetan. Batzuk Baskonian jaio eta gero emigratu zutenak dira, eta beste batzuk, gehienak, bigarren eta bosgarren belaunaldiko ondokoak dira, eta beste herrialde horietan jaiotakoak izan arren, euren identitate pertsonalaren parte bat Euskal Herriarekin atxikita dute.



Euskadiko beste leku batzuetan bezala, Urkiolako Satutegian, ezkerreko teilatu-hegalera erortzen den euriaren ura Kantauri itsasoraino joaten da, eta eskuineko teilatu-hegalera erortzen dena Mediterraneo itsasoan isurtzen da.

Euskal Herrian hiru ingurune geoklimatiko daude. Iparraldean, klima piriniarra (goian - Pirinioak, Erronkari, Nafarroa) eta klima atlantikoa (erdian - Amurrio, Araba); hegoaldean, klima mediterranea (behean - Arabako Errioxa).



2. HISTORIA APUR BAT

Santimamiñeko kobazuloa (Bizkaia).



Opiduma. Veleia-Iruña de Oca (Araba).



Iñigo Aristaren monumentua. Iruñeko Erreinuko lehen erregea izan zen 824-852 bitartean.

2.1. Historiaurretik Erdi Arora

Euskal Herrian aurkitutako aztarnarik zaharrenak Behe-Paleolitoko (150.000 urte K.a.) harrizko objektuak dira. Neanderthaleen hezur eta ehiza-tresna bakan batzuk ere aurkitu dira eta Cromagnonen askoz ere aztarna gehiago daude. Labar-arte garrantzitsua duten zenbait koba garrantzitsu daude, besteak beste, Ekain, Altxerri, Santimamiñe edo Alberdi (Urdax).

Neolitoan (4.500-2.500 K.a.) garrantzi handiko bizimodu-aldaketa izan zen. Biztanleek herrikkak eraiki zituzten eta abeltzaintza eta nekazaritza lantzen hasi ziren. Nomadak izatetik sedentarioak izatera eta euren kabuz bizitzera pasatu ziren. Kobre eta Brontze Aroetan (2.500-900 K.a.) metalak landu zituzten eta gizarteak antolatu ziren.

Dena den, gizarteak iparraldean, hegoaldean baino motelago garatu zen, zeren iparraldean isolatuagoa baitzegoen. Erromanizazioarekin ere gauza bera gertatu zen.

Gaur egun Euskal Herria den eremuan eta ingurukoetan, Antzinaroan euskaldunen arbasoak bizi ziren (autrigoiak, karistiarak, barduliarrak eta baskoiak). Herriok, Estrabon (I Ka-I. medea) historialari grekoaren hitzetan, basatiak eta gerlariak ziren.

Erromanizazioa

Erromatar Inperioa K.a.ko II. mendean hasi zen euskal eremuak inperiora eransten eta erromatarren presentziak bost mende iraun zuen eta, beraz, denboraldi luzean bi kulturak elkarrekin bizi izan ziren. Erromatarren presentzia desorekatua izan zen: eskasa mendian eta kostaldean, eta handia izan zen hegoaldeko nekazaritza-eremuan eta meatze-eremuan. Erromatar Inperioak ekarri zituen euskal lurretara, besteak beste, diru-ekonomia eta hizkuntza idatzia (latina). ekarri zituen. Mende batzuk geroago, latina hizkuntza erromaniko bilakatu zen. Dena den, Euskal Herria zeharkatzen zuten bide erromatarren helburua Mediterraneo Iberiar penintsulako ipar-mendebaldearekin eta Hispania Galiarekin (Gaur Frantziak den Akitania bidez) komunikatzea zen. Iparraldean, erromanizazioa beranduxeago izan zen, Zesarrek Galia konkistatu zuenean.

Erromatar inperioaren gainbehera hasi zenean tribu baskoiek eragina berreskuratu zuten. Hurrengo mendeetan, Euskal Herriari zegokion lurraldean, aldaketak eta erasoak izan ziren, baina VIII. mendean tribu baskoiak batzen hasi ziren. Tribuon antolakuntza politikoa garatuz joan zen, eta XI. mendean egitura zehatza zuten.

2.2. Nafarroako Erresuma eta Lurralde Historikoak

Baskoien lurraldea erresuma bihurtu zen IX. mendean, nobleek Iñigo, Aritza (edo Arista) dinastiakoa, errege hautatu zutenean (824-852). Hurrengo mendean, haren ordeztu, Ximeno dinastia ezarri zen. Dinastia horretako lehen erregea Antso Gartzes izan zen (905-925), eta goren aldia Antso III.a Nagusiarekin lortu zuten (1004-1035). Antso III.ak, Euskaraz hitz egiten zen eremu guztiak batzeaz gain, penintsulako eskualde kristau gehienak ere mendean hartu zituen.

Hurrengo mendeetan, erresuman aldaketa handiak izan ziren, azken krisia sortu zenera arte, hau da, Bianako Printzearen aldekoen (beaumontarren) eta Joan I.a Aragoikoaren aldekoen (agramondarren) arteko gatazka (1441-1512) piztu zenera arte. Gatazka hori gaztelarren okupazioarekin bukatu zen: 1512an, Fernando Katolikoak Nafarroa inbaditu zuen. Orduan, Gaztelako Koroaren parte bihurtu zen eta Gaztelak izendatutako erregeordeak agindu zuen. Monarkia nafarrak Pirinioetako bestaldeko lurralde bakoetara ezin izan zituen mantendu, hau da, Nafarroa Beherea. Azkenik, 1620an, Frantziarekin uztartu zen behin betiko, baina Foruak (autogobernu-sistema) mantendu zituen.

XII-XV. mendeetan, tokian tokiko berariazko foruak edo erregeek emandako gutunak zituzten hiriak eta hiribilduak sortu ziren. Oinarrizko jarduerak ekonomikoak honako hauek ziren: abeltzaintza, nekazaritza, baso-ustiapena, arrantza, meatzaritza, lehorreko eta itsasoko merkataritza eta artisautza (gremioetan antolatuta).

Krisi ekonomikoak nobleziako familia batzuen eta besteen aldeko "leinuen arteko borrokak" eragin zituen, lurraldeak, hiribilduak eta hiriak kontrolatzeko. XV. mendearen amaieran, hiribilduak eta erregea leinuei nagusitu zitzaizkien. Garai horretantxe sortu ziren foru-lurraldeak sortu ziren, erregearekin egin zuten hitzarmenaren bidez. Hitzarmen horren arabera erregeak hirietako zein herrialde osoetako Foruak errespetatu behar zituzten, hitzartutako autogobernu-arauak baitziren.

2.3. Kapitalismo liberalaren sorrera: lehen industrializazioa

XVI–XIX. mendeetan, Erdi Aroko ohiko gizarte feudala aldatu eta kapitalismoan oinarritutako gizartea sortu zen. XVII. mendean botere berriak ezarri zirenetik gatazka politiko eta sozial asko sortu ziren, besteak beste, matxinada (herri-iraultza) ugari izan ziren.

2.3.1. Politikari dagozkion alderdiak

Borboiek Espainiako Sezesio–Gerra irabazi ondorengo hamarkadetan, euskal ekonomiak zituen abantaila fiskalak eta merkataritza librea murriztu egin ziren neurri handi batean. XVIII. mendearen amaieran, lehorreko portuetan (Gaztelako mugako mendietan) zeuden aduanak kostaldean eta Pirinioetan ezartzeko ahaleginak egin ziren, eta, ondorioz, atzerriko merkantiak ez ziren libre sartzen. Lehen Karlistadan, berrogeita hamar urte geroago, izandako porrotaren ostean, auzi hori behin betiko konpondu zen.

Baina lehenago, XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako Espainia eta Frantziaren arteko gerrek hondamenak ekarri zituzten euskal lurretara; adibidez Donostiako sute handia.

XIX. mendean, batez ere bi Karlistaden eta krisi politiko handiaren eraginez, euskal herritarrek berariazko eskubideak galdu zituzten. Lehen Karlistada 1833an hasi zen, alde batetik, Espainiako tronua nahi zutenen artean –Isabel II.aren aldekoak (liberalak) eta Don Carlosen aldekoak (karlistak)– baina, bestetik, lehian ziren, halaber, aurkako mentalitateen arteko borroka (tradizionalismoa eta liberalismoa) eta Foruak galtzeko beldurra. Gerra 1839an amaitu zen, eta karlistek galdu egin zuten (“Bergarako besarkada”); Foruak konstituzioaren pean geratu ziren, Nafarroako Forua indargabe utzi zuten eta eskumen legegile eta judiziala deuseztatu egin zen eta haren ordeztatu, 1841ean Lege Paktua ezarri zen. Nafarroako Erresuma probintzia bihurtu zen Estatu Liberalean, baina zenbait eskumen mantendu egin zituen.

Gaur Euskadi osatzen duten Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak ez zuten probintzia izaterik onartu eta bitarteko egoera sortu zen.

Espartero (liberala) eta Maroto (karlista) jeneralen arteko “Bergarako besarkada”. Egintza horrekin I. Karlistada amaitu zen, 1839an.



Gernikako Juntetxeko (Bizkaia) beiratean irudikatzen denez, Jaungoikoak laga zizkien euskaldunei lege zaharrak edo Foruak.

Bigarren Karlistada XIX. mendeko 70ko hamarkadan piztu zen. Karlisten eta liberalen aurkako borroka gain, herritarrak Estatu Liberalaren aurka zeuden, zeren, Estatu Liberalak, batez ere, merkatarien, ugazaba handien eta industriako enpresaburu berrien interesak defendatzen baitzituen. Gerra bukatu zenean Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak deuseztatu baziren ere, Aldundiek garrantzia berreskuratu zuten, zeren euskal lurraldeen eta Estatuaren arteko “Kontzertu Ekonomiko” berrien bidez, zergak arautzeaz arduratu baitziren.

Kontserbadoreek (Canovasek) eta liberalek (Sagastak) txandaka zuzendu zuten Espainiako Berrezarkuntzako sistema politikoak (1874–1923), prozedura antidemokratikoak erabili izan zituen Euskadin. Politiko eta diputatu bihurtu ziren enpresaburu handiek (besteak beste, Chávarri, Martínez de las Rivas, Gandarias edo Aznar-ek...) kontserbadoreen aldeko boto ugari erosi egin zituzten. Kazikeen sistema zen.

2.3.2. Gizarteari eta ekonomiari dagozkion alderdiak

XVII. eta XVIII. mendeetan, aurrerakuntza izan zen zenbait sektoretan, besteak beste, arrantzan eta nabigazioan, ontzigintzan, nazioarteko merkataritzan, galdaketan edo nekazaritzan. Izan ere, Bilbo, XVII. mendean, Kantauriko portu garrantzitsuena zen. Horrez gain, XVIII. mendean, ilustrazioaren ideiak eragingarriak izan ziren aurrerakuntza ekonomiko horretan.


Hegoaldeko lurraldeek foruak mantendu zituzten, baina Iparraldean, Frantziako Iraultza eta gero, instituzio bereziak deuseztatu egin ziren eta euskal herrialdeak Behe Pirinioetako Departamentuan integratu ziren.

XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran, aro modernoa hasi zenean, Euskal Herrian aldaketa garrantzitsuak izan ziren arlo guztietan. XIX. mendearen erdialdean, lehen industrializazioaren prozesua eta kapitalismoaren garapenaren izan ziren. Jarduera industrialean, eremu garrantzitsuena Bilboko itsasadarra izan zen (Espainiako inmigrante ugari erakarri zituen). 1900ean, Bizkaiko biztanleen % 27,8 eta Gipuzkoako biztanleen % 12 inmigranteak ziren. XIX. mendearen erdialdeaz geroztik, dagoeneko, inmigrante ugari joan ziren Nafarroatik Euskadira eta beste eremu batzuetara.


XIX. mendearen amaieran, ideologia eta mugimendu politiko eta sindikal berriak sortu ziren. Euskal nazionalismoa Sabino Aranak fundatu zuen eta sozialismoa Facundo Perezaguak ekarri zuen Bizakaira.

Euskal gizartea nabarmen aldatu da. Ekonomian, bi mendetan, landa-herrialde pobrea zena, hiri-gizarte bihurtu da; kulturari dagokionez, jarduera kultural eboluzionatuak ditu; teknologia aldetik, komunitate garatua da eta politikari dagokionez, mapa anitza da.

Victor Chavarriren monumentua. Enpresaburua eta politikari kontserbadorea zen. Areeta, Getxo. (Bizkaia).



Minerala kiskaltzeko labea, 1920an. Orconera Iron Ore Company. Ortuella (Bizkaia).



2.4. XX. mendea

Mendearen hasieran, Espainian, Berrezarkuntzak jarraitzen zuten bitartean, Frantzia, III. Errepublikak ezarri zen, eta, ondorioz, Iparraldean ideologikoki banatuko zuten errepublikanoen eta kontserbadoreen arteko gatazkak sortu ziren.

Espainiako Berrezarkuntza, estatu-kolpearen ondoren ezarritako Primo de Rivera-ren diktadurarekin bukatu zen (1923-1930), baina 1931n, II. Errepublikak ezarri zen eta Alfontso XIII.a erregea atzerriratzea behartu zuten.

2.4.1. II. Errepublika eta Gerra Zibila

II. Errepublikan jarduera politikoa piztu egin zen eta, ondoren, Francoren altxamendu militarra eta ondoriozko Gerra Zibil luzea (1936-1939) etorri ziren.

Euskadik autogobernua berreskuratzea aldarrikatu zuen, baina Errepublikako Gorteek ez zuten Autonomia Estatutua onetsi, 1936ko urrira arte, gerra zibila bete-betean zegoenean. Orduan, lehen eusko jaurilaritza eratu zen eta Jose Antonio Agirre lehen lehendakari izendatu zuten. Gobernu horretako sailburuak honelaxe banatu ziren: bost nazionalista, hiru sozialista, komunista bat eta alderdi errepublikano bakoitzeko ordezkari bana. Uneko egoera berezia zela eta, gobernu horrek botere handiak izan zituen, baina Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeak baino ezin izan zituen kontrolatu, zeren Araba eta Nafarroa militarren alde jarri baitziren hasieratik.

1937ko uztailan, Francoren armadak Euskadi osoa hartu zuen, eta, ondorioz, Eusko Jaurilaritza, lehenbizi, Katalunian eta, gero, atzerrian ezarri zen.

2.4.2. Bigarren industrializazioa eta frankismo berantiarra

Frankoren diktadura (1939-1975) garai latza izan zen Euskadin. Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia traidoretzat jo zituzten. Euskara eta euskal kultura orokorrean, esetsi egin zituzten, jarduera politiko eta sindikalak debekatu egin ziren, errepresioa (kartzelaratzak, atzerriratzeak, fusilamenduak...) izugarria izan zen, batez ere hasieran. Nazioarteko gobernuak Francoren erregimena eraisten laguntzeko itxaropena desagertu egin zen berrogeita hamarreko hamarkadan, Estatu Batuek eta Vatikanok Francorekin hitzarmenak burutu zituztenean.

XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran eta hirurogeiko hamarkadan, bigarren industrializazioa izan zen. Industrializazio horrek aldaketa sozial eta ekonomiko garrantzitsuak sorrarazi zituen hegoaldeko Euskal Herriko lau lurraldeetan eta langile inmigrante gehiago etorri ziren Espainiako zenbait probintziatatik.

Ezkerrak eta nazionalismoak diktaduraren aurkako erresistentzia aktiboa egin zuten, batez ere, 60ko hamarkadaz geroztik. Euskarari eta euskal kulturari buruzko interesa berpiztu egin zen. Langile-mugimendua indartu egin zen. 1959an ETA (Euskadi Ta Askatasuna) sortu zen. ETAk ideologia ezker abertzalea zuen eta hirurogeiko hamarkadan borroka armatuari ekin zion.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan frankismoaren krisia hasi zen. Greba politikoak eta laboralak areagotu egin ziren eta ETAk ekintza armatuak areagotu egin zituen, euskal elizak sistemarekiko jarrera kritikoa hartu zuen... Horrek guztiak errepresio handia ekarri zuen: gerra-kontseiluak, salbuespen-egoerak, milaka atxilotu eta kartzelaratu, zenbait exekuzio (Puig Antich, Txiki, Otaegi...) eta hilketak manifestazioetan (Donostian, Gasteizen 1976an, Iruñean 1978an) eta komisarietan, eta erregimenaren euskarriak higatu egin ziren. 1973an, Luis Carrero Blanco Gobernu-burua, Francoren ondokoa izango zena, hil zuten atentatuan.

2.4.3. Demokrazia eta Estatutua

Franco hil zenean, 1975ean, demokrazia lortzeko trantsizioa hasi zen, diktadurarekin erabat hautsi gabe. Frankismoko krimenen arduradunak zigorrik gabe geratu ziren. Erreferendumaren bidez, erreforma-ildoan onetsi zen, 1977ko ekainean lehenbiziko legegintzarako hauteskundeak egin ziren eta 1978ko abenduan, Espainiako Konstituzioa baietsi zen. Euskal herritarrek euren etorkizunari buruz erabakitzeke eskubidea (autodeterminazio-eskubidea) aurreikusten ez zituen Konstituzio hori, Euskadiko hautesleen heren batek baino ez zuen baietsi eta Nafarroan erdiek onetsi zuten.

Autonomia Estatutua 1979an onartu zen. Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak Euskadiko Autonomia Elkartearen eroldako botoen % 59,36ekin. Nafarroan, erreferendumik gabe, 1982an Nafarroako Foru Erauzte Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa ezarri zen. Iparraldeak, ordea, ez du inolako autonomiarik.

Gernika (Bizkaia) 1937an, alemaniarren Condor Legioak bonbardatu ondoren.



Manifestazioa Gasteizen 1976ko martxoan, bertan hil zituzten bost langileen alde.



José M^a Leiozola (eskuinean), Erbesteko Eusko Jaurilaritzaren lehendakaria, Jose Antonio Agirre hil ostean (1960).



2.4.4. Euskal Herria gaur

Alde batetik, Euskal Herria traumatizatuta bizi izan da urte hauetan guztietan eta orain tunelaren amaieran argia ikusi nahi du. 2006ko martxoan ETAK “su–eten iraunkorra” aldarrikatu zuen, baina 2006ko abenduan hautsi egin zen, Barajaseko aireportuan hildakoak eta kalte handiak eragin zituen bonba handia jarri zutenean.

1968az geroztik, mila lagun hil dira indarkeria politikoaren ondorioz, eta horietako 800 ETAK hil ditu. Demokrazia ezarri zenetik, ETAK atentatu odoltsuak edo sozialki mingarriak diren ekintzak burutu ditu –Hipercor–eko edo Vallecas–eko atentatuak, demokratikoki hautatutako politikoen erailketak, Ortega Lararen bahiketa...-. Hala ere, Estatuaren jokabidea ere ez da eredugarria izan. Demokrazia garaian, hilketa parapolizialak eta torturen ondoriozko hilketak izan dira eta zenbait eskubide politiko mugatu egin dira.

Bestalde, politikari dagokionez, Euskadiren eta Espainiaren arteko harremanak finkatzeko daude, zeren, euskal gizartearen gehiengoak erabakitzeke eskumen handiagoa aldarrikatzen baitu.

Gaur egun, arazo politikoak bideratzeko proposamenak daude (ikus, 4.1.)

Fundatu zenetik 40 urte baino gehiago pasatu direnean, ETAK etengabe bake–gogoak erakusten dituen euskal gizartearen gehiengo handi baten aurka ritu da.

2006ko abendua: Madrilgo Barajas aireportuko 4. terminaleko aparkalekuan egindako atentatuaren eraginak. Atentatu horren bidez ETAK, ezarri zuen su–etena hautsi zuen eta, ondorioz, Ekuadorreko bi inmigrante hil zituen.



3. EUSKAL GIZARTEA

Historian zehar, Euskal Herriko lurraldeetako antolakuntza–eredua aldatu egin da. Tribuetan oinarritutako antolaketatik Erdi Aroko ohiko estamentu–banaketara pasatu zen (noblezia, kleroa, artisau libreak eta jopuak).

Bizkaian, Gipuzkoan, Arabako parte batean eta Nafarroako iparraldean, feudalismoa ez zen Gaztelan edo gainerako Nafarroan bezain hierarkikoa eta estamentala izan. Horren arrazoietakoa bat honako hau da: leinuen arteko gatazken ostean, XVI. mendean, “kaparetasun unibertsala” ezarri zen eta, ondorioz, herritar gehienak noble txiki bihurtu ziren, lehenbizi hiribilduetan eta gero Lur Lauan. Horren ondorioz herritarrek honako eskubide hauek zituzten: atxilotzean zigorrik ezin zuten jaso, faboreko tratu fiskala zuten, soldaduskatik salbuetsita zeuden euskal mugetatik kanpo, euskal instituzioen hitzarmenen bidez kontraktorik esaten ez bazuten, Batzar Nagusietan ordezkariak izateko eskubidea zuten... Gainerako Nafarroan eta Araban estamentuak zeuden: noblezia, zegozkion mailekin, kleroa, hiribilduetako biztanle askeak edo kaletarrak, baserritar askeak eta, batez ere, jopu gisa aritzen ziren eta lurrari atxikita zeuden nekazariak.

Kooperatzeko hainbat era zeuden. Hortaz, eskualde askotan, herritarrek herri–basoak (auzo, herri edo haran jakin bateko biztanleek neurritz erabil ditzaketen jabetza kolektiboko basoak) ustiatzeko eskubidea zuten eta dute; etengabe gerran zebiltzan jauntxoek leinuen aurka defendatzeko Ermandadeak sortu zituzten; arrantzaleen Kofradiak sortu zituzten, arrantza banatzeko eta saltzeko arauak ezartzeko... Baina desorekak ere bazeuden (lur–jabeek pisu handiagoa zuten erabakiak hartzeko orduan; Batzar nagusietan gaztelania erabiltzen zen, eta, ondorioz, erdara ez zekitenek ez zuten parte hartzeko aukerarik; Nafarroako iparraldeko zenbait herritan agotak edo ijitoak marjinalak zeuden...).

XIX. mendearen amaierako industrializazioan gizarte–sistema osoa aldatu zen, eta ondorioz, goi–burgesia, burgesia ertaina eta behe–burgesia, klase profesionalak, nekazari eta arrantzaleak eta soldataren truke lan egiten zuten langileak agertu ziren.

³Agoteak gaizki ezagutzen den gutxiengoa dira. Diskriminazio xenofoboa jasan zuten mendeetan zehar, Pirinioetako alde batean eta bestean. Euskal Herriari dagokionez, Baztanen, Erronkarian eta Iparraldean gertatu zen.

Gaur egun, industria-enpresa txiki eta ertainak eta teknikari eta profesionalen kopurua hazi egin dira; langileak eta euren interesak sakabanatu egin dira eta, halaber, emakumearen presentzia areagotu egin da hazten ari den zerbitzu-gizartean; langile inmigrante berriak datoz eta, arestian baino gutxiago badira ere, kultura anitzekoak dira; industrialdeak lehen landa-eremuak zirenetara zabaldu dira; portaerak indibidualagoak dira; gizarte-mugikortasuna areagotu egin da (aldaketa profesionalak eta lekualdatze geografikoak)...

3.1. Gizartearen bilakaera

Euskadiri dagozkion inkesten arabera, azken urteetan, balio-aldaketa garrantzitsuak izan dira.

Familia eta lana dira balio nagusiak, goranzko joera (politika eta aisialdia) edo beheranzkoa (erlijioa) duten beste batzuen gainetik. Hala ere, euskal herritarrek, tradizioz, oso erlijioitsuak (katolikoak) izan dira, eta Elizak eta dagozkion errituek eragin handia izan dute, pertsonen bizitzarekin eta heriotzarekin zerikusia duten gizarte-ohituretan.

Era berean, lanari garrantzia ematea bat dator euskal kolektiboaren taldean lan egiteko espirituarekin. Lan industrialari dagokionez, mende eta erdiko esperientzia luzeak izaera ekintzailea, diziplina sendoa eta ezagutza teknikoak eta laboralak jasotzeko eta nork bere lana eta dagokion ordaina baloratzeko joera sorrarazi ditu.

Ezkontzea ez da zaharkituzat jotzen, eta senar-emazteen artean elkarrekiko errespetua eta fideltasuna baloratzen dira. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanei dagokienez, ordea, balio nagusiak sakrifikatzea, errespetua eta maitasuna dira. Umeak tolerantziaren arabera hezten dira.

Emakumearen irudia asko aldatu da. Berdintasun-patroiaz gain, ama ezkongabeen irudia onartuta dago eta, ezinbesteko kasuetan, dibortzioa eta abortua onartu egin ohi dira. Emakumearenganako errespetu hori ez da arraroa, matriarkatua izatera iritsi gabe, historikoki etxeoandreaki erantzukizun handia eman dion gizartean.

Foru-Zuzenbide Zibila ohiko tradizionala baino berdintasun-erazkoagoa zen legedi guztiak berdintzen dituzten erreformak ezarri arte. Dena den, legeen arabera emakumea eta gizonezkoa ez daude parekatuta. Gaur egun ere, gizarte-talde batzuk zenbait tradizioan (adibidez, Irungo edo Hondarribiako Alardeetan) balio modernoak sartzearen aurka daude.

Politikari dagokionez, askatasunaren eta berdintasunaren balioak defendatu ohi dira. Mentalitatea, oro har, progresista da, politikari buruzko interesa eta gizartean parte hartzeko joera beste leku batzuetan baino handiagoak dira, baina garai batean indarkeria politikoa onartu egin zen.

Teknologia Parkeko eraikuntza. Zamudio (Bizkaia).



El Pobal burdinola. Muskiz (Bizkaia)



3.1.1. Gizarte-aldaketa eragiten duten faktoreak

Gaur egun, gizarteak, euskal gizartea barne, transformazio-prozesu garrantzitsua bizi dute. Aldaketa horretan hainbat faktorek eragiten dute (ekonomikoak, kulturalak, teknologikoak, politikoak, belaunaldi-faktoreak eta demografikoak).


- Faktore **ekonomikoak**. Bi mendean, landa-herrialde pobrea zena, herrialde kapitalistetan ohikoa den gizarte hiritartu bihurtu da (klaseen arteko ohiko gatazkekin). Hirurogeita hamarreko hamarkadako krisi larriaren ondorioz, Euskal Herriko zenbait eremutan pobrezia- eta marjinaltasun-poltsak sortu dira. Izan ere, Eustat-aren arabera (2007), 73.718 pertsona (biztanleen % 3,5) "pobrezia-arriskuko" eta % 19,8 "ongizate faltako" egoeran zeuden 2004an.

- Faktore **kulturalak**. Transformazioa oso nabarmena da kultura-jardueretan eta aisialdiaz gozatzeko eran, bai kalean, bai etxeetan (irratia, telebista, DVD-a, musika, Internet...). Landa-eremuen eta hirien eta gizarte-sektoreen arteko diferentziak murriztu egin dira. Zenbait jardueretan, adibidez, prentsa irakurtzeko edo turismo kulturala egiteko joeretan, diferentzia gehiago daude, zeren pertsonen ahalmen ekonomikoaren eta kultura-mailaren arabera baitira. Halaber, gizonezkoen eta emakumeen artean ere desoreka dago. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek, gizonezkoek baino denbora gehiago eman ohi dute etxeko lanak egiten, baina zereginak banatzeko joera argia dago.

Euskadin, biztanleko gastua kulturean, 293,4 eurokoa da urtean -Bigarren Autonomia Erkidegoa da, Madrilen ostean. Madrilen kulturako gastuaren batez bestekoa 306,4 eurokoa da- eta Nafarroa laugarrena da rankinean, 272,2 euroekin.

- Faktore **teknologikoak**. Teknologiaren eta haren produktu deribatuen bilakaerak, halaber, eragin handia izan du bizimoduan.

Euskal Herriko biztanleek (familiek) dituzten teknologiak ehunekotan (2006)



CIEsek eta Eustatek emandako estatistika-datuak.

Gizartean eta lanean, oraindik ere, berdintasuna lortzeko hainbat oztopo badira ere, Euskal Herriko emakumeek gizonezkoen lege- eta politika-eskubide berberak dituzte.

KZgunea programaren bidez, Eusko Jaurlaritzak teknologia berri guztiak hurbildu nahi ditu gizarte-esparru guztietara.



- **Politikoak.** Euskadin, proiektu soziopolitikoaren ereduak aldatu egin dira azken hamarkadetan.

XIX. mendearen azken herenean, foruzaleak (foruen aldekoak), karlistak (foruzale tradizionalistak eta dinastia karlistaren aldekoak), liberal monarkikoak eta errepublikano progresistak ari ziren elkarren aurka. XX. mendearen lehen herenean, liberal kontserbadoreek, tradizionalistek, nazionalistek, anarkistek, errepublikanoek, sozialistek eta 30eko hamarkadan komunistek eta falangistek (eskuin muturrak) proiektu desberdinak zituzten.

Frankismoan, ordea, Francok bateratzen zituen ideologia bereko fakzioak besterik ez zeuden: monarkiko frankistak, falangistak, tradizionalistak eta opus dei-ren aldekoak, eta alderdi komunistak, nazionalistak eta sozialistak klandestinitatean aritzen ziren.

Gaur egun, honako joera ideologiko hauek daude: euskal nazionalismo historikoa (nolabait, zentrokoa edo zentro- ezkerrekoa), ezker-nazionalismo erradikala, euskal sozialista espainolak, kontserbadoreak (abertzale espainolak ere badirenak) eta, azkenik, sailkapen honetan sartzen ez diren ezkerreko beste alderdi batzuk.

- **Belaunaldi-faktoreak.** Bizi-itxaropena handiagotzearen eta aldaketa sozial eta ekonomikoaren ondorioz, gurasoak are gehiago arduratzen dira euren ondorengo urriaz (hezkuntza, bizitza pertsonala...) eta bi belaunaldiak luzaroan bizi dira elkarrekin etxe berean.

Euskal Herriko biztanleak: 1860-2001

	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava Araba	Euskadi	Navarra	Iparralde	EUSKAL HERRIA
1860	168.705	161.965	93.344	424.014	298.290	162.000	722.304
1910	351.328	226.684	97.181	675.193	312.235	183.000	987.428
1940	511.892	331.753	117.200	960.845	369.618	193.473	1.524.206
1975	1.152.141	682.507	240.267	2.074.915	483.867	228.312	2.787.094
2001	1.123.002	673.563	287.928	2.084.493	555.829	262.640	2.902.962

Iturria: Eustat

3.1.2. Demografia eta inmigrazioa

Euskal gizarte tradizionalan, ekonomia baserriaren inguruan garatzen zen eta hazkuntza demografikoa motela zen. Herentziak honako hiru ohitura hauen arabera arautzen ziren: tronkaltasuna (baserria eta ondasun higiezin jabetza, higiezin horien jatorrizko jabeen familia-lerroko oinordekoentzat izaten zen), maiorazkoa (baserriaren ondareak seme edo alaba bakar batentzat izan ohi ziren -normalean, nagusienarentzat- jabetza bana ez zedin), eta foru-komunikazioa (senar-emazteek ezkontzara ekarritako ondasunen jabetza, oinordekorik izanez gero, senarrarenak zein emaztearenak ziren).

Koadro horretan ikus daitekeenez, 140 urtean, Euskal Herriko biztanle-kopurua lau aldiz handiagotu da, eta Euskadikoa bost bider handiagoa da. Nafarroako biztanle-kopurua ia bikoiztu egin da eta Iparraldean 1,6 aldiz biztanle gehiago dago. Hazkuntza horien arrazoiak, batez ere, honako hauek dira: sasoi jakin batzuetan jaiotza-tasa handiagotzea eta XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean etorritako inmigranteak.

Lapurdiren kasuan, hazkuntza horren arrazoia Frantziako beste lurraldeetatik etorritako inmigranteak dira -jubilatutak, turista finkoak...- Iparraldean, esanguratsua da denbora-tarte horretan Zuberoan eta Nafarroa Beherean izandako beherakada; hots -Zuberoan, 1860an 24.000 biztanle ziren eta orain 15.000 dira, eta Nafarroa Beherean, biztanle-kopurua 50.000tik 28.000ra jaitsi da-.

Hegoaldeari dagokionez, 1950-1975 urte-tartean, biztanle-kopurua bikoiztu egin zen (1.061.000 biztanle izatetik, 2.070.000 biztanle izatera pasatu zen). Biztanle horietako 470.000 Espainiako eskualdeetatik etorritako pertsonak ziren (% 22). 1975-2000 urteetan, biztanle-kopurua ez zen hazi eta industriaren krisiaren ondorioz, inmigrante asko jatorrizko lekuetara itzuli ziren.

Aldaketak zenbait faktoreren eraginez sortu ziren, hots: heriotza-tasa murriztea; jaiotza-tasa murriztea (faktore ekonomikoaren eraginez, emakumeak laneratzeagatik, seme-alabak etxetik beranduago joaten direlako eta jendea beranduago ezkontzen delako); pertsona nagusi gehiago daude (20 urte baino gutxiago dituztenak bostena baino ez dira); gazteek lanean egonkortasunik ez izatea; etxebizitza garestia izatea...

Azken bost urteetan, biztanle-kopurua hazi egin da apur bat, jaiotza-data apur bat handiagotu delako eta migrazioen eraginez.

Bizi-itxaropena handiagotu egin da eta jaiotza-tasa urria izan da hainbat urtetan; horren ondorioz, euskal populazioaren piramidea erabat aldatu da.



2001. urtean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi diren bi milioi pertsonen % 27 (544.656) Espainiako beste Autonomia Erkidego batean -gehienak (% 91,4)- edo Atzerrian jaiotakoa da (% 8,6). Kultura-nahastea garrantzitsua da (gaur egungo biztanleen laurdenak baino ez ditu lehen bi abizenak euskal jatorrizkoak).

Dena den, azken urteetan azkarren hazi den taldea erbesteko herrialdeetatik etorritakoena da. Inmigranteen % 55, 1996-2001 tartean iritsi ziren, eta 2001-2006 tartean, hiru bider handiagoa da. Izan ere, 2005eko udal-errolako datuen eta beste datu batzuen arabera (Ikuspegi 2006), 2006an, Euskadiko biztanleen % 4 (83.547) erbestetik etorritako inmigranteak ziren. Azken urtean % 23 handiagotu zen. Espainian % 8,7 ziren.

Euskadin, ehunekorik handienak Araban daude (% 5,5 baino gehiago), Bizkaian, inmigranteen erdiak bizi badira ere. Erroladatuakoen sorterrari dagokionez, % 49,0 Amerikakoak ziren, % 28,6 Europakoak (batez ere EBan sartu berriak diren herrialdeetakoak), % 17,39 Afrikakoak eta % 5,5 Asiakoak ziren. 1998tik 2006ra bitartean, inmigrazioa bost aldiz handiagotu da (lehen, 15.198 eta orain, 83.547).


Sorterrii dagozkien ehunekoak aldatu egin dira, zeren garai hartan honako hauek baitziren: % 50 Europakoak, % 26,3 Amerikakoak, % 17,8 Afrikakoak eta % 5,58 Asiakoak. Afrikari eta Asiari dagozkien ehunekoak egonkor samar mantendu dira.



Langile inmigrante berriak etorri zaizkigu. Iraganean baino gutxiago dira, baina kultura askokoak eta laguntza gordina dira, kulturari, gizarteari, lanari eta zergei dagokienez, hartzen dituen gizartearen onerako.

Gozogintza-negozio arabiarrak Bilbon.

Inmigrazioa Euskadin nazionalitate-eremuen arabera (guztizko biztanleen %tan). 2003-2006



Nazionalitateen arabera, Kolonbiakoak eta Ekuadorrekoak batuta guztizko kopuruaren % 22 dira, % 8,9 Marokokoak dira, % 7,5 Portugalekoak dira (gero eta gutxiago dira, Argentinatik etorritakoak bezala). Hazkuntzarik handiena Errumaniakoengan eta Boliviakoengan izan da, eta dagoeneko, hurrenez hurren, % 7,4 eta % 7,2 dira.

Generoen arabera, gizonezkoen eta emakumeen kopuruak berdintsuak dira. Pertsonen joerak, lehenbizi iritsitakoekin dituzten kontaktuen arabera dira: Kolonbiako pertsonak Bizkaira eta Arabara joateko joera dute; Ekuadorrekoak Bizkaira eta Gipuzkoara joan ohi dira; Portugalekoak eta Argentinakoak Gipuzkoara; Marokokoak eta Algeriakoak Araba eta , hainbeste ez bada ere, Gipuzkoa nahiago dute; Errumaniakoak eta Boliviakoak Bizkaira jateko joera dute. Oro har, Bizkaian Latinoamerikako inmigrazioa da nagusi, Gipuzkoan, Europakoak dira gehienak eta Araban, gehiengoa Magrebekoa da.

Nafarroan, 592.482ko biztanleen guztizkoaren % 8,36 inmigranteak dira, Espainiako batez bestekoaren antzekoa. Batez ere Iruñean, Erriberan. Azken eskualde horretan, inmigranteak biztanle kopuruaren % 10,11 dira. Nazionalitateen arabera, ia bi heren, honako sorterri hauetakoak dira: Ekuadorrekoak (% 28,12), Marokokoak (% 10,22), Kolonbiakoak (% 9,7), Algeriakoak, Bulgariakoak eta Portugalekoak. Esanguratsua da Nafarroan zazpi urtetan izan den aldaketa: 4.313 inmigrante izatetik, ia 50.000 izatera pasatu da.

Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE-ren) arabera, 2006ko urtarrilean, hegoaldeko Euskal Herri osoan erroldatuta dauden 2.718.318 pertsonetatik, 2.020.220 (% 74,3) Euskadiko Autonomia Elkargoan edo Nafarroan jaiotakoak dira. 548.132 (% 20,2) Espainiako estatuko gainerako eskualdeetan eta 149.968 (% 5,6) atzerrian jaio dira; azken horiei dagokienez, atzerriko nazionalitatea mantentzen dutenak 122.276 pertsona dira (% 4,5).

Inmigranteen kolektibo berriak euskal izaeraren kontzeptua birdefinitzen ari dira.



3.2. Familia

Familia-arauak oso desberdinak dira herrialdeen arabera. Gizarte modernoetan, dagoeneko ez dago zenbait belaunalditako pertsonak eta seme-alaba ugari dituzten familiarik. Gaur egun, familia-mota asko daude, seme-alaben kopurua txikiagoa da eta emakumeek etxetik kanpo lan egiten dute.

3.2.1. Familia tradizionala eta familia modernoa

XX. mendean izandako aldaketa handien ondorioz, herri txikietako eta baserrietako familia, familia hiritar eta industrial bihurtu da.

FAMILIA TRADIZIONALAREN ETA FAMILIA MODERNOAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Familia tradizionala	Familia modernoa
Patriarkala	Demokratikoa
Seme-alaba asko	Seme-alaba gutxi
Emakumeak etxean lan egiten du	Emakumeak etxetik kanpo lan egiten du
Emakumeari eta gizonezkoari dagozkien lanak bereiztuta daude	Eginkizunak malguak dira eta berdinduta daude
Familia ekonomia-unitatea da	Familia kontsumo-unitatea da

Familia hainbat eratarara osatuta egon daiteke, besteak beste:

- Bikotea, seme-alabekin edo gabe (heterossexuala edo, askoz ere urriagoak badira ere, homosekualak).
- Guraso bakarra, seme-alabekin.
- Odolkidetasun-loturen, afektuzko harremanen edo ezkontzaren arabera osatutako pertsona-taldea.
- Pertsona bakarrak.

Lehen ia aukera bakarra zen familia tradizionala (guraso heterossexualak eta seme-alabak) gero eta urriagoa da, zeren familien % 41ak baino ez baititu ezaugarri horiek. Gaur egun, bakarrik bizi diren pertsonen kopurua % 20koa (azken kopuru hori bikoiztu egin da 5 urtean), seme-alabarik gabeko familiarik % 17 dira, eta seme-alabak eta guraso bakarra bizi diren taldeak % 10 dira.

3.2.2. Ezkontza eta dibortzioa

Ezkontzen eskubideak eta betebeharrak Kode Zibilean eta beste arau osagarri batzuetan biltzen dira. Legeen arabera, ezkontza zibila edo erlijiozkoa izan daiteke. Ezkontza zibila, epailearen, alkatearen edo ordezkariaren eta bi lekukoren aurrean egin ohi da. Eragin zibilak dituen ezkontza erlijiozkoa, legeen arabera onartuta dauden lau erlijio-erritoren arabera egin daiteke: katolikoa, ebanjelikoa, musulmana eta hebrearra.

Beste era bateko ezkontzak ere badaude: ahalorde bidezko ezkontza (ezkongaietako batek ezin badu egon, baimendutako pertsonak ezkongai hori ordezkatzeko du) edo kontsul-ezkontza (atzerriko kontsulatu edo enbaxadan egiten dena).

Homossexualen arteko ezkontza

Hainbat herrialdeetan (Herbeheretan, Belgikan, Kanadan eta Espainian) onartuta dago homossexualak elkarrekin ezkontzea, eskubide eta betebeharrak osoekin, seme-alabak adoptatzea barne, baina, era berean, homossexualitatea aukera pertsonal libretzat jo beharrean, anomaliatzat jotzen dutenak ere badira.

Baliogabetasuna, banatzea eta dibortzioa

Ezkontza baliogabe uzteko, ezkontza horrek, arrazoi eraginkorra dela medio, balio ez duela egiaztatzen duen epai judiziala behar da. Ezkontza-banatzea, uztartzea mantenduz baina uztartze horren eraginak deuseztatuz elkarbizitzari uztea da. Ezkontzideetako batek ezkontza-banatzea eska dezake epaitegian, parteak adostuta egon ala ez.

Dibortzioa. Prozedura judizialaren bidez ezkontza desegitean datza. Ondorioz, ezkontzide ohiak, berriz ere beste edozeinekin ezkon daitezke. Ezkontzideek ados jarri behar dute seme-alaben zaintzari buruz, kasuan kasuko ordaindu beharko den pentsioari buruz, seme-alabak bisitatzeko eskubideei buruz, edota ondare-banaketari buruz. Adostasunik lortzen ez bada, Epaitegiak hartuko du auzi horiei buruzko erabakia, parteei entzun eta gero.

Izatezko bikoteak

Gaur egungo euskal gizartean zabala eta heterogeneoa da. Izatezko bikoteak (ezkontu gabe elkarrekin bizitzea erabaki duten bikoteak), inolako kontraturik gabe uztartzen direnak, ohiak dira gaur egun. Euskadin izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko Legebiltzarraren 2/2003 Legearen arabera, izatezko bikoteen eskubideak eta betebeharrak (homossexualen bikoteenak barne) ezkontzuenekin berdinduta daude, Euskadik eskumenak dituen auzietan (adopzioa, osasun-zerbitzuak, zerga-erregimena, etab.). Hala ere, legearen arabera, izatezko bikotekideek, beste kidea hilez gero, ez dute alarguntasun-pentsiorik jasotzeko eskubiderik.

Izatezko bikotea legearen arabera onartua izan dadin, interesatuek Euskadiko Izatezko Bikoteen Erregistroan edo dagokien udal-erregistroan erregistratu behar dute.

Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna (genero-berdintasuna) legeek babestu eta exijitu egiten dute. 2005eko otsailean, Legebiltzarrak berdintasuna indartzen duen Berdintasun Legea onartu zuen. Bestalde, etxeko indarkeria eta emakumeen jazarpena, bereziki gogor esetsita daude kode penalaren bidez.

Bikotekideen eginkizunak azkar eta nabarmenki aldatu dira.



Emakunde-ren kanpaina, bi sexu-etako pertsonen betebeharrak berdintasunaren alde.



3.3. Gizarte-partaidetza

Euskal herritarrek partaidetzarako eta elkarteak sortzeko joera berezia dute. Euskal gizartearen esparru guztietan nabaritzen da, eta adibide asko daude: enpresa kooperatiboak, elkarte gastronomikoak, txokoak (bazkideek solaserako, janaria egiteko edo lagun artean afaltzeko erabiltzen dituzten lokalak), auzi anitz aldarrikatzen dituzten kolektibo ugariak edota koadrilak (aisialdian elkarrekin ibiltzen diren adiskide-taldeak).


Herri txikia izanda ere, elkarte ugari daude. Eustat-aren arabera, Euskadin, 16.128 gizarte-elkarteez gain (2006), 6.533 kirol-elkarte daude; guztira 22.661 dira. Elkarte politiko eta sozioekonomikoak 2.428 dira eta hertsiki kulturalak (artistikoak, kultura sustatzen dutenak, zientifikoak..., gastronomikoak, aisialdikoak, kirol-elkarteak, zezen zaleenak kontuan hartu gabe) 5.035 dira.

3.3.1. Sindikatuak

Langileak ordezkatzen dituzten enpresaburuen aurrean, baldintza-lanak eta soldatak defendatzeko. Enpresa handi samarretan, langileek, enpresaburuen aurrean euren organo-ordezkaria den "enpresa-batzordea" osatuko duten kideak hautatu ohi dituzte.

Sindikatu nagusiak "klase sindikatutzat" jotzen direnak dira (langile-klase osoaren ordezkariek dira eta ez enpresa jakin batekoak): ELA da nagusi, 105.000 afiliaturekin (nazionalista da eta Euskadin eta Nafarroan baino ez du jarduten), hurrengoa, urrutitik, CCOO da (ez da nazionalista eta sindikatu estatalaren parte da), horren ondorengoak, hurbiletik, LAB (hau ere nazionalista) eta UGT (estatala) dira. Beste sindikatu txikiagoak (USO, ESK...) edo dagokien sektorean aritzen direnak (hezkuntzan, osasunean...) ere badaude.

Ordezkarien ehunekoak 2006ko hauteskunde sindikaletan



Euskal Herrian, parte hartzeko eta elkartzeko joera berezia dago.



Kontzentrazio sindikala atzeritarren legearen aurka.



Soldatako langileak ez dira sindikatuetan elkartzen diren bakarrak. Beste elkarte edo sindikatu txiki batzuk ere badaude, hots: langile autonomoenak, lur-jabe txikiena edo abeltzainenak (EHNE, ENBA...) edo garraiolarienak.

3.3.2. Enpresa-elkarteak

Euskal Enpresen Konfederazioa (Confebask) deritzon erakundeak, 1983ko martxoan sortu zenez geroztik, euskal enpresaburuen interes komunak ordezkatzen eta defendatzen ditu. Confebask-en filosofia ekimen pribatua eta enpresa librea sustatzea da. 13.000 enpresa baino gehiago biltzen ditu eta Confederacion Española de Organizaciones Empresariales (CEOE) deritzon erakundeko kide da.

Beste xede orokorragoetako lurralde bakoitzak dagokion Merkataritza Industria eta Nabigazioko Ganbera du. Merkataritza Ganberak, Zuzenbide Publikoko eta kudeaketa pribatuko erakundeak dira eta merkataritzaren, industriaren eta itsas sektorearen interesak ordezkatzen eta sustatzen dituzte, enpresei zerbitzuak ematen dizkiete (datuak, ezagutza, aholkularitza...) eta ekonomia bultzatzeko ekimenak egiten dituzte.

Enpresa kooperatiboak

Euskal ekonomian enpresa kooperatibo (1.607), elkarlaneko enpresa edo Lan Sozietate Anonimo (1.058) eta Lan Sozietate Limitatu (1.116) asko daude.

MCC-k (Mondragon Corporacion Cooperativak) 210 enpresa eta 78.000 langile ditu -Euskadin zein kanpoan (% 56,1), LSAtan eta LSLtan 12.974 langile bazkidek lan egiten dute eta, sakrifizio eskerga eginez, enpresa ugari porrot industrialetik berreskuratu zituzten langileek osatzen dituzte. Guztira, ekonomia sozialeko 60.949 lanpostu daude Euskadin, langileen % 6,4.

3.3.3. Elkarteak eta mugimenduak

Gizarte-sarea zabala eta anitza da Euskal Herri osoan. Aipatutakoez gain, beste elkarte ugari daude: aisialdikoak, kulturalak (batez ere euskara aldarrikatzen eta defendatzen dutenak), gazte-elkarteak, auzo-elkarteak, ingurumen-elkarteak, etab., alderdi politikoak, sindikatuak edo GKEak ahaztu gabe. Bereziki garrantzitsuak dira gizarte-mugimendu ekologistak, feministak edo bakezaleak; askoz ere erreibindikatzailagoak dira eta jarduteko eta antolatzeko era sistematikoagoak edo noizbehinkakoagoak dituzte.

ETA-ren atentatuen ondorioz, indarkeriaren aurka mobilizatzen diren edo terrorismoaren biktimak edota presoan senideak ordezkatzen dituzten mugimendu sozialak eta kolektiboak sortu direla. Bakearen aldeko gizarte-mugimendu garrantzitsuenak eta egonkorrenak Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Elkarri (gaur, Lokarri) eta Gesto por la Paz dira. Bakearen ikerketarako institutua dago (Gernika Gogoratzuz). Foro de Ermua eta Basta ya! erakundeek terrorismoaren eta euskal nazionalismoaren aurkako borrokak konbinatu dituzte. Eta Etxerat ETako presoan senideen elkarteak da.

Arrasateko Kooperatiben taldea, (MCC, Mondragon Corporacion Cooperativa) euskal kooperatibismoaren erakunderik garrantzitsuenak da. Enpresa asko dauzka, hainbat arlotan: ekoizpena, ikerketa, finantzak, zerbitzuak eta aisialdia, eta mundu osoan zehar banatuta dago.

MCCko DANOBAT makina-erremintako kooperatibaren produktua.

Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren egoitza eta erakundearen mendeurrena ospatzeko Nestor Basterretxeak 1986an egin zuen eskultura.



Bakearen aldeko egintza.



3.3.4. Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE)

Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE-ak) irabazteko asmorik gabe hiritarren ekimenez sortutakoak dira, nahikoa profesionalizatuta daude eta gizarte-talde marjinatu edo gutxietsien (nagusien, gaixoen, minusbaliatuen etxerik ez dutenen, eta abarren) ongizatea lortzea dute helburu.

Esanguratsuak dira GGKE-ak, hau da, Garapeneko GKE-ak. Erakundeon helburua herrialderik azpigaratuenetako edo dagokion herrialdean gutxien garatuta dauden sektoreetako bizi-baldintzak hobetzea da.

Ezagunenak honako hauek dira: *Hirugarren Mundua eta Bakea*, *Mugarik Gabe*, *Médicos del Mundo*, *Intermon-Oxfam*, *Setem*, *Gurutze Gorria*, *Unesco Etxea*, *Haurralde Fundazioa*. Erakunde horiez gain, azpimarragarria da Hegoak, Euskal Unibertsitateko Nazioarteko Garapenerako eta Lankidetzarako Ikerketen Institutuak, ezagutzan eta ikerkuntzan egiten duen lana.


Inmigranteekin edo asilo politikoarekin lotuta daudenak honako hauek dira: *Cear-Euskadi* (Herrialde gatazkatsuetako pertsona errefuxiatuekiko solidaritatea eta harremanak bultzatzen dituen erakundea), *SOS Racismo*, *Caritas* edo *Harresiak Apurtuz* (Inmigranteei laguntzen jarduten duten Euskadiko GKE-en Koordinakundea).

Komunitate kolonbiarraren bisita
Ziortzara (Bolibar -Bizkaia-).



Euskal Herria solidarioa izateagatik bereizten da.

Hainbat laguntza-material eramaten duten karabanetako bat, kanpamendu sahararrean.



3.4. Euskal diaspora

Euskal Etxeak munduko beste eremu batzuetara emigratu duten euskaldunak edo haien ondokoak biltzen diren zentro edo elkarteak dira. Bertan, euskal kulturaren zenbait alderdi transmititu ohi dira. Gehienetan, euskalduna izatearen sentimendua eta bizi diren herrialdeko identitatea konbinatu egin ohi dituzte. Gehienak XIX. mendean erbestera aukera bila joan ziren inmigrante euskaldunen ondokoak badira ere, beste batzuk, 1936ko gerraren ostean, arrazoi politikoengatik atzerriratu zirenen ondokoak dira.

Munduan zehar, 21 herrialdetan 161 euskal etxe daude, horietako 106 Latinoamerikan daude (euskal etxe gehien dituen herrialdea Argentina da -76-, gero Uruguay dator, 10ekin eta ondoren Venezuela 6rekin), Ipar Amerikan 35 daude, Espainian 10, Europan 5 eta Australian 3.

3.5. Inkestak

Gizarteetan izaten diren aldaketak aztertzeko erabili ohi den eretako bat inkesten bidezkoa da. Inkestetan, gai zehatz buruzko galdera jakin batzuk egiten zaizkio, pertsona-kopuru esanguratsu bati. Euskadin estatistikak, inkestak eta azterketak egiteaz arduratzen den erakunde ofiziala EUSTAT da.

Hala ere, edozein motatako azterketak egin ohi dituzten beste erakunde batzuk (Sociometro Vasco, Euskobarometro...) eta Behatokiak (Inmigrazioarena, Gazteena edo berriena, Kulturarena -www.kultura.ejgv.euskadi.net-) ere badaude.

3.6. Identitatea

Hego Euskal Herrian, euskal identitate kultural eta politikoaren kontzientzia XIX. mendean garatu zen. Ordurako, euskal herritarrek Espainiatik kanpoko herrialde gisa ikusten zuten euren herrialdea, gutxienez, alderdi kulturei dagokionez. Baina, kultura desberdina izatearen kontzientzia hori eremu politikoan islatu zen, lehenbizi nazionalismoaren egintzaren bidez, baina, gerora, -eta gaur egunera arte- gehiengoak komunitate nazionalaren kontzientzia barneratu du.

XX. mendera arte itxaron beharko da nazio politikoaren kontzientzia kolektibora sortzeko. Nazionalismoaren eskutik, kontzientzia horrek, aldi berean, eragina izango du eliteen eta herriaren parte batean, gaur egun, nazionalismoaz gain ere, gehien jarrera den eta komunitate nazionalaren kontzientzia kolektiboa sortu arte.

Inkesten arabera, Euskadiko Erkidegoaren irudia, gaur egun, identitate sendoko herrialde anitzarena da. % 55 bakarrik euskaldunak edo espainolak baino lehen euskaldunak sentitzen dira (bakarrik espainolak edo euskaldunak baino lehen espainolak sentitzen direnak % 10-12 baino ez dira), eta neurri berean espainolak eta euskaldunak sentitzen direnak % 28 dira.

Nafarroari dagokionez, nafarrak nafar sentitzeaz gain, zabalagoa den beste identitate politiko batekin bateratzen dute identitate hori, espainolarekin edo euskaldunarekin, alegia. Beraz, euskaldunak, espainolak edo bakarrik nafarrak sentitzen dira. Biztanleen % 25 eta gazteen % 30 euskalduna eta nafarra sentitzen da.

Iparraldeari dagokionez, inkesten arabera, egoera nahikoa desberdina da. Biztanleen % 40ak nabarmenki eranstu du euskaldun-izaera bere identitatera (% 16 bakarrik euskaldunak eta % 24 euskaldun frantsesak sentitzen dira). % 52a batez ere frantsesa sentitzen da. Gazteen artean lehen taldekoak dira nagusi (% 48) beste taldearen aldean (% 46). Iparraldean euskal identitatea nazionala baino gehiago kulturala da.

Lehendakariaren harrera Boiseko (AEB) euskal komunitateko dantza-taldeari, Munduko Euskal Elkarten III. kongresuan (2003).



Baionako Euskal Museoren fatxada (Lapurdi).



4. ANTOLAKUNTZA POLITIKOA

Estatu demokratiko modernoan, sufragio unibertsalaren (adinez nagusiak diren herritar guztiek botoa emateko eskubidearen) bidez adierazitako herritarren borondatean oinarritzen da.

Hautatutako parlamentu-ordezkariek legeak idatzi eta onetsi egin ohi dituzte. Halaber, demokrazia partehartzaileari dagokion formulak ere badaude (erreferenduma, lege-proposamenak egiteko herri-ekimena...). Demokrazia, teorian, zenbait funtzionamendu- eta garapen-printzipiotan oinarritzen da.

Printzipiook honako hauek dira:

- **Askatasuna.** Banakakoa (ideologikoa, erlijioari dagokiona, bizilekuari dagokiona, lekuz aldatzekoa, adierazpen-askatasuna, informazio-askatasuna eta katedra-askatasuna) eta kolektiboa (parte-hartze politikoa).
- **Justizia.** Estatuko gainerako botereekiko independentea da eta gizabanakoak epaitegien defentsa eta babesa izateko duen eskubidea ziurtatzen du.
- **Berdintasuna.** Inor ezin da diskriminatu jaiotza-, arraza-, sexu-, erlijio- edo iritzi-arrazoengatik.
- **Aniztasun politikoa.** Batez ere alderdi politikoen bidez adierazitako ideologia desberdinen elkarbizitza bideratzen du.

Estatu demokratikoetan, Konstituzioa da legalitatearen adierazpen nagusia. Estatua hiru botere independentetan banatu ohi da:

- **Legegilea** (Legebiltzarra). Legeak egiten ditu eta Gobernua kontrolatzen du. Legebiltzarkideak herritarrek hautatzen dituzte hauteskundearen bidez (sufragio unibertsala).
- **Betearazlea** (Gobernua). Legebiltzarrean onetsitako legeak betearazten eta ezagutzera ematen ditu eta gobernatu egiten du.
- **Judiziala** (Epaitegiak). Legeak bete egiten direla bermatzeaz eta legeen araberako justizia administratzeaz arduratzen da. Gobernuaren ekintzen legetasuna ikuskatzen du.

Makila euskal botere politikoaren sinbolo tradizionala da. Halaber, merezimenduengatik nabarmentzen diren pertsonen, kasu honetan Bizkaiko ijitanoen komunitatearen presidenteari, esker ona adierazteko ere erabili ohi da.



Hiritarren eskaerak lege-proposamen izatera irits daitezke sinadurak batuz.



4.1. Euskadiko antolakuntza politikoa eta Autonomia Estatutua

Euskadik Espainiako Estatuaren barruan dituen eskumenak, 1979ko urrian, hautesleen % 54ak, onetsi zuen Autonomia Estatutuan zehazten dira.

“Euskal Herria, bere nazionalitatearen adierazgarri, eta bere burujabetasuna iristeko, Espainiako Estatuaren barruan Autonomia Erkidego gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da; eta Konstituzio eta Estatutu honetan adierazten direnak izango ditu oinarrizko instituzio-arautzat”. Horrelaxe hasten da, Euskadiko Autonomia Estatutuaren (Gernikako Estatutuaren) lehen atariko idazpurua.

Lege Organiko horren bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikoek osatzen dute eta Nafarroak ere, horrela erabakiz gero, parte izateko aukera du.

4.1.1. Estatutu berriaren proiektua

Gernikako Estatutua indarrean dago eta euskal sistema politiko osoa Estatutu horren arabera da. Gaur egun berrikusketa-prozesuan dago.

Izan ere, 2001–2005 legealdian, Legebiltzarrak, gehiengo osoz, 2004–12–30ean, Estatutu berriaren proiektua onartu zuen, Espainiako Gobernuarekin negozia zedin, harreman instituzionaletarako itun politiko berria formalizatzeko asmoz. Proiektu berrian, Espainiako Estuari nazio anitzeko Estatu bihurtzeko premia adierazten zitzaion, eredu federal/konfederala aldarrikatzen zen, estatutua betetzeko bermeen sistema ezartzen zen eta Euskal Herriari erabakitzeko gaitasun handiagoa ematen zitzaion. Madrilgo Diputatuen Kongresuak arbuatu egin zuen.

4.1.2. Zenbait berezitasun historiko

Egitura formala gainditzen duten aipatutako ohitura eta usadioek etengabe eragiten dute memoria historikoan.

Lehorreko portuen antzinako aduanen eta Europako herrialdeekin izandako komertzio libreko harremanen lekuko, Ingalaterrarekin sinatutako itsasoko gaiei buruzko itunak (Bizkaiko Batzar Nagusietan, 1353an edo Gipuzkoakoetan, 1482an) edota Bilboko Kotsulatua (1511) dira, eta nazioarteko bokazioa adierazten dute, bai alderdi ekonomikoei –herrialde oso esportatzailea– zein identitate politikoari dagokienez.

Halaber, Bizkaian, Gernikako Batzar Etxean eserlekua izateko, Merindadeen arabera ordezkaritza-antolaketa zegoen; Araban Koadrilen arabera antolatzen ziren eta Nafarroan, Bailaren arabera. Horrek eskualdeak, hau da, elkarrengandik hurbil dauden udalerriak biltzen dituzten berezko harreman-eremuak, bultzatzeko tradizioa adierazten du. Horren ondorioz, gaur egun, eskualdeak Batzar Nagusietarako hauteskundeetako barrutiak dira; Nafarroan, (Baztanen edo Ultzaman), Kontzeju txikiak biltzen dituzten haranen edo udal handien arabera udalerrien elkarteak mantentzen da.

Gasteizen dauden Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza, Erkidegoko erakunderik garrantzitsuenak dira eta Autonomia Estatutuan oinarritzen dira. Hiru lurralde historikoetan jarduten dute: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Eusko Jaurlaritzako Osoko Bilkuren Aretoa.



Denen auziei buruzko erabakiak hartzeko biltzarrak jarraitutasuna dute gaur egun. Adibidez, Berriatuan eta Zerainen herritarrek batzarra egin ohi dute hauteskunde munizipaletara aurkeztuko diren pertsonak hautatzeko; bidegintzako edo auzokoren baten teilatua konpontzeko auzolaneko jarduerak egin ohi dira; kooperatibek eta bazkide-ekonomiak Euskal Herrian garapen berezia izan dute.

Pertsonen oinarrizko eskubideekiko errespetua (tratu txarrik ez jasateari dagokiona), Foruetan ezarritako habeas corpus-ean adierazten zen. Halaber, ohitura izan da, karguak hautatzeko orduan zozketa egitea edo auzokoen artean txandakatzea, edota agintariak nahitaez zegozkien jurisdikzioetan bizi behar izatea, ikusgai eta kontrolagarri egon zitezten. Gaur egun, idealizatzeko asmorik gabe, agintariei hurbiltasuna eta eskuragarritasuna eskatzen zaizkie. Eta agintari gorenei, ordea, "foru-baimenean" adierazten zen konpromisoa eta errespetua eskatzen zitzaizkien. Foru-baimenaren arabera, Batzar Nagusiek edo Nafarroako Gorteek, beharrezko obediencia zor zien erregearen erabakiei, baina foru-legeren bat hausten bazuten, erabakiok ez zituzten betetzen eta erabakia atzera botatzen zen.


Espiritu demokratiko hori ikusita, ez zaigu arraroa egin behar, Euskal Herrian, agintarien gehiegikerien aurkako hainbat matxinada izatea (matxinadak, XVII. mendean eta, batez ere, XVIII. mendean piztutako gizarte-iraultzak ziren).

Demokrazia-aldiko hiru lehendakariak, 1936an osatu zen lehen Eusko Jaurlaritzaren 70. urteurrena gogoratzeko ekitaldian.



4.2. Gobernu-organoen oinarrizko egitura

Gobernu-organoen oinarrizko egitura erkidego, lurralde eta udaletako eskalaren araberakoa da.



4.2.1. Euskadiko Autonomia Erkidegoa

Autonomia Erkidegoko instituzio nagusiak **Legebiltzarra** eta **Eusko Jaurlaritza** dira; biek Gasteizen dute egoitza. Autonomia Estatutuan oinarritzen dira. Instituzio horiek hiru Lurralde Historikoei (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari) dagozkie.

Halaber, Euskadi osoan du eskuduntza duen **Auzitegi Nagusia** dago. Horrez gain, **Estatuko Gobernuaren Ordezkaritza** dago Euskadin.

Eusko Legebiltzarra

Eusko Legebiltzarra herri-ordezkaritzaren organo gorena da Euskadin. Legebiltzarraren eginkizun nagusiak honako hauek dira: legeak egitea, Eusko Jaurlaritzaren jarduerak bultzatzea eta kontrolatzea eta Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak onartzea.

Euskadiko ganbera legegilea 75 legebiltzarkidez osatuta dago eta agintaldia lau urtekoa da. Lurralde bakoitzari 25 ordezkarri edo eserleku dagozkie, lurralde bakoitzeko biztanleen kopurua dena delakoa izanda ere. Erakunde honetan Aurrekontu Orokorren legeak ezartzen dira eta aurrekontuak onartu egiten dira.

Hauteskunde-kanpainari dagokionez, 15 egun irauten du eta komunikabideetako doako saioak legearen arabera araututa daude.

Saiok alderdi politiko bakoitzak Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan lortu dituen botoen arabera esleitzen dira. Kandidatura jakin batek, eserlekuak esleitzen direnean aintzakotzat har dezaten, gutxienez, dagokion barrutian eman diren botoen % 5 lortu beharko du.

Eusko Jaurlaritza

Lehendakaria legebiltzarkideen gehiengoak hautatzen du. Lehendakaria Eusko Jaurlaritzaren burua izateaz gain, herrialdearen aitzindari eta ordezkari nagusia da, eta jaurlaritzako sailak (Ogasuna, Kultura...) kudeatzen dituzten sailburuak (ministroen balioakideak) izendatzen ditu. Gobernua legebiltzarraren gehiengoa lortu duen alderdi bakarrarena zein koalizioakoa izan daiteke.

4.2.2. Lurraldeak eta toki-eremuak

Lurralde Historikoen Legeak probintziako organoen eta erakunde autonomikoen arteko harremanak arautzen ditu. Azken lege horrek eta Autonomia Estatutuak, konfederazio-eredua ezartzen dute Euskadiko Lurraldeen barruan. Eredu horren printzipioak hiru lurraldeen arteko errespetua eta berdintasuna dira.

Batzar Nagusiak eta Diputazioak

Euskadiko lurralde bakoitzak bere instituzioak ditu, hots: lurraldeko legebiltzarrak (Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak) eta lurraldeko gobernua (Diputazioa). Erakundeok eskumen zabal samarrak dituzte, besteak beste, zuzeneko zein zeharkako zergak biltzen dituzte.

Batzar Nagusietan 51 batzarkide biltzen dira. Sufragio unibertsal bidez hautatzen dira, eskualdeetako barruti geografikoen arabera. Batzar Nagusietarako hauteskundeak udal-hauteskundeekin batera egin ohi dira; beraz, hautestontzietan bi boto-txartel utzi behar dira: bata zinegotziak hautatzeko eta bestea batzarkideak hautatzeko. Batzar Nagusiek foru-arauak eta -erregelamenduak onartzeko eskumena dute. Batzar Nagusietan aurrekontua onartzen da eta dagokion Lurralde Historikoan aginduko duen Gobernua (Aldundia) hautatzen da.

Lurralde bakoitzeko gobernua Foru-Aldundia da. Gobernuburua Diputatu Nagusia da, eta diputatu-talde baten laguntzaz gobernatzen du, beti ere, dagokion lurraldearen mugen barruan.

Diputazioek, berriz, eginkizun betearazlea dute, hau da, bakoitzak dagokion Lurralde Historikoa gobernatzen du, eskumenak dituzten alderdietan.

Kontzertu Ekonomikoa

Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko zerga-harremanak Kontzertu Ekonomikoaren bidez erregulatzen dira.

Kontzertuak autonomia osoa ematen dio euskal Administrazio Publikoari eta Autonomia Estatutuaren arabera Euskadiri dagozkion eskumenak (eginkizunak eta zerbitzuak) erabiltzea bideratzen du.

Kontzertu Ekonomikoa foru-sistemaren ondoriozko sistema da. XIX. mendearen bigarren zatian ezarri zen (1841ean Nafarroan eta 1878an Euskadin) eta 1978an berretsi egin zen, Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriaren bidez.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatuaren III. Tituluan onesten denaren arabera, Euskadik berariazko Autonomia Ogasuna du, dagozkion eskumenak erabiltzeko eta garatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia Lakuan, Gasteizen.



Zergetan eta Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko zerga-harremanekin zerikusia duen guztia Kontzertu Ekonomikoaren bidez erregulatzen da. Kontzertuak autonomia fiskal eta ekonomiko osoa ematen dio Euskadiko Herri Administrazioari.

Eusko Jaurlaritzako eta Gobernu Zentraleko ordezkariak Hitzarmen Ekonomikoa sinatzen (2007).



Hona hemen Euskadin indarrean dauden zerga-motak:

- **Zuzeneko zergak.** Pertsonen diru-sarrerren gainekoak dira. Zerga gehikorrek dira (gehien daukanak ehuneko handiagoa ordaintzen du) eta zenbait alderdiren gainekoak dira. Alderdiok honako hauek dira:
 - Soldatak: Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren bidez (PFEZ).
 - Enpresen irabaziak: Sozietate-Zergaren bidez.
 - Ondarea: etxebizitzak eta akzioak.
 - Oinordetzak: herentziak eta dohaintzak.
- **Zeharkako zergak.** Kontsumoaren, salmenten eta kanpoko merkataritzaren gainekoak dira.

BEZ-a eta Zerga Bereziak koordinatuta daude, Europar batasuneko herrialde guztientzat.

Biltzen duen diru-kopurua edozein batekoa izanda ere -euskal ekonomia ondo joatearen edo ez joatearen arriskua bere gain hartuta; adibidez 80ko hamarkadan ez zen positiboa izan-, Euskadik Kupo zehatz bat eman behar dio Estatuako Gobernuari, karga orokorre aurre egiteko, zeren karga orokorren eskumena (nazioarteko harremanak, defentsa, aduanak, garraioak orokorrean...) Estatuarena baita eta ez baitaude Euskadira transferituta.

1981az geroztik kalkulatu denez, Estatuaren Aurrekontu orokorren % 6,24 da.

Kupoa kendu ondoren, gelditzen diren diru-sarrerak Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean banatzen dira, % 70 eta % 30eko proportzioan. Foru Aldundiek, jasotzen duten diruaren % 50 Udalak finantzatzeko erabili ohi dute.


Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua 2007rako 8.740 milioi eurokoa izan zen.

Datozen urteetan, Eusko Jaurlaritzaren inbertsioetako askoren helburua berrikuntza sustatzea da, hazkuntza ekonomikoaren oinarri gisa.

SPRI erakunde publikoak bultzatutako enpresen mintegia, Laudioko zeramika-industria zaharrean.



Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua 2007rako



Nafarroak antzeko erregimena du, Hitzarmen-erregimena deritzona, alegia, eta kalkulatzeko sistema egonkorra du.

Udalak

Udalak, Udalerrri bakoitzari dagozkion eskumenez arduratzen diren organoak dira.

Alkatetzak eta zinegotzigoek osatzen duten Udalaren eginkizun nagusia, udal-zerbitzuak (besteak beste, garbiketa, garraioak, suhiltzaileak, antolamendua...) antolatzea da. Zerbitzuok finantzatzeko, tasak eta zergak kobratzen ditu eta instituzio orokorragoen ekarpenak hartzen ditu. Udal bakoitzak bere baliabideak kudeatzen ditu.

EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea da.

4.3. Herritarren ordezkaritza Euskadin: alderdi politikoak

Alderdi politikoak herritarrek politikan parte hartzeko duten funtsezko baliabidea dira. Alderdi politikoak ordezkapen politikoaz arduratzen dira; ideologia jakin bat defendatzen dute eta programa zehatz bat dute, botere politikoa lortzen ahalegintzeko eta euren proposamenak Gobernuan gauzatzeko.

4.3.1. Alderdi politikoaren eginkizunak

- Euren programa politikoa egiteko iritziak eta interesak biltzea.
- Boterean aritzeko pertsona egokienak hautatzea.
- Gobernuaren lana baieztatzea edo kritikatzeko, boterean edo oposizioan dagoen arabera.
- Eginkizuna betetzeko baliabide ekonomikoak lortzea.

Alderdi politikoaren barne-funtzionamenduak eta antolaketak demokratikoak izan behar dute.



4.3.2. Partaidetza eta hauteskunde-prozesuak

Gizarte demokratikoetan, bi deialdi-mota daude: hauteskundeak eta erreferendumak.

• **Hauteskundeak:** lau urtetik behi egin ohi dira, gobernuko karguak hautatzeko. Euskadin, egun desberdinetan egiten dira legegintzarako hauteskundeak (Estatuko senatariak eta diputatuak hautatzeko), hauteskunde autonomikoak (Legebiltzarkideak hautatzeko), udaletarako eta lurraldeetarako hauteskundeak (bi boto-txartel erabiltzen dira, bata zinegotziak hautatzeko eta bestea batzarkideak hautatzeko) eta Europarako hauteskundeak (Europako Parlamenturako diputatuak hautatzeko).

• **Erreferendumak:** auzi jakin bati buruzko erabakia hartzeko antolatzen dira. Gobernu jardura jakin batzuei edo egoera politiko berezietan buruzko galdera zehatzak egin ohi dira. Adibidez, Espainiako estatuan zenbait erreferendum egin dira: Erreforma Politikoaren Legeari buruzkoa, Konstituzioari buruzkoa, Autonomia Estatutuari buruzkoa, OTAN-i buruzkoa eta Europar Batasunaren Itunari buruzkoa.

Hortaz aparte, beste pertsona batzuekin antolatzeko, adierazteko eta manifestatzeko eskubideak partaidetza-baliabide onartuak eta erabiliak dira.

Euskal tradizio demokratikoa, botoa emateko eskubide unibertsalarekin eta herritarren parte-hartze politikoarekin osatzen da gaur.

Gernikako Juntetxea (Bizkaia) eta Gipuzkoako Batzar Nagusien saioa.



Ekitaldi politikoa Aberri Egunean, Bilbon (2005).

4.3.3. Gaur egungo alderdi politikoak eta hauteskundeetan lortu dituzten emaitzak

Euskadin ez daude, beste herrialde askotan bezala, bi alderdi garrantzitsu soilik. Legebiltzarrean ordezkariak dituzten zazpi alderdi edo koalizio daude: EAJ, PSE/EE, PP, Batasuna (gaur egun legez kanpo utzi dute, Alderdi Politikoen lege eztabaidatuaren arabera, eta 2005eko hauteskundeetan zegozkion botoak EHAK-ra joan dira) EA, Ezker Batua eta Aralar.

Batzuk euskal nazionalistak dira (Eusko Alderdi Jeltzalea; Batasuna; Eusko Alkartasuna eta Aralar), eta beste batzuk (gainerakoak) ez dira nazionalistak, "euskal arazoari" buruzko jarrera desberdinak badituzte ere. Irtenbide desberdinak planteatzen dituzte Euskadiren eta Espainiaren arteko harreman-ereduari dagokienez (autonomia, federazioa, konfederazioa edo independentzia) edota indarkeria politikoa deuseztatzeko bideei dagokienez ere. Halaber, batzuk ezkerrekoak dira (PSE/EE, Batasuna, Ezker Batua eta Aralar), eta, gainerakoak ez. 2001-2005 legealdian EAJ-k, EA-k eta EB-k osatutako koalizioak gobernu eratu zuen, hauteskundeetan lortu zituzten 36 eserlekuari esker (guztira 75 eserleku dira), Legebiltzarren gehiengo osoa lortu gabe. Oposizioa ere ez zen homogenea. 2005ean hasitako legealdian, aukera politikoak are anitzagoak ziren, zeren gobernuaren kontrolpean 32 eserleku izanik, Aralarren, PSE-EEren edo EHAKen laguntza puntualak bilatu behar baitituzte.

1980an, 2001eko maiatzean eta 2005eko apirilean Euskadin egindako Legebiltzarrerako hauteskundeen ondoriozko emaitzak

ALDERDI POLITIKOAK	1980		2001		2005			
	% Botoak	Eserlekuak	% Botoak	Eserlekuak	Botoak	% Botoak	Eserlekuak	Botoak
Euzko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna (EAJ-PNV + EA)	38	25	42,72	33	604.222	38,6	29	463.873
Partido Popularra (PP) (+UCD 1980an) (+UA en 2001ean)	13,3	8	23,12	19	326.933	17,3	15	208.795
Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSE-EE)	14,2	9	17,90	13	253.195	22,6	18	272.429
EHAK (Lehen Batasuna)	16,6	11	10,12	7	143.139	12,5	9	150.188
Ezker Batua-Izquierda Unida (EB) (PCE 1980an)	4	1	5,58	3	78.862	5,4	3	64.931
Euskadiko Ezquerria (nacionalista 1980an)	9,8	6	-	-	-	-	-	-
Aralar	-	-	-	-	-	2,33	1	28.001

2005eko errolda: 1.761.235
Boto-emaileak-1.214.604
Abstentzioa: 31,05%
Zuriak eta nuluak: 12.981

Inkesten arabera, nazionalista sentitzen ez direnen kopurua (% 50), nazionalistak sentitzen direnena (% 45) baino handiagoa izan arren, alderdi nazionalistek boto gehiago izaten dituzte. 2005ean, Autonomia Erkidegoko hauteskundeetako emaitzak honako hauek izan ziren: nazionalistak: % 53,5; PP+PSE/EE: % 40; eta Ezker batua: % 5,4. Inkesta berberen arabera, % 31k independentzia nahi du; % 33ak federalismoa; eta % 33a autonomiaren aldekoa da. Hortaz, biztanleen 2/3 aldaketa sakonaren aldekoak dira, eta gehiengoaren iritzia autodeterminazioaren edo aske erabakitzearen aldekoa da.

Azken mende-laurdenean lehendakariak nazionalistak izan dira: Carlos Garaikoetxea, Jose Antonio Ardanza eta Juan Jose Ibarretxe.

Euskadin hauteskunde hauek egiten dira: udaletakoak eta foralak, autonomi erkidegokoak, orokorrak (Gobernu Zentralerako) eta Europakoak.

Eusko Legebiltzarra. Gasteiz.



4.4. Nafarroako eta Iparraldeko erakundeak

Nafarroa

Era berean, onetsita ditu Eskubide Historikoak, baina, Erresumaren buru izan zenez, egitura oso desberdina da.

Nafarroaren autogobernuaren azterketa historikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren web-orrian honako aldi hauek bereizten dira:

1) IX. mendetik 1515era, Nafarroa Erresuma independentea izan zen. Garai hartako instituzioak honako hauek ziren: Erregea, Gorteak, Errege Kontseilua -justizia-administrazio goren-, Gorte Nagusia -auzitegi teknikoak- eta Konptu-Ganbara -Ogasuna eta Ondarea-.

2) 1515etik 1839ra, Nafarroak -gaztelarren konkistaren ondoren- Erresuma izaten jarraitu zuen eta berriazko instituzioak mantendu egin zituen, baina Espainiako Koroari atxikitako Erresuma gisa. Nafarroako erregea Espainiakoa zen eta haren ordezkaria Erregeordea zen. Hala ere, Albret-en ondokoak, formalki, Nafarroako Koroa mantendu zuten 1789ra arte Nafarroa Beherean.

Erregeordeak, Nafarroako Gorte Nagusietarako deialdia egiten zuen. Gorte Nagusiek garai hartan, eskumen garrantzitsuak zituzten, besteak beste, legeak ezartzea, zergak antolatzea. Botere betearazlea Errege Kontseiluaren (Gaztelako erregeak izendatutakoa) eta Erresumako Diputazioaren esku zegoen. Erresumako Diputazioa 1576an sortu zen, gobernu-organo eta Gorteen ordezkartzarako organo iraunkor gisa.

3) 1841etik 1982ra, Nafarroa probintzia espainol bihurtu zen, eta eskumen betearazlea eta judiziala galdu egin zituen. Erregeordea desagertu egin zen eta, haren ordezkari, Kapitain Jenerala eta Gobernadore Zibila ezarri zituzten. Soldaduska nahitaezko bihurtu zen. Aduana Pirinioetan ezarri zen behin betiko. Diputazio probintzialak autonomia administratiboa eta fiskala baino ez zituen eta Estatuaren diru-kutxarako kontribuzioa ordaindu behar zuen.

4) 1982az geroztik, eta 1978ko Konstituzioaren eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoaren arabera, Nafarroa ahalmen fiskala duen Foru Komunitate bihurtu da. Instituzio ordezkatzailleak honako hauek dira: Presidentea, Gobernu eta Nafarroako Parlamentua. Zerga-erregimena Hitzarmen Ekonomikoaren arabera da.

Huteskundeetako emaitzak. Nafarroako Parlamentua. 2007

ALDERDI POLITIKOAK	Botoak	% Botoak	Eserluak
Unión del Pueblo navarro (UPN). PPri atxikitua (eskuin kontserbadorea)	139.122	42,2	22
Nafarroa Bai (Aralar, PNV, EA eta Batzarre alderdien koalizioa)	77.893	23,6	12
Nafarroako Alderdi Sozialista (PSN-PSOE)	74.157	22,5	12
CDN	14.418	4,4	2
Nafarroako Ezker Batua (IUN/NEB)	14.337	4,3	2

Abstentzioa % 26,2koa izan zen. Batasunari (ilegalizatuari) legezko boto nuluak % 5,5 izan ziren. UPN-CDNek gobernatzen du gutxiengoan, sozialistek (PSNk) nazionalistekin (Nafarroa Bai-rekin) eta Ezker Batuarekin hitzarmena ez sinatzea erabaki ondoren

Iparraldea

Iparraldean, prozesua berezia da. 1152an, Akitaniako Leonor, gerora Ingalaterrako errege izango zen Enrike Plantagenet-ekin ezkondu zen, eta, ondorioz, ingelesak nagusi izan ziren hiru mendean Pirinioetako euskal lurraldeen parte batean. Nafarroa Beherea Nafarroako Erresuman sartu zen XIII. mendean, baina Lapurdi eta Zuberoa ingelesen menpe egon ziren XV. mendean erdialdera arte eta harrezkero, Frantziako Koroara pasatu ziren. Nafarroa Behereak, ordea, Hegoaldeko Nafarroatik kanporatu zuten Nafarroako Erresumaren egoitza izaten jarraitu zuen.

Iparraldean ere instituzio bereziak zituzten: Lapurdiko Biltzarrak auzi orokorrak eta zergei eta zerbitzuei zegozkien auziez erabakitze eskumenak zituen, baina ez zuen Hegoaldeko Batzar Nagusien adinako ahalmen erabakigarria. Nafarroa Beherean, Estatu Jeneralek ("Nafarroako Estatuak") legeak egiten jarraitu zuten 1748ra arte. Botere judiziala 1624an galdu zuten. Zuberoako Silbietak 1730ean galdu zituen elizbarrutien biltzarraren eta eskumen fiskalak.

1789ko Iraultzaren ostean, Iparraldeak, Biarnorekin batera, Behe Pirinioetako Departamentua osatu zuen, eta, horrela, zentralismo jakobinoa hasi zen. Iraultzan parte hartu zuten Garat anaiak ezin izan zuten erabaki hori saihestu. XIX. mendean, eliteak eta herri xumea Estatu Frantsesaren dinamikan integratzeko prozesu sendoa izan zen.

Azken urteotako diagnostikoak ezin du kezkarriagoa izan: lurraldeak desagaturatuta daude barnealdearen kalterako; ekonomia eta eredia krisian daude; gazte askok Frantziako beste lurralde batzuetara emigratzen dute eta, aldi berean, inmigrazioa handia dago kostalderantz, eta, ondorioz, biztanleen % 55 kanpoan jaiotakoa da; euskal kultura ahula da eta euskarak atzerantz egin du; eta ez dago instituziorik.

Legebiltzarra (goian) eta Nafarroako Gobernu (behean). Iruñea.



Hala ere, gaur egun, Iparraldean, zenbait alderdi berpiztu egin dira. 1994an Garapen Kontseilua –gizarte–agenteak biltzen ditu– eta 1995ean Hautetsien Kontseilua sortu ziren, adostasun instituzionalak, ekonomikoak eta indar bizenak gauzatzeko aholkularitza–erakunde gisa. Prozesu horien ondorioz, 1996an, “Schéma d’Amenagement eta De ´veloppement du Pays Basque deritzona –Lurralde Antolamenduaren Eskema– sortu zen Iparralde osoa leheneratzeko proiektu gisa. Proiektu hori zehazten duten zenbait programa gauzatu dira, besteak beste, 2000ko Hitzarmen Berezia.

Hala ere, lau auzi garrantzitsutan ez dago adostasunik, lau auziok honako hauek dira: Iparraldearentzako Departamentu bakarra, Unibertsitate teknologikoa, euskararen koofizialtasuna eta Laborantza Ganbara (Biarnoren mendekoa ez dena). Auzi horietan, bat datoz indar ekonomikoak, euskaltzaleak, sozialistak eta nazionalistak.

Mugakideen arteko kooperazioa Iparraldeak eta Hegoaldeak duten beste erronketako bat da. Badira zenbait aurrerakin, besteak beste, Baiona–Donostia Eurohiria edo mugakideak diren herriek osatutako partzuergoa, Euskal herria deritzon Euroherrialdearen premia aldarrikatzen dituztenak, batez ere kulturari, harremani eta ekonomiari dagozkien auzietarako.

2007ko Legegintzarako Hauteskundeak Iparraldean

ALDERDI POLITIKOAK	1. Itzulua %	2. Itzulua %
UMP	43,8	51,9
UDF–MDémocrate	13,2	8,5
PS	21,5	39,4
Euskal Herria Bai (AB, EA eta Batasuna)	8,1	
Gainerakoak: PCF, LCR, VERTS, CPN, FN,...	11,3	
GUZTIRA	100	100
Abstentzioa	37,6	38,9

Iturria: Berria 2007–06–12/19

Hauteskunderi dagokienez, Iparraldean, eskuin kontserbadorea mantendu egin da, sozialdemokratak igo egin dira, nazionalismoa hazi egin da, astiro bada ere, eta ohiko banaketa gainditzen ari dira Abertzaleen Batasunak (ABk) 2002an lortu zuen pisuari esker. Dena den, euskalzateasun kulturalak gora egin du, alderdi politikoez aparte.

Sarako (Lapurdi) udaletxea.



5. EKONOMIA

Herrialde jakin baten egoera ekonomikoa Barne Produktu Gordinaren (BPG-ren) aldaketan arabera neurtzen da; eta berdintasun-maila neurtzeko, gizarte-sektoreen arteko banaketaren oreka kontuan hartzen da.

5.1. Produkzioa eta banaketa: zenbait nozio

Produkzioa pertsona, enpresa edo herrialde jakin baten jarduera ekonomikoaren emaitza da. Produktua gordina da, bestelako kontzepturik kontuan hartzen ez denean; eta garbia da, produktua egiteko ordaindu behar diren gastuak kentzen zaizkionean. BPGD (Barne Produktu Gordina), denbora-aldi zehatz batean herrialde jakin batek lortzen dituen diru-sarrerak batuta kalkulatzen da.

Per capita errenta herrialde jakin bateko pertsona bakoitzak sortzen duen errentaren batez bestekoa da. Bizitza-mailaren adierazle orokorra da. Kalkulatzeko, ekonomiaren guztizko errenta, herrialdeko biztanleen kopuruaz zatitu behar da. Prezioa merkantzia edo zerbitzu jakin baten truke emandako diru-kopurua bada, prezioen gorakada edo beherakada, Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI-aren) edo bizitzaren kostuaren bidez neurtzen da.

Sektore publikoaren eginkizunak

Herri-administrazioaren eta sektore publikoaren sistema erabakigarria da ekonomiari dagokionez: zergak kobratzen ditu eta inbertsioak eta gastuak egiten ditu, besteak beste, errepideak, aireportuak, ikastetxeak, osasun-zerbitzuak eta segurtasuna. Lege eta dekretuen bidez, ekonomiaren baldintza orokorrak arautzen ditu, eta oinarrizko ondasun eta merkatuei dagozkien jarduerak eta prezioak zaintzen ditu.

Sektore publikoaren oinarrizko eginkizun teorikoak honako hauek dira:

- Baliabideak eraginkorki eta demokraziaren arabera erabiltzea.
- Egonkortasun ekonomikoa lortzea.
- Errenta banatzea.
- Garapen ekonomikoaz arduratzea.

Euskadiko ekonomia nabarmen hobetu da azken hamarkadan. 1990ean, Europar Batasuneko batez bestearekiko per capita errenta % 89,62koa zen eta 2006an % 125ekoa zen. Hala ere gastu sozial publikoa Europako batez bestekoa baino txikiagoa da.

Laser bidezko ebaketa Robotiker enpresan a-goian-, Tubos Reunidos enpresa -erdian- eta Bodegas Ysios. Laguardia (Araba) -behean-.



BECeKO (Bilbo Exhibition Centre-ko) azoka-barrutirako sarrera. Barakaldo (Bizkaia).

5.2. Euskadiko ekonomia

Euskal ekonomia, lehen, nekazaritzan, abeltzaintzan, arrantzan, artisautzan eta merkataritzan oinarritzen zen, baina, gaur egun, industrian eta zerbitzuetan oinarritzen da.

XIX. mendearen azken herenean, Hegoaldean industrializazioa garatu zen. Euskadin, ohiko industria-sektoreak, besteak beste, honako hauek izan dira: siderurgia, transformatuak, ontzigintza, ontzi-enpresak, ekipo-ondasunak, makina-erreminta, industria kimikoa, paper-fabrikak, automobilgintzaren industria osagarria eta kautxua. Sektoreon banaketa geografikoa, astiro-astiro, orekatu egin da. Industrializazioa, XIX. mendean, Bilboko ibaiaren ezker aldetik Bizkaia osora, eta, batez ere, Gipuzkoako eskualdeetara hedatu zen. Araban eta Nafarroan aldaketa handia XX. mendeko 50-60ko hamarkadetan izan zen.

Beraz, Euskadin, gehienbat Araban nekazaritza errentagarria garatu da (mahastiak eta patatak batez ere).

Larratze-abeltzaintzaren ordez, baserriak ezarri dira, abeltzaintza erabat desagertu ez bada ere. Arrantza-harrapaketen kopurua txikiagotu eta mugatu egin zen jurisdikziopeko uren ondorioz (220 mila) eta arrantza-baliabideak agortzeak eragina izan du arrantzaren errentagarritasunean eta ontzi-kopuruak murriztean.

70ko hamarkadaren amaierako krisiak eta irekitasun ekonomikoak kalte handia eragin zuten euskal ekonomian, eta, ondorioz, enpresa ugari eta ia sektore osoek (siderurgia handiak, metalgintzako eta ekipo-ondasunetako enpresek, ontzigintzak...) itxi egin behar izan zuten.

Langabezia Europar Batasunekoaren bikoitza baino handiagoa zen. Gaur egun ere, krisiaren ondorioak ikus daitezke zenbait aldetan. Euskadik BPG-aren % 7,5a zuen 60ko hamarkadaren amaieran, eta, 1990ean, puntu eta erdi baino gehiago jaitsi zen.

1993az geroztik krisia murrizten hasi zen eta ekonomia anitzago bihurtu zen, kanpora zabaldu zen eta ez zen lehengoa bezain espezializatua eta indartsua.

1975ean, BPG-a 8.030 milioi eurokoa zen, gehiena, biztanleria aktiboaren % 50ari lana ematen zion industrietan.

Hogeita hamar urte geroago, biztanle-kopurua antzekoa izanik, Espainiako biztanleen % 4,8, alegia, BPG-a, 2005ean, 57.548 milioi eurokoa zen prezio arruntetan, batez ere, zerbitzuen sektorea, biztanleria aktiboaren % 60ari baino gehiagori lana ematen diona, hazi delako, baina, baita industria-sektorea mantendu egin delako ere.

Izan ere, Balio Erantsi Gordinari (BPGa ken produktuen gaineko zergak) dagozkion 51.340,7 roetatik sektore industrialarena % 29,27 zen, zerbitzuen % 60,8, eraikuntzarena % 8,9 eta sektore lehen sektorearena % 1. milioi eGaur egun, euskal ekonomiak hamarren batzuk berreskuratu ditu, eta Espainiako BPG-aren % 6,4koa da. Batez besteko urteko inflazio-tasa, Espainian bezala, % 3-4 ingurukoa da.

Lurraldean arabera, Euskadiren BPG-arekiko ekarpena, ehuneko-tan, honako hau izan zen: Bizkaiak: % 50,4, Gipuzkoak: % 32,6, eta Arabak: % 16,7.

Biztanle okupatuak Euskadin, 1930ean eta 2006an, sektoreen arabera.

	1930	2006
Nekazaritza eta arrantza	25%	1%
Industria eta eraikuntza	42%	34%
Zerbitzuak	33%	64,6%

Iturria: González Portilla 1994 eta Eustat 2007

70 hamarkadako krisiaren ondorioz hainbat enpresa eta lanpostu galdu ziren.

Altos Hornos de Vizcaya enpresako labe garai baten hondarrak. Gaur ondare babestua da. Sestao (Bizkaia)



5.2.1. BPG-aren bilakaera Euskadin

Espainiako Estatuko guztizkoaren arabera, Euskadiko ekonomiari dagozkion datuak honako hauek dira:

- Biztanleak: % 4,8.
- Barne Produktu Gordina (BPG): % 6,2.
- Esportazioa: % 8,27.
- Inportazioa: % 5,67.
- Industria-produkzioaren % 8,9.

Euskadiko ekonomiak hobera egin du nabarmenki azken hamarkadan testuinguru europarrean, zeren, per capita errentari dagokionez, 1990ean Europar Batasunaren batez bestekoaren % 89,62 izatetik, 2006an, % 125ekoa izatera pasatu baita –Europako batez bestekoa baino % 25 handiagoa–, 27 herrialdeko EBean.

Euskal ekonomiaren ezaugarri sendoenetako bat industria da, oraindik ere, zeren % 33ko balio erantsiaren ekarpena baita. EBean, ordea, % 25 ingurukoa da. Gaur egun lehiakorra da eta gero eta partaidetza irabazten ari da kanpoko merkatuetan, batez ere, Europakoetan.

2006an, 186.306 establezimendu zeuden, eta bertan 880.000 pertsona ari ziren lanean. Establezimendu horietako 14.768 industrialak ziren eta 222.392 langile ari ziren. Lanpostu gehien sortu zituzten azpisektoreak honako hauek izan ziren: metalurgia, garraio-makinak, material elektrikoa, kautxua eta plastikoa. Horrez gain, enpresei zerbitzuak emateko 35.000 establezimendu zeuden eta beste 12.700 eraikuntzakoak.

Euskadiren ehunekoak Estatuan, sektore industrialen arabera, honako hauek dira: % 90 altzairu bereziak; % 80 makina-erreminta; % 50 ekipamendu-ondasunak; % 40 altzairu-produkzioa; % 40 etxetresna elektrikoak; % 33 kautxua eta plastikoa; % 27 itsasontzigitza; % 27 papera eta kartoia; % 25 automobilgintzako osagaiak; % 25 aeronautika; % 12 elektronika informatika eta telekomunikazioa...

Hala ere, euskal ekonomian, hirugarren sektorea (zerbitzuen sektorea) areagotzen ari da etengabe, ekonomia aurreratuetan gertatu denaren antzera. Euskal ekonomian finantza-sektoreak izan ohi duen indarrak gain (Bilboko Burtsa eta bankuen tradizioa –BBVA, Aurrezki Kutxak, Banco Guipuzcoano...–), aipagarriak dira, halaber, enpresei eskainitako zerbitzuen aurrerakuntza azkarra, merkataritzaren modernizazioa edo turismoaren bultzada berria ere.

Azpisektore horretan, Bilboko Nazioarteko Azoka –1932an sortutakoa eta gaur egun Bilbo Exhibition Center (BEC) izenarekin Barakaldon kokatuta dagoena–, garrantzitsua da harreman komertzialak sustatzeko eta produktu eta zerbitzu berriak ezagutzera emateko.

Kanpoko merkataritzari dagokionez, saldoa positiboa da, aurreko hamarkadakoa baino txikiagoa bada ere. 2006an –behin-behineko datuak– esportazioen diru-kopurua 16.513 milioi eurokoa zen eta inportazioena 17.156 milioi eurokoa. Esportazio nagusiak ekipamendu- eta garraio-ondasunak, metalurgia eta manufakturak, petrolioaren deribatutakoak, plastikoa eta kautxua izan ziren. Inportazioei dagokienez, metalurgia, produktuak eta energia-mineralak, makinak, material elektrikoa eta garraio-materialak.


Esportazio gehienak (2/3) 15 herrialdeko Europara doaz eta, horren ondoren, AEB-etara eta Latinoamerikara. Esportazioetan Gipuzkoa nabarmentzen da.

Pasaiako portua (Gipuzkoa).



5.2.2. Ongizatearen bilakaera eta errentaren banaketa

BPG PER CAPITA EUSKADI-ESPAINA (100)-UE (100)



Alderdi positiboak eta negatiboak daude.

Alderdi positiboari dagokionez, Euskadi, Estatuko lehenbiziko postuan dago, etxebizitzako errenta erabilgarri garbian. Biztanle bakoitzeko errenta orokorrean eta ongizate-indizean zenbait alderdi; kontuan hartuta; adibidez, errenta, osasuna edota azpiegiturak, 3. erkidegoa da, Nafarroa eta Madrilen ostean. BPG-aren bolumenari dagokionez, Euskadi bosgarren erkidegoa da, Katalunia, Madril, Andaluzia eta Valentziako Erkidegoaren atzetik.

Osasuna eta hezkuntza eskubide unibertsalak dira euskal biztanle guzientzat.

Basurtoko Ospitalea. Bilbo.



Enpleguaren hazkuntza ere handia izan da. Populazio aktiboari buruzko inkestaren arabera, langabezian dauden pertsona erregistratuak eta erregistratu gabe egon arren, lanaren bila dabiltzanak eta inmigranteak kontuan hartuta, 2007ko lehen hiruhilabetekoan, langabeziaren tasa % 6,6koa zen (69.900 pertsona). Espainian tasa hori INEren arabera, % 8,4koa da. Eustataren Jardueraren arabera, JABaren, arabera, urte horretan langabeziaren tasa 4,1ekoa izan zen.

Horrez gain, pertsona okupatu bakoitzaren produktibitateari dagokionez (gutzizko produkzioa zati pertsona okupatuen kopurua), Europako batez bestekoa (100eko indizea) baino handiagoa da (2004an, 120ko balioa zuen), Europako altuenetakoa. Lan egiteko adina duten Euskadiko biztanleen prestakuntza-maila, gaur egun, Espainiako batez bestekoa baino handiagoa da (ia % 50ak bigarren hezkuntza edo goi-mailako ikasketak burutu ditu, eta Espainiako batez bestekoa, ordea, % 30 da.); hala ere, Europako herrialdeetakoa baino txikiagoa da, zeren Europako batez bestekoa % 60tik gorakoa izan ohi baita.

Hamarkada honetan, soldatak kontsumoko prezioen Indizea baino zerbait gehiago igo dira, baina produktibitatea baino askoz ere gutxiago, eta azken emaitza honako hau da: lan-errenten parte bat jaitsi egin da BPG-arekiko, zeren 1993an (% 55,4), 2005ean baino handiagoa (% 48,6) baitzen.

Lana aurkitu duten emakumeen kopurua nabarmenki handiagotu da. 1993-2003 hamarkadan, lanpostu berrien % 60 emakumeek bete dute. Dena den, desproporzioa handia da oraindik. Lanean diharduten emakumeen kopurua guztizko langileen % 42a baino ez da eta emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino apur bat handiagoa da.

Alde negatiboari dagokionez, gazteen langabezia-tasa eta Europar Batasunetik kanpoko inmigranteena, tasa orokorra baino askoz handiagoak dira. Gutzizko kontratuen heren bat aldi baterakoak dira, batez ere, inmigranteei (ia guztiei) dagozkienak eta 25 urtetik beherako gazteei (kontratuen % 77) eta emakumei (% 39) dagozkienak. Kontratu horietan, legez kanpoko kontratuekin edo inolako kontraturik gabe lan egiten dutenak ere hortxe sartzen dira.

Estatuan bezala behin-behinekotasuna handia da inmigranteengan -eta erabatekoa legeztatu gabe dauden inmigranteengan-. Lan ordu gehiegi dituzte, aldi baterako lanak dira eta orduko soldatari dagokionez, diskriminatuta daude, zeren, askotan, soldata lanbide arteko gutxienekoa baino txikiagoa izan ohi baita.

Inmigranteek, batez ere, nekazaritzan, eraikuntzan, etxeko lanetan eta bertakoek uzten dituzten zerbitzuetan lan egin ohi dute. Pobrezia kolektibo honetan zentratzen da. Pobre berriak dira.

Euskadi, oraindik ere, industrian espezializatuta dago, baina zerbitzuen sektorea etengabe hazten da euskal ekonomian.

Metroko irteera Bilboko finantza-gunean.



Azukre-fabrika zaharren eraikina, gaur, Enpresa Zentro moderno bihurtu da. Gasteiz.





Langabezian dauden pertsonen erdiak, epeak amaitzeagatik, ez du inolako langabezia-saririk jasotzen EIN estatu-erakundetik. Halaber, prezioen igoera dela eta, etxebizitzak ondasun oso garesti bihurtu dira, ia eskuraezina kolektibo askorentzat, eta babes ofizialeko etxebizitzak (BOE-n) edo errenta txikiko etxebizitzak politikek ezin izan dute arazo hori behar bezala bideratu.

ELA sindikatuaren arabera, gastu sozial publikoa Europako batez bestekoa baino txikiagoa da, eta hori, enpresek jasaten duten presio fiskala txikiagoan da eta azken urteetan gutxi hazi den gastu publikoaren politikan ikusten da; osasuneko, kulturako, hezkuntzako eta gizarte-laguntzako gastu sozialean hainbeste nabarmentzen ez bada ere. Kontseilu Ekonomiko Sozialaren arabera, 25 herrialdeen Europako batez bestekoan, BPGaren % 5,2 hezkuntzarako den bitartean, Espainian, batez bestekoa % 4,3koa da eta Euskadikoa %3,8koa baino ez da.

Eustataren arabera, 2004an, 25 kideko Europar Batasunean gizarte-babeseko gastuaren batez bestekoa BPGaren % 27,6koa izan zen eta Espainian % 20koa. Euskadin % 18,9koa zen. Gizarte Babeseko Gastua biztanle bakoitzeko, 3.479 eurokoa izan zen, hau da, Espainiako batez bestekoa (2.858 euro) baino handiagoa, baina Europako batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa (5.851 euro pertsonako).

5.2.3. Ikerketa eta garapena

Euskadik ahalegin handia egin du Ikerketa Zientifikorako eta Garapen Teknologikorako baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak erabiltzeari dagokienez.

2005ean, I+G-en erabilitako gastua, guztira, 823,4 milioi eurokoa izan zen, hau da, BPG-aren % 1,48, INEren arabera. Ehuneko hori Espainiako batez bestekoa (% 1,13) baino handiagoa da, baina Europakoa (% 1,86) baino askoz txikiagoa da. 2009rako asmoa BPGaren % 2,2 iristea da.

Autonomia Erkidegoei dagokienez, Euskadik hirugarren lekuan jarraitzen du, I+G-an egindako ahaleginari dagokion rankinean; aurretik Madrilgo Komunitatea eta Nafarroa (% 1,67) besterik ez daude (2005ean, bertako BPG-arekiko gastua % 1,82koa izan zen). Lurralde bakoitzeko Teknologia Parke garrantzitsuenek (Zamudio, Miramon eta Miñao) tradizioa dute dagoeneko arlo askotan, hots: aeronautikan, telekomunikazioetan, medikuntzan, bioteknologian, ingurumenean, elektronikan...

Ikerketa, garapena eta berrikuntza izango dira, euskal enpresen garapenaren froga-harriak hurrengo hamarkadetan

GAIKER teknologia-zentroko industria-nabea. Zamudio (Bizkaia).

Lan egiten duten emakumeen indizea berdinuz doa gizonezkoenarekin, baina oraindik bide luzea dago egiteke, emakumeek gizonezkoen baldintza beretan lanean jarduteko, ordainsariari eta sustapen profesionalari dagokienez, behintzat.



5.3. Nafarroako eta Iparraldeko ekonomiak

Nafarroa

PBG-a, Espainiako PBG-aren % 1.7 da.

Nafarroan, aldaketa nagusia XX. mendeko 50-70 hamarkadetan izan zen. Nekazaritzako lanpostuak murriztu egin dira eta zerbitzuen sektorea hazi egin da, Espainiako batez bestekoa baino gutxiago bada ere. Sektore publikoak pisu handia du Nafarroan.

Nafarroako biztanle okupatuen egituraketaren bilakaera, sektoreen arabera

	Nekazaritza	Industria eta eraikuntza	Zerbitzuak
1940	56%	20%	23%
1975	18%	45%	37%
2006	5,4%	34,2%	60,4%

Iturria: Haizea eta Nafarroako Estatistikako Institutua.

Enpleguari dagokionez, lehen sektoreak pisu handirik ez badu ere (% 6 baino gutxiago), jatorrizko deitura duten mahastien laborantza eta laborantza ureztatuko barazki eta fruten produkzioa (piperrak, zainzuriak, patatak, lekadunak, fruta anitz) garrantzitsuak dira. Gainera, nekazaritzako elikagaien industria, laborantza horien bidez hornitzen da. Aipatutako laborantzez gain, garrantzitsuak dira, halaber, Erdialdean, zerealak, ekilorea, koltza eta erremolatxa eta, Mendialdean, mendi zurgaietako basogintzako jarduerak ere.

Industria-sektorea Lurraldeari dagokion Balio Erantsiaren % 29,1 da -Espainiako batez bestekoa baino 10 puntu handiagoa- eta garraio-materialean, metalurgian, transformatu metalikoetan eta nekazaritzako elikagaietan espezializatu da. Hiru adar horiek eskaintza komertzialaren % 50a gainditzen dute. Ondoren, makinen fabrikazioa, papergintza eta arte grafikoak daude. Nafarroako ekonomia ere, Espainiako batez bestekoa baino gehiago hazi da.

Merkatuko prezioen Balio Erantsi Gordina Nafarroan, 2006an

Nekazaritza	Energia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Produktuen gaineko zerga
2,7%	1,8%	23,4	10,2	50,9%	11%

Iturria: INE

Nafarroaren BPG-a, 2006an, INE-ren datuen arabera 27.861 eurokoa zen, hirugarrena Espainian, Madrilén eta Euskadiren ostean. 2006an, BPG per capita-ri dagokion indizea (erosteko ahalmenaren parekotasuna), 25 herrialdeko Europako indizea 100 izanik, 125,8koa zen, hau da, batez bestekoaren ia % 25.

Nafarroan, langabezia-maila % 5,3 ingurukoa da.

Iparraldea

Kasu zeharo desberdina da.

XIX. mendearen bigarren zatian turismoaren garapen garrantzitsua hasi zen, trenari eta Bigarren Inperioari esker. Napoleon III.ak eta bere emaztea zen Eugenia de Montijo-k Miarritzen ezarri zuten udako egoitza, eta Côte Basque zeritzona nazioarteko modako leku bihurtu zen eta eraikuntza eta zerbitzu berriak sortu ziren.

Gaur egun, Iparraldeko barnealdeak ez du eredu ekonomiko jakin bat. Garapena Lapurdiko kostaldean kontzentratzen da. Langabezia-tasa % 13koa da, 1990ean (% 11,9) baino handiagoa. Ehuneko handiena Lapurdira dagokio: 13,9.

Biztanleria aktiboari dagokionez, 262.311ko guztizko biztanle-kopurutik, 98.652 lanean ari dira. Iparraldean, enplegua honelaxe banatzen da: % 6,3ak nekazaritzan eta arrantzan dihardu (asko jaitsi da azken urteetan, zeren 1979tik 2000ra bitartean nekazaritzako enpleguen % 30 galdu egin baita); % 14,8a industrian ari da (nekazaritzako elikagaigintzan, aeronautikan, oinetakoen industrian, elektrizitate eta elektronikaren industrian, portuko jardueretan...), guztira 14.095 lanpostu dira; % 6,6a eraikuntzan ari da (sektore garrantzitsua da) eta sektorerik garrantzitsuena zerbitzuena da, zeren % 72,2ak zerbitzuetan lan egiten baitu (turismoa, merkataritza, hostalaritza...). Zerbitzuen sektorea iraunkor mantentzen da.

Nekazaritza-sektorea eta dagozkion transformazio-industriak Nafarroako irudiaren parte garrantzitsua dira.



Iparraldeko ekonomian, turismoa da sektore nagusia. Biarritzeko Itsas Pasealekua (Lapurdi).





Txingudiko badiak
Hegoaldea eta Iparraldea
banatzen ditu.



ONGI ETORRI
BIENVENIDOS
BENVINGUTS
BENVIDOS
WELCOME
BIENVENUS

مرحبابکم

欢迎

EUSKAL HERRIA





Bigarren zatia

Kultura

Gaurko euskal kultura heredatutako oinarritzko kulturaren, jasotako kulturaren eta sortutakoaren batura da.

Dantzen erakusketa Bidarten (Lapurdi).



Eduardo Chillidaren Haizearen orrazia.
Donostia-San Sebastián.

6. EUSKAL KULTURA

Kulturaren Euskal Planean³ esaten denez, euskal kultura hiru ekarpenen ondorioa da. Lehenbizi, eta alderdi nagusi gisa, herentziaz jasotako oinarritzko kultura. Bigarrenik, bereganatutako beste kultura batzuk. Eta hirugarrenik, euskal herritarren oraingo kultura orokorrean. Lehenbiziko ekarpenari esker, besteak beste, historia, hizkuntza, ikur, instituzio, arte eta bilakatu ohi diren bizimodu bereziak jaso ditugu.

Bigarrenetik, aberastasuna eta beste hizkuntza batzuk lortu ditugu. Hirugarrenak, aniztasuna, mestizajeak eta munduan eta gure herrialdean sortzen diren aldaketa azkarretara egokitu beharra ekarri dizkigu.

Euskal kultura, kultura bereiztua da, arrazoi historiko eta politikoengatik, bi kultura indartsuren, hau da, espainolaren eta frantsesaren, eraginak baditu ere.

Egoerak nabarmenki onera egin badu ere, euskararen biziraupena mehatxatzen dituzten arriskuak ez dira desagertu. Are gehiago, euskal herritar guztiek, bizi diren lekuaren arabera, gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiten dute, baina ez euskaraz. Euskal herritarrek erdara (gaztelania edo frantsesa) menperatzen dute, baina euskaldunak baino ez dira elebidunak, eta gainerakoak elebakarrak (erdaldunak) dira. Beraz, hizkuntzen ezagutza desorekatuta dagoenez, euskarazko euskal kultura eta erdarazko euskal kultura daude, eta, halaber, hizkuntzan oinarritzen ez den euskal kultura ere badago. Guztien artean euskal kultura osatzen dute, hau da, Euskal Herriko kultura.

Gizarteak bizi duen kultura-aniztasun horren ondorioz, hurbilketa handiak badaude ere, oraindik ez dago euskal herritar guztien arteko adostasunik, batez ere, euskal identitatea zehazten duten ezaugarriei eta identitate horren tratamendu publikoari dagokienez. Auzi horretan, auzi politikoek ere eragina dute.

Euskara eta euskal kultura oso lotuta daude, eta, ondorioz, kulturaren etorkizuna euskararen arabera eta kultura-alderdi guztien (kreazioaren, produkzioaren eta hedapenaren) garapenaren arabera izango da.

³Kulturako jendearen, agente sozialen eta Herri Administrazioen artean adostutako kultura garatzeko plan estrategikoa da.

Yusoko monasterioa Errioxan. Euskarazko zein gaztelaniazko, lehenbiziko idatzizko lekukotasunak daude bertan.



Euskara eta gaztelania diglosia-egoeran bizi dira elkarrekin, hau da, hizkuntza bat, kasu honetan gaztelania, menderatzailea da bestearikiko.



6.1. Euskara, geure hizkuntza

Euskara hizkuntza aurreindoeuroparra da; beraz, milaka urte ditu. Mendeak pasa ahala, euskaraz hitz egiten diren lurraldeak aldatu egin dira. Antzinaroan eta Erdi Aroan, euskal etnia gaur egun Euskal Herria dena baino lurralde zabalagoetan bizi izan zen (Akitaniaren eta Aragoiko Pirinioen parte batean, eta Errioxako zein Burgoseko eskualde batzuetan).

Euskara euskal herritarren hizkuntza eta berariazko ondarea da eta horixe da, identitateari dagokionez, ezaugarriarik markatuena. Historialariek orain arte ezin izan dute azaldu euskararen iraunkortasun bikainaren arrazoia.

Belaunaldiz belaunaldi gorde izan da, eta gaur egun, hizkuntzak suspertze garrantzitsua bizi du, kolektibo osoaren borondate biziak bultzatuta. Askotan jazarri izan dute, eta, beti ere, desabantaila-egoeran egon izan da. Hezkuntza-sistemako hizkuntza bakarra eta nahitaezkoa erdara izan da, orain dela gutxira arte.

Gaur egun, euskararen garapena garrantzitsua da, hezkuntza-sistemari esker. Euskadin eskola publikoaren gehiengoa euskarazkoa da eta, horrez gain, ikastolak (euskarazko irakaskuntza ematen duten ikastetxe pribatuak) ere badaude. Ikastolak gurasoek eurek kudeatzen dituzte, eta euskara baztertzen zuen frankismoan sortu zen hezkuntza-mugimendu herritarrean dute jatorria.

Dena den, euskararen erabilera normalizatu gabe dago oraindik, zeren normalizatuta dauden eta -denek dakitenez- sustapen berezirik behar ez duten hizkuntzez inguratuta bizi baita. Elebidunak eta elebakarrak erdara erabili ohi dute elkarrekin komunikatzeko; beraz, euskararen erabilera gizartean ezagutza-maila baino askoz ere txikiagoa da.

Hizkuntzalariek ondo ezagutzen duten fenomeno horri diglosia deitzen zaio, eta diglosiak, beti ere, hizkuntza baztertzailearen edo gehiengoaren hizkuntzaren alde, hau da, erdararen alde, jokatzen du.


Horregatik, onartuta dago, oro har, "diskriminazio positiboko" politika konpentsatzailea erabiltzea hezkuntzan, esparru jakin batzuetan (dokumentuak, errotulazioak, erakundeak, sustapena...), jendaurreko zerbitzua ematen den tokietan (administrazioak, zerbitzu publikoak, eta, gero eta gehiago, jendaurreko zerbitzu publikoetan). Horrela, gutxienez, euskaldunek herrialdeko berariazko hizkuntzan arreta izateko duten eskubidea ziurtatu egiten da.

Euskal Herriko lurralde bakoitzean, urtero, dagokion euskararen eguna ospatzen da. Aire zabaleko ibilbidea egiten da eta biltzen den diru-kopurua ikastolaren batentzat izan ohi da. Jaiak izen berezira du lurralde bakoitzean: Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats, Araba Euskaraz eta Nafarroa Oinez. Halaber, urtero, Euskal Herriko ikastetxe publikoen Euskal Eskola Publikoaren Jaia egiten da, “Kalitatezko Euskal Eskola Publiko euskalduna, integratzailea eta partehartzailea” aldarrikatzeko. Horiez gain, bi urtetik behin, Korrika egiten ohi da.

Korrika, gau eta egun, gelditu gabe, Euskal Herri osoan zehar, herritarren laguntzaz egiten den korrikaldia da. Helduen Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK-k) antolatzen du. Errelebu-lasterketetan egiten den antzera, kilometro bakoitzean korrikalari bat izendatzen da barruan euskararen aldeko mezu jakin bat daukan lekukoa eramateko, eta honek errelebu egiten duen hurrengo korrikalariari ematen dio lekukoa.

Euskararen iraunkortasuna zenbait belaunalditako ikertzaile euskaltzaleri esker ere mantendu izan da: **Koldo Mitxelena, Luis Villasante, Jose Luis Alvarez Enparanza “Txilardegi”...** Ikertzaile horiek hizkuntzaren normalizazioa eta hedapena lortzen ere lagundu dute.

Louis Lucien Bonapartek XIX. mendearen erdialdean egin zuen euskalkien mapa. Bonapartek zortzi euskalki zehaztu zituen: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko baxenafarrera, hegoaldeko goi-nafarrera, mendebaldeko baxenafarrera, ekialdeko baxenafarrera, lapurtera eta zuberera.



6.1.1. Euskararen jatorriari buruzko teoriak

Euskara, hizkuntzalaritzak eta historiak konpondu ezin izan duten enigma da. Euskararen jatorria ez dakigu zein den, zeren euskarak ez baitu ahaiderik gaur egungo hizkuntzen edo hizkuntza historikoen artean; halaber, hizkuntza aurreindoeuroparrekin, mediterranearekin, iberiarrarekin edo Afrikako edo Kaukasoko hizkuntzekin uztartzen dituzten teoriak ez dira egiaztatu.

Euskaraz idatzi ziren lehenbiziko hitzak garai erromatarreko (I.mendeko) Akitaniako eta Pirinioetako hilarrietan aurkitu ziren. Esaldi jokatuak dagokienez, zaharrenak, Donemiliagako Glosetakoak dira. Glosa horiek X. mendeko eskuizkribu batzuetan aurkitu ziren Donemiliaga Kukula herriko monasterioan, Errioxan.

Euskarak 8 lurralde-euskalki eta 24 azpieuskalki ditu. Egoera horren ondorioz, hizkuntza bateratzea nahitaezkoa zen eta, 1968az geroztik, euskara batua sortu zen. Euskararen suspertzearen hasiera izan zen, zeren, horri esker, hezkuntza-sisteman sartzea eta herrialdeko sektore sozial eta politiko garrantzitsuen laguntza lortu baitzituen.

6.1.2. Euskara eta ofizialtasuna

Paradoxa badirudi ere, tamalez, euskara ez da inoiz euskal instituzioen hizkuntza ofiziala izan, oraintsura arte. Hori handicap handia izan zen euskararen garapen eta erabilerari dagokienez eta euskarako literatura sortzeari dagokionez.

Gaur egun, ofizialtasun-maila desberdinak daude:

- **Euskadiko Autonomia Erkidegoan**, bertako hizkuntza izateaz gain, euskara hizkuntza ofiziala da Espainiako Estatuko hizkuntza ofiziala den gaztelaniarekin batera.
- **Nafarroako Foru Komunitatean**, euskara hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, baina lurraldearen iparraldean baino ez (1986ko Euskararen Legea). Lurraldearen gainerakoa eremutan banatuta dago: eremu ez euskalduna eta eremu mistoa. Ondorioz, euskararen tratamendu publikoa desberdina da eremuen arabera.
- **Iparraldean** frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra. Euskara “eskualdeko hizkuntzatzat” jotzen da eta ez du laguntza publiko esanguratsurik jasotzen.

6.1.3. Euskaltzaindia

Eusko Ikaskuntzaren proposamenaren ondorioz sortu zen 1919. Euskaltzaindiaren eginkizunak honako hauek dira: hizkuntza zaintzea, ikertzea, hizkuntza sozialki babestea eta erabilerara arauak ezartzen ditu. Gizartearen eta erakunde guztien onspena du, Estatuan eta Nafarroan ere bai. Euskara bateratzea eta modernizatzea lortu du, batez ere, 1968az geroztik.

Euskaltzaindiaren egoitza. Bilbo.



6.2. Euskaldunen komunitatea

Hiritarrok dugun euskara-maila zehazteko, honako bereizketa hau egin ohi da: elebidunak (euskaraz ondo edo nahikoa ondo mintzatzen direnak); elebidun pasiboak (euskara ulertu, behintzat, egiten dutenak), eta elebakar erdaldunak (euskaraz mintzatzen ez direnak).

6.2.1. Euskal Herrian

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2005ean argitaratutako azken inkestan Euskal Herri osoko datuak biltzen dira, baina 16 urtetik gorakoei buruzko datuak besterik ez izatearen eragozpena du. 4-16 urtekoak ez dira sartzen, eta, hezkuntza-sistemaren eraginez, tarte horretan dago, hain zuzen, elebidunen ehunekorik handiena.

16 urte baino gehiago dituztenen hizkuntza-gaitasuna Euskal Herrian eta Euskadin. 1991. eta 2001. urteetan

	1991		2001		Hazkuntza/ Gutxikuntza hamarkadan
	Bertikala	%	Bertikala	%	
EUSKAL HERRIA 16 urte baino gehiago biztanleak guztiara	2.371.078	100	2.497.016	100	
Elebidunak	528.520	22,3	633.934	25,4	+3
Elebidunak pasiboak	182.736	7,7	263.498	10,6	+2,9
Erdaldunes	1.659.822	70	1.599.584	64	-6
EUSKADI 16 urte baino gehiago biztanleak guztiara	1.741.470	100	1.806.690	100	
Elebidunak	419.221	24,0	530.946	29,4	+5,4
Elebidunak pasiboak	148.717	8,5	206.133	11,4	+2,9
Erdaldunes	1.173.532	67,4	1.069.611	59,2	-8,2

Iturria. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2005.

Euskararen ezagutzari dagokionez, jauzi kualitatibo handia egin da Euskadin azken urteetan, baina Nafarroan, ordea, askoz gutxiago aurreratu da, eskolaratzeari esker hobetu egin den arren. Euskaraz ikasten duten umeen kopurua etengabe handiagotzen da, eta horrek euskara estimatu edo baloratu egiten dela adierazten du. Eta hori, Nafarroako UPN-ko Gobernuak euskara garatzeko eman duten laguntza publikoa urria izan bada ere.

Iparraldean, lehen hiztunen ehunekorik handiena zegoen tokian, etengabeko galera kezka garria dago. XIX. mendearen amaieran % 65 euskalduna zen, eta, orain, euskaldunak % 24,7 dira, eta batez ere Zuberoan eta Nafarroa Beherean kontzentratzen dira. Gaur egun, kontzientziarioa birsortzen ari da, batez ere, gazteengan.

Munduan 700.000 inguru euskaldun daude (Ameriketara joandako euskaldun inmigranteak barne) eta beste 300.000 mila lagun elebidun pasiboak dira (ulertu egiten dute baina ez dute hitz egiteko erraztasunik). Guztira ia milioi bat pertsona dira.

6.2.2. Euskadiko Autonomia Erkidegoan

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2005eko Mapa Soziolinguistikoa ere argitaratu du. Euskadiri baino ez dagokio eta 4-16 adin-tartea kontuan hartzen da. Maparen datuen arabera: elebidunak -euskaraz ondo hitz egiten dutenak- ia heren bat dira (% 32,2) eta elebakar erdaldunak -euskaraz hitz egiten ez dakitenak eta ulertzen ez dutenak- ia biztanleen erdia dira (% 49,6); gainerakoak elebidun pasiboak dira % 18,2. Beraz, euskaraz ondo dakitenak eta nolabaiteko ezagutza dutenak % 50,4 dira.

Elebidunei dagokienez, 1981ean, biztanleen bostena izatetik, 2001ean heren bat izatera pasatu dira. Beraz, 20 urtean, 200.000 hitzun berri sartu dira euskaldunen multzoan, gehienak gazteak. Elebidun berriak hiritarrak eta gazteak dira, eta gehienek familia- eta gizarte-ingurunea ez da gehiengo euskaldunekoa.

Halaber, elebidun gehienak hiru hiriburuetako metropoli-barrutian -hala ere, hiriburuetan, euskaldunen ehunekoa gutxiengoa denez, ez dute euskara jarraitutasunez hitz egiteko aukerarik- eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan bizi dira.

Lurralde historikoen arabera, Araban eta Bizkaian elebidunen ehunekoa batez bestekoa baino txikiagoa da, hots, % 16a eta % 24,8a, hurrenez hurren. Elebidun pasiboen kolektiboa antzekoa da aipatutako bi lurraldeetan. Gipuzkoan banaketa zeharo desberdina da: biztanleen erdia baino gehiago elebidunak dira. Elebidunen ehunekoa % 65a baino handiagoa den herriak -eremu euskaldunenak- kostaldean edo Gipuzkoako edo Bizkaiko barnealdean daude.

Gizarte-erabilera eta euskaraz mintzatzeko erraztasuna erabakigarriak dira. Eta alderdi horretan, hain zuzen, euskarak ez du lortu, erabilera-hizkuntza gisa bizirik irauteko beharrezkoa den maila; eta hori, 70ko hamarkadaz geroztik, denen laguntzaz, gizartean, hezkuntzan eta ekonomian ahalegin eskergak egin izan direla kontuan hartuta. Hortaz, beharrezkoa da euskara komunikabideetan sustatzea eta komunikazio -zerbitzu-, eta lan-hizkuntza bihurtzea.

Euskararen aldeko jai eta ekintza ugari antolatzen dira.

Ibilaldia 07 (Bizkaiko ikastolen aldeko jai).



Eusko Jaurlaritzaren standean euskararen egoeraren berri eman ohi da Expolingua ferian. Berlin.



6.2.3. Zailtasun historikoak

Historikoki, euskarak hizkuntza gisa garatu ahal izateko zailtasunak izan ditu. Alde batetik, XIX. eta XX. mendeetan eratu zirenean, Espainiako eta Frantziako Estatuak Espainia edo Frantzia osorako hizkuntza bakar eta baztertzailerean alde apustu egin zuten. Bestetik, azken bi mendeetan Euskal Herrira etorri diren inmigranteek, hizkuntza menderatzailea erabili izan dute bi estatuetan.

Gaur egun, inmigrante latinoamerikarrek nekez erabiliko dute, hasieran, gaztelania ez den beste hizkuntza bat, eta gainerako inmigranteen joera ere antzekoa da. Hori ulergarria da. Dena den, euskal herritarrek, beti ere, egokitzen jo dute lehengo zein oraingo inmigranteak euskararekin kontaktuan jartzea, eta horrek biztanleen integrazio-prozesua eta kultura artekotasuna bultzatu egiten ditu. Atzerriko herrialdeetatik etorritako pertsonak (gehienak gazteak) erabat integra daitezten, ezinbestekoa da euskara erraz eta naturaltasunez eskuratzeko ekimen berriak sortzea.



Kanpaina ugari egiten dira euskararen erabilera sustatzeko gizartearen esparru guztietan: harreman pertsonaletan, merkataritzan, enpresetan, lanean

Dena den, hizkuntzari dagokionez, itxaropena inmigrante oso gazteengan eta ondokoengan dago. Arestian, inmigranteen ondoko guztiek euren burua euskalduntzat zeukaten, eta, halaber, gehienek euskara ikasi dute, gainerako ume eta gazteek bezala.

Elkar integratzeko prozesuak erraz daitezten, politika aktibo eta aurrerakoiak ezinbestekoak dira, gertatzen diren gizartea eta kultura bateratzeko egiazko arazoak bideratu ahal izateko, ghettoak saihestuz eta mestizajea babestuz. Horretarako, euskal kultura, eta euskarazko kultura sustatu egin behar dira, baina, aldi berean, inmigranteek euskal kulturari buruzko ikuspegi ona izan dezaten, haien eskubideak babestu eta jatorrizko kulturak errespetatu egin behar dira, eta euskal kultura integrazio eta asimilazio klabeen arabera eskaini behar zaie.

Euskarak ikaskuntza-sistema bereziak ditu ikasleen zein helduen hezkuntzarako.

Goian: Etxalarko Ikastola. Nafarroa.
Behean: helduak euskalduntzeko gela, Bilbo Zaharra euskaltegian (Bilbo).

Euskararen ezagutzari dagokion ehunekoen arabera mapa, Euskadiko eskualdeetan



6.3. Irakaskuntzako hizkuntza-ereduak

Euskadin, hiru hizkuntza-eredu erabili dira irakaskuntzan: D, B eta A ereduak. D ereduari irakaskuntza euskaraz da eta gaztelania irakasgai gisa ematen da; B ereduari irakaskuntza gaztelaniaz eta euskara irakasgai gisa ematen da. 2006–2007 ikasturtean, ikasleak honelaxe daude banatuta: 91.856 ikasle A ereduari, 72.567 B ereduari eta 170.529 D ereduari. Haur-hezkuntzan, Lehen hezkuntzan eta DBH-n, D ereduari da nagusi, baina ez batxilergoan eta LH-n.

Ikasturte horretan, haur eta lehen hezkuntzako ikasleentzat % 61,8ak D ereduari aukeratu zuten eta A ereduari % 8ak aukeratu zuten.

Eskolako matrikulazioei dagokienez, D eta B ereduak dira nagusi eta gero eta ume gehiago matrikulatu ohi dira eredu horietan. Ereduetan behar adinako euskara-maila ziurtatzen da eta bat dator euskal komunitateak bere hizkuntza berreskuratzeko egin duen ahalegin ekonomiko eta sozial eskergarekin.

Aldi berean euskara ondo jakitea, alderdi garrantzitsua da lana aurkitzeko eta sozialki garatzeko orduan.

Azken 20 urteetan, alderantzki izan da D eta A ereduak dagokienez. A ereduari jaitsi egin da (1983–84 ikasturtean, % 78 eta 2006–07 ikasturtean % 27,2). B ereduari dagokienez, % 8,1ekoa izatekiko % 21,5ekoa izatera pasatu da eta D ereduari % 14,2tik % 50,6raino igo da. Azken urteetan, D ereduaren hazkuntza areagotu egin da, eta B ereduaren hazkuntza moteldu egin da apur bat.

Gaur, ereduak berrikusteko azterketa egiten ari dira (homogeneizazioa eta malgutzea), sistema osoan bi hizkuntzak jakiteko eta hirugarren hizkuntza sartzeko asmoz.


Azkenik, euskaltegietan 47.226 ikasle matrikulatu ziren. Euskaltegietan aritzen direnak ikasle garaian euskara ikasteko aukerarik izan ez zutenak eta lanpostua lortzeko hizkuntza eskakizuna atera behar dutenak edota, besterik gabe, euskarazko ezagutzan sakondu nahi dutenak izaten dira.

Euskararen eguna ospatzen Getxon (Bizkaia).

Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen aldeko jaia.



Hezkuntza-ereduen bilakaera, ehunekotan. 1983–2003



Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila



7. ARTEAK

Arteak arlo klasikoen araberako multzoetan sailkatuko ditugu: ikusmen-arteak, literatura eta arte eszenikoak eta musika-arteak. Dena den, artisautza -artearen eta herri-kulturaren elkargune gisa- eta kultura multimedia eta digital berria ere sailkapenean sartuko ditugu. Zenbait arte (dekorazio-arteak, diseinua, argazkigintza, grafismoa, komikia, irudi eta soinu elektronikoak...) ez ditugu ukituko lan honetan.

7.1. Ikusmen-arteak

Arte-kreazioa, euskal pinturari eta eskulturari dagokienez, berandu hasi bazen ere -arkitektura baino askoz beranduago-, euskal ikusmen-arteek bereziki gailendu dira eta prestigio handia lortu dute nazioartean.

Ikusmen-artearen aritzen diren artisten belaunaldi berria suspertzeko eta sustatzeko garrantzitsuak izan dira "Gure Artea" sariak. Sari horiek Eusko Jaurlaritzak sortu zituen 1981ean; harrez geroztik, hasieran urtero ematen ziren eta orain bi urtetik behin ematen dira.

7.1.1. Eskultura

Errenazimentuan, badira eskultore, erretaulagile eta hargin aitzindariak, baina garrantzitsuena **Juan Anchieta**, Migel Anjelen jarraitzailea, izan zen. Barrokoan, besteak beste, aipagarrienak Luis Salvador de Carmona, Sierra anaiak eta Juan Pascual de Mena izan ziren.

Dena den, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, zenbait pertsonaia ospetsu azaleratu ziren: **Francisco Durrio** (1868-1940), Gauguin-en adiskide izan zen eta inspirazio modernista eta sinbolista argia zuten piezak egin zituen; adibidez, Arriagaren monumentua (Bilboko Arte Ederretako Museoaren alboan dago). **Nemesio Mogrobejok** (1875-1910) modernismoaren eta Rodinen eragin handiak zituen.

Baina, 1950eko hamarkadara arte ez zen nazioartean garrantzia izan zuen kreazio-mugimendua sortu. Gaur egun, munduko eskultura ezin da ulertu bi euskal eskultorerik gabe.

Jorge Oteitza (Orio, 1908-Donostia, 2003). Eragin handia izan zuten XX. mendearen bigarren zatiko euskal arte-abangoardietan, eta ospe handia lortu zuen esperimazioarekin eta arte garaikideak gizartean izan behar duen eginkizun eraldatzailearekin konprometitutako artista gisa, bai artelanen bidez, bai idatzi teorikoen bidez.

Garai berean São Paulo-ko IV. Bienaleko Nazioarteko Sari Nagusia lortu ondoren (1957) eta Arantzazuko Andre Mariaren elizako 14 apostoluak egin ostean, geometrika arrazionalen oinarritutako espresionismoa eta figurazioa uztea erabaki zuen, eta abstrakzioaren bidea hartu zuen. Hurrengo hamarkadan, eskultura uztea erabaki zuen. Hirurogeiko hamarkadan, modernitatea eta euskal herri-inkontzientea uztartzen saiatu zen. Euskal kulturarekin hartu zuen konpromisoa bete nahian, kultura defendatzeko mugimendu eta ekintzen aitzindari izan zen. Testuinguru horretan, Euskal Eskolako taldeak sortu ziren. Talde horiek artea ezagutarazteko erakusketak antolatu zituzten, eta erakusketok Francoren erregimenaren aurkako aldarrikatze politikoak eta kritikoak egiteko plataforma gisa erabili zituzten.

Oteitzaren produkzioan, monolito monumentalak (Preso politiko ezezagunaren omenezko monumentua), kaxa edo eraikuntza geometriko hutsak (kutxa hutsa) eta kleraz eta burdinaz egindako pieza txikiez osatutako proiektu eta artelanen bilduma daude.

Eduardo Chillida (Donostia, 1924-2002). Izan den euskal ikusmen-artistarik unibertsalena da, bere lanarengatik eta utzi duen ondarearengatik. Chillidak alderdi materialaren eta espiritualaren arteko oreka eraiki zuen. Materialei dagokienez, lurra, burdina, altzairua, granittoa eta hormigoia erabili zituen, eta argia beste elementu bat zen bere artelanetan. 1958an, erakusketa egin zuen Venezian eta Eskulturako Nazioarteko Sari Nagusia lortu zuen. Bi urte geroago, Kandinsky saria lortu zuen, eta 1964an Pariseko Maeght Galerian egin zuen erakusketa. 1964an, Pariseko Uneskoren eraikinaren aurrean, Haizearen Orrazia IV izeneko eskultura jarri zuen; urtebete geroago, Hutsaren Inguruan V izeneko eskultura Washington DC-ko World Bank-ean ikus zitekeen.

Chillidaren produkzioari dagokionez, zenbait alderdi nagusi aipatu behar dira: espazioaren definizioa, agian, hasieran burutu zuen arkitekto-prestakuntzaren ondoriozkoa, edo, seguruenik, Henry Moore eskultorearenganako zuen mirespenak eragindakoa; primitibismoa, Brancusi-rekin bat etorritz; eta, azkenik, artelan bakoitza dagokion espazioarekin elkarriketatzen den lekuan jartzea. 2000ko irailean, Chillida-Leku izeneko haize ageriko museoa inauguratzea lortu zuen, bere bizitza artistikoaren amaiera gisa.

Baina, garaikideengan eragin nabarmenena izan duten eskultoreak Jorge Oteitza eta Eduardo Chillida izan badira ere, belaunaldi horretan, badira nazioarteko prestigioa lortu duten beste artista ospetsu batzuk ere; besteak beste: **Nestor Basterretxea** (1924), bere forma ahaltzuekin; **Ricardo Ugarte**, honek burdina bera erabiltzen du espresio gisa; **Remigio Mendiburu** eta naturaren zentzua; **Vicente Larrea** eta bere eskultura organikoak edo zentrokideak; **Ramon Carrera**, bere informalismoaren bidez; **Agustin Ibarrola**, Emen taldeko kidea, bere hiri-materialekin edo natura gizatiartzeko ekintzekin; edota gazteagoa den **Andres Nagel** hausle eta atipikoa.

Eraikuntza hutsa. Jorge Oteitza. Donostia.



Chillida Leku, Chillida Fundazioaren egoitza. Hernani (Gipuzkoa).



Ibarrolaren egintza Omako basoan (Bizkaia).




Euskal artista askoren lana ikus daiteke Bilboko Arte Eder Museoa.

Arriagaren monumentua, Francisco Durriok egindakoa, Museoaren sarreran.



Autorretratu. Ignacio Zuloaga.



José Luis Zumetaren pintura.



Beste eskultore aipagarri batzuk honako hauek dira: **Jose Alberdi** (1924), Britainia Handiko Arte Ederretako Errege Akademiako kidea, **Javier Echevarria** (1916), **Alejandro Tapia** (1930) edo **Jose Uribarrena** nafarra. Euskal eskultura berria ez doa aitzindariak utzitako aztarna indartsuaren bidetik. Gaur egun, eskulturarekin batera, instalazioak dira nagusi eta, diziplinak edonolakoak izanda ere, baliabide berriak aldi berean erabili ohi dituzte. **Cristina Iglesias**-ek Itxura arkitektonikoa duten bolumenetan oinarrituta lan egiten du; Txomin Badiolak mota guztietako espresio-baliabideak eta instalazioak erabiltzen ditu eta **Esther Ferrer**-ek Pariseko ZAJ taldearen kide da eta soinu-eskultura egiten du. Horiekin batera, aipagarriak dira **Prudencio Irazabal**, **Koldobika Jauregi**, **Pello Irazu**, **Javier Pérez** edota **José Ramón Anda** edo **Ángel Garraza** nafarrak.

7.1.2. Pintura

Aurrekariak badaude ere, euskal pintura berantiarra da. XX. mendearen hasieran, hainbat aukera erabiliz, Europako korrante abangoardistetan parte hartu zuten pintoreen belaunaldia azaleratu zen.

Darío de Regoyos (1857–1913), asturiarra zen jatorriz. Bere pintura-espresionismoa oso eraginkorra izan zen, eta amaieran, impresionismo puntillista erabili zuen. **Euskal Artisten Elkarteak** (1910–1935), erakusketa kolektiboen bidez, muga ezarri zuen eta kalitate handiko abangoardiak sortzea bideratu zuen.

Adolfo Guiard laguna zuen Degas-en mireslea zen, eta bere marrazki impresionista moderatuen bidez, sinbolismora hurbildu zen. Artista honen lan oparoaren parte bat Sociedad Bilbaina deritzonaren goitza dekoratzeko erabili zen.

Nazioartean ospetsuena **Ignazio Zuloaga** (Eibar, 1870–Madril, 1945) izan zen. Ezin da garaiko arte-korrante jakin baten sartu, baina pintura ilun eta pesimista egin zuen garaia ostean, XIX. mendeko pinturaren eta impresionisten elementuak erabili izan zituen, kolore espresibo eta dramatikoan oinarritutako arau akademizista eraginkorra eratu zuen arte.

Aurelio Arteta (Bilbo, 1879–Mexiko DF, 1940). Xehetasun-estiloa zuen eta herrietako zein hirietako euskal gizartea azaltzen dituzten eszena ugari pintatu zituen. Korrante askoren eragina izan bazuen ere (impresionismoa, posmodernismoa, sinbolismoa, errealismo epiko eta soziala...), estilo errealista berezia sortu zuen. Artetaen pintura sendoa eta soila da, tonuak ilun samarrak dira, eta irudiei dagokionez, estilizatuak eta eskultorikoak dira. Gerra Zibila piztu zenean Mexikora atzerriratu zen, eta bertan hil zen tranbia-istripu baten ondorioz.

Gustavo de Maeztu (1887–1947) arabarrak gai-deskripzioa landu zuen. Zama sinboliko handiko lana egin zuen, irudi zehatzak egiten zituen eta kolore exotiko eta alegiazkoak erabili ohi zituen.

Antonio de Guezalaren (1889–1956) pintura bere belaunaldikoenen desberdina da. Joera geometrikoa eta futurista du.

Nicolás de Lekuona (1913–1937) surrealista espresio-era asko erabili ohi zituen eta irudimen handiko soluzioak lortu zituen (irudikapen arkitektonikoak, marrazkiak, pinturak, kartelak, argazkiak eta fotomuntaketak). Hona hemen, beste pintore esanguratsu batzuk: **Francisco Iturrino** (fauvista zen eta gorputza gorestan zuen pintura egiten zuen), **Ricardo Baroja**, **Fernando de Amara**, **Carlos Saenz de Tejada**, **Zubiurre anaiak** eta **Arrue anaiak**.

1936–39ko Gerra Zibilaren ostean bizirik iraun zuten artisten pintura-lanak, etengabe jarraitu zuen, baina isilean (**José M. Ucelay**, **Dionisio Blanco**...). Gero, frankismoaren aurkako oposizioan oinarrituta, Oteizak teorizatu zuen berariazko euskal artea sortzen saiatu ziren. Hala ere, Iruñean egin zen garai hartako artearen jardunaldietan (“Encuentros de Arte Actual”–“Gaurko Artearen Topaketa”, Iruñea, 1972) munduko artista ospetsuek parte hartu zuten (Serra, Cage...). Topaketa horietan, joera desberdineko korronteak elkarren aurka aritu ziren eta, harrezkero, estilo eta asmo guztiak bideragarriak izan ziren.

Urte horietan honako artista hauek nabarmendu ziren:

Rafael Ruiz Balerdi (Donostia, 1934–Altea, 1992). Gaur taldeko kide izan zen. Kolorearen pintore emankorra zen, mendearen erdialdeko Pariseko buhameriaren giro ikaragarria bizi izan zuen, eta dentsitate eta edertasun handiko arte abstraktua egitea erabaki zuen. **José Luis Zumetak** (Usurbil, 1939) transabangoardiako pintura edo muralismo fantasiatsua eta kolorista egin zuen.

Agustin Ibarrola (Bilbo, 1930) Equipo 57 eta Estampa japonesa taldeetako kide izan zen. Pintore eta eskultorea da eta 60ko hamarkadan, muralen, koadroen edo litografiaren bidez, matxinada soziala adierazi zuen. 1980ko hamarkadan, inguruaren eta gizartearen arteko harremanak ikertzen hasi zen eta, ondorioz, besteak beste, Omako baso pintatua artelana egin zuen.

30 eta 40ko hamarkadan jaiotakoenen belaunaldiak estilo guztietako artistak utzi zizkigun. Pintore aipagarrienak honako hauek dira: **José Antonio Sistiaga** (zinegile esperimentalak zine pintatua ere bazen), **Vicente Amestoy** (1946–2001) (irudikapen surrealista zuen), **Iñaki García Erguín**, **Rafael Ortiz Alfau**, **Carmelo Ortiz de Elguea**, **Mari Puri Herrero**, **Menchu Gal**, **Gabriel Ramos Uranga**...

Gaur egun artista ospetsuak dira **Jesús Mari Lazkano**, **Dario Urzay**, **Daniel Tamayo**, **Alfonso Gortázar**... Arte Ederretako Fakultatearen eragina handia izan da. Nafarroari dagokionez, esanguratsuenak honako hauek dira: **Xabier Morrás**, **Pedro Salaberri**, **Xabier Idoate**, **Juanjo Azkerreta**, **Isabel Bakedano**...



Meskita nagusiaren gainean eraikitako Tuterako katedral erromaniko-ogibalaren tinpanoa (Nafarroa).

7.1.3. Arkitektura

Ondarea izateaz gain, artea ere bada, arte-adierazpen garrantzitsuenetakoa, alegia.

Antzinaroko arkitektura

Euskal Herriko geografia osoan zehar monumentu megalitiko ugari daude: dolmenak, menhirrak, tumuluak eta cromlechak. Brontze Aroaren amaieran eta Burdin Aroan, kastroak eraiki zituzten hainbat kokagunetan. Kastroak hesiz gotortutako herrixkak ziren eta harrizko eta pezozko etxez inguratutako kaleak zituzten. Esanguratsuenak, La Hoya deritzona, Biasterin dago, Arabako Errioxan.

Erromanikoa baino lehenagoko arkitektura

Erromatarren aztarnak honako toki hauetan daude: Araban, Iruña Okan, Veleia (kastro zahar baten gainean); Nafarroan, Andelos eta Lodosako akueduktua; kostaldean, Oiasso -Irun- (minerala ateratzeko portua), eta Forua (burdina urtzeko erabiltzen ziren labeak dude, elkartrukerako zentroak edo forumak ziren aldetik).

Arte bisigotikoa urria da (Faidoko eremutarren kobak Gobiaranen), prerromaniko edo erromaniko primitibo garrantzitsuenak Nafarroan dago (Leireko Monasterioan -kriptan eta absidean, lehen dinastietako Nafarroako Erregeen gorpuzkiak daude- eta Aralarako San Migelen). Musulmanen garaian, garrantzitsuenak Tuterako Meskita Nagusia izan zenaren aztarnak dira. Izan ere, barrokoa baino lehenagoko arkitekturarik garrantzitsuenak, batez ere Nafarroan, eta Iparraldean dago, bai garapenari dagokionez, bai Santiago Bidearen eraginez.

Arte erromanikoa, gotikoa eta errenazentista

Arte erromanikoa Santiago Bidean zehar sakabanatuta dago. Iparraldean, aipagarriena, Santa Graziko eliza da (Zuberoan), abside hirukoitzarekin. Nafarroan, lagin asko daude; aipagarrienak honako hauek dira: Leireko Monasterioko "Speciosa" izeneko atea; hasieran zistertarra zen XII. mendeko Zangotzako Santa Maria; Aralarreko San Migel santutegia; Eunateko planta; Tuterako Katedraleko ogiba-erromanikoa eta beste lanada-eliza asko, bereziki, Artariaingoa.

Arabian, Estibalitzeko Santutegiko kanpoko aldea, gurutzadura-kapitelak eta amabirjinaren tailua eta Armentia San Prudentzioko basilikako absidea dira esanguratsuenak. Bizkaian, Galdakaoko Andre Mari elizako ataria, kapitela eta dekorazioa eta 1175eko Bakioko San Pelaio basiliza. Gipuzkoan, erromanikoko aztarnak daude Idiazabalgo elizan edo Zumarragoko Antiguako Amaren ermitan.

La Hoya herrizkan jendea bizi zen K.a. XIII-II. mendeetan. Laguardia (Araba).



Santa Graziko eliza erromanikoa (Zuberoa).



Arte gotikoa goiztiarra izan zen Nafarroan eta Iparraldean (Baionako Katedrala) eta berantiarragoa da (XV. mendearen amaiera eta XVI. mendearen hasiera), baina garrantzitsuagoa da gainerako herrialdeetan, hiribilduen fundazioen garaikoa, alegia.

Nafarroan, esanguratsuenak honako hauek dira: Orreagako ospitale-ostatua (Antso Indartsuaren mausoleoa -1234- bertan dago); Iruñeko Andre Mariaren Katedrala: hasieran -1127-, erromanikoa eta gero -1394-, gotikoa; bertan dago Karlos III.aren eta Leonorren panteoia.

Araban, gotiko erlijiosuaren eta zibilaren lagin ugari daude. Esanguratsuak dira Gasteizko Andre Mariaren Katedrala, XIII. mendekoa (gaur egun zaharberritzen ari da, teknologia berriak erabiliz), Gasteizko Andre Maria eta Biasteriko, Aguraingo eta Kanpezuko elizak.

Bizkaian, Bilboko Santiago Katedralaz gain (Aingeruaren Atea eta klaustro gotiko isabelinoa -Gueñeseko Andre Mari elizako Eguzkiaren Atariaren antzekoa-), aipagarriak dira Bilboko San Anton eliza eta Begoñako Andre Mariaren Santutegia (gotiko berantiarra da eta Bizkaiko patroia den Begoñako Amaren egoitza da). Halaber, estilo gotikoko beste hainbat eliza daude: Balmasedako San Seberino eta donetsitako Andre Mariaren elizak, Lekeition (gotiko flamigeroko erretaula bikaina dauka), Ondarroan, Urduñan edo Gernikan. Gipuzkoan, elizarik esanguratsuenak, besteak beste, Debako Andre Maria, Donostiako San Bizente eta Hondarribiko Andre Maria dira.

Arkitekturari zibilarri dagokionez, aipagarriak dira: Oliteko Jauregi berria (Karlos III. eta Bianako Printzea bertan bizi izan ziren), Zarautzeko Dorre Luzea eta Arabako gotiko zibil oparua (Aiaratarren Multzoa, Kexanan, XIII. mendekoa Mendozako dorrea -Gasteizetik hurbil-; Gasteizko Portaloia, Otxanda Anderearen Dorrea -gaur Natura Zientzien Museoa da-, Andatarren dorrea eta Kordoi Etxea). Bizkaian, Salazararren Muñatones gaztelua eta hainbat dorretxe (Zamudiokoa, Mungiako Bilella, Abadiñoko Muntzaraz, Erandioko Martiartu, Abellanedako Juntetxea, Gordexolako Oxirando), batzuek goiko aldea kenduta dute Enrike IV.aren aginduz. Erzilla dorretxea Bermeoko portuan dago eta gaur egun Arrantzaleen museoa da.

Harginen belaunaldi garrantzitsuarekin batera, XVI. mendearen hasieran, platereskoa zen nagusi eta gotikoaren gainean jartzen zen azken aldian. Platereskoaren aztarna oso onak daude.

Gipuzkoan eraikin bikainak daude (Oñatiko Unibertsitatea -1540- eta San Telmo komentua Donostian). Bizkaian, Ziortzako kolegiatako klaustroa eta Bilboko Begoñako ataria; Araban, Goiuriko, Montehermoso eta Bendaña jauregiak, Gasteizen. Eta Nafarroan, Iratxeko Monasterioa edo Iruñeko Gotorlekuko bost bastioiak.

XVI. mendearen bigarren zatian, platereskoa bilakatu egin zen eta euskal gotikoa deritzona eta errenazentista sortu zen. Adibide gisa, aipagarriak, Bergarako San Pedro eta Irungo Junkal. Iparraldean, gotikoa errenazentistarekin nahastuta mantendu zen,

jauregietan (Elizabea gaztelua) edo Zuberoako zenbait elizatako kanpandorre hirukoiztarretan -hiru erpinekoetan- (Goteinekkoa) edo Iruñeko Gotorlekuan ikus daitekeenez.

Arkitektura barrokoa eta neoklasikoa

XVII. mendez geroztik, XVII. mende bete-beteraino barrokoa da nagusi. Barrokoaren ezaugarri nagusiak lerro kurbatuak eta apaindura ugariak dira. Iruñea eta Baiona garai horretan urbanizatu ziren. Iparraldean berriazko estiloa sortu zen (adibidez, Donibane Lohizuneko nabe bakarra eta kanpandorre hirukoitza). Gipuzkoan, aipagarriak Loiolako Santutegi bikaina eta Donostiako Koruko Amaren eliza dira. Bilbon, Donibane eta Bariko San Nikolasen elizak. Araban, Aguraingo San Joan eliza, Gasteizko San Migel elizako eta Morelako Andre Mariaren elizako erretaulak. Nafarroan, Tuterako katedralako Santa Anaren kapera.

XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendean zehar forma klasikoetara itzuli zen eta funtzionaltasuna zen nagusi. Zenbait arkitekto hemendik ibili ziren eta aztarna garrantzitsuak utzi zituzten: Ventura Rodríguez (Noaingo akueduktua, Iruñeko katedralako fatxada) edo Silvestre Perez (Bermeoko Andre Maria, Donostiako, Durangoko edo Bermeoko udaletxeak).

XVII-XVIII. mendeetako urbanismoari dagokionez, kalitate handikoak dira hiriburuetakoa Plaza Berriak. Arkitektura neoklasikoaren lagin onak dira Gasteizko Plaza Berria -Justo Antonio Olagibelek egindakoa-, Diputazioko Jauregia, Arkupeak eta Espainiako Plazak osatzen duten multzoa;

Donostiako Diputazioko Jauregia eta Konstituzio Plaza; Bilboko Plaza Berria eta Gernikako Juntetxea; Iruñean, Andre Mariaren katedralaren fatxada eta Nafarroako Jauregia.

Gasteizko katedral gotikoa zaharberritzeko "Abierto por obras" izeneko programa erreferentzia izan da nazioartean, teknika abangoardistak erabiltzeagatik, bai zaharberritzean, bai bisiten egituraketan.

Loiola santutegia. Azkoitia (Gipuzkoa).



Konstituzioaren Plaza. Donostia.



XIX-XX. mendeak

Mende horietan, estilo asko bildu ziren; adibidez, **neogotikoa**: Gatikako Butroeko Gaztelua eta joera frantseseko Arteagako gaztelua, Antoine Abbadiaren gaztelua Hendaian edo Gasteizeko Katedral Berria.

Hainbat eraikin zibiletan **eklektizismoa** nabaritzen da, batzuetan Erdi Aroko joera berrituarekin Donostian, Udaletxea –lehen kasinoa zen–, Victoria Eugenia Antzokia, eta Maria Cristina

Frank O. Gehry-ren Guggenheim Museoa, Bilbok azken urteotan izan duen aldaketaren elementu sinboliko bihurtu da.



Hotela; Leioan Artaza Jauregia; Bilbon, Arriaga Antzokia, Udaletxea, Sociedad Bilbaina (1839), Foru-Jauregia eta Chavarri jauregia; Iruñean, Foruen Monumentua; eta Gasteizen, Arte Ederretako Museoa.

Korrante elitisteki jarraiki, XIX. mendean, hiriguneetako zabalgunek egin ziren. Geroago, urbanismo higienista sortuko zen; horren adibide dira, XX. mendearen lehen hamarkadan, Bilbon, Irala Barriko txalet merkeak eta Solokoetxeko etxe merkeak egin ziren.

XX. mendearen hasieran, “neovasco” izeneko bertako estiloa sortzeko saiakuntza egin zen; adierazgarriak dira Atxuriko Tren-geltokia edo Neguriko jauregitxoak. Garai horretako arkitekto esanguratsuenak, besteak beste, honako hauek dira: Manuel Smith, Pedro Guimón, Diego Bastera, Ricardo Bastida, Emiliano Amann edo Sekundino Zuazo.

Modernismoari dagokionez, lan-kopuru handirik ez dago, baina esanguratsuak dira, Portugalete eta Getxo batzen dituen eta 2006an Gizadiaren Ondare izendatu zuten Bizkaiko Zubia (Zubi Esekia) Alberto de Palaciok eraikitakoa; edo Konkordiako Tren-geltokia (Seberiano Achucarro, 1898), Campos Antzokia, denak Bilbon; edota Miarrizteko Udal Kasinoa (1901), art deco estilokoa.

1920–30 hamarkadetan, Le Corbusier-engandik deribatutako korrante arrazionalistak dira nagusi. Eraikuntza-material modernoak erabiltzen ohi zituzten, gizarte-premiei erantzuteko. Eraikuntza zibilen adibide asko daude: Pedro Ispizuak, Bilbon, Erriberako Merkaturia, eta Luis Briñas eskola egin zituen; Manuel Galindez-ek Bilboko “La Equitativa” egin zuen; Jose Manuel Aizpurua arkitektoak Donostiako Klub Nautikoa diseinatu zuen.

50eko hamarkadan, garrantzi historiko eta artistiko handia duen artelana eraikitzen hasi zen, hots: Arantzazuko Andre Mariaren Baseliza. Arkitektoa Francisco Javier Sainz de Oiza izan zen eta garaiko abangoardiako artistek parte hartu zuten, besteak beste, Oteitza eta Chillida, Lucio Muñoz eta Basterretxea; pentsaera tradizionaleko zenbaitzuek kritikatu egin zuten artiston lana. Horrela, amaiera duina eman zitzaion Gipuzkoako Patroiaren Baselizaren historia gorabeheratsuari.

Hirurogeiko hamarkadan, aipagarriak dira Peña Ganchegui-k Gasteizen egin zituen Foruen Plazaren eta San Frantziskoren elizaren proiektuak. Azken urteetan, oso esanguratsuak dira xede anitzeko eraikinak: Gasteizeko Europa jauregia, Bilboko Guggenheim Museoa –Frank O. Gehry-k egindakoa–; Donostiako Kursaal Erakusketa eta Batzarretarako Jauregia –Rafael Moneoren lana–, Bilboko Euskalduna Jauregia eta Iruñeko “El Baluarte” izeneko Batzarretarako Jauregia eta Auditorioa.

Donostiako Real Club Nautico, Jose Manuel Aizpuruaeren lana.



Arantzazuko santutegia (Gipuzkoa) Francisco J. Sainz de Oizarena.



Gasteizko Foruen Plaza, Luis Peña Gantxegirena.



Estilo desberdinekoak badira ere, “*El espíritu de la colmena*” eta “*Tasio*” euskal zinemaren mugarririk dira.



Alex de la Iglesia errodajejan.



7.1.4. Zinematografia–arteak

Euskal Herrian, erakusketa goiztiarrak egin ziren zinematografiaren aurreko tramankuluak erabiliz (linterna magikoa, kinetoskopia), eta horien ondoren zinema etorri zen (lehenbiziko erakustaldia 1896an egin zen). XX. mendearen hasieran, lokal egonkorrak ireki ziren. 1920ko hamarkadan, zinemak entretenimendu gisa izan zuen arrakasta izugarriaren ondorioz, zinema–aretoak ugaritu egin ziren.

Fikziorik ez zen grabatu 1923ra arte, **Alejandro Olabarriak** *Un drama en Bilbao*” izeneko filma zuzendu zuen arte, alegia. Baina, garai hartako ekoizpen garrantzitsuenak **Gil de Espinar**–en *Edurne modista de Bilbao* (1924) eta Victor eta Mauro Azcona barakaldarren *El Mayorazgo de Basterretxe* (1928) izan ziren.

30eko hamarkadako soinudun zinemaren ondorioz, ekoizpen espainiarra eta ia ezdeusa zen euskal ekoizpena suntsituta geratu ziren, eta, aldi berean, gaur egun ere mantentzen den Hollywood–eko ekoizpenen inbasioa etorri zen (merkatuaren % 65–75). Euskal produkzioari dagokionez, asteko edo bi astetik behingo albistegiak baino ez ziren egiten.

60ko hamarkadan, esperimentaltasunaren (Nestor Basterretxeak, Sistiagak edo Ruiz Balerdik arte plastikoak eta zinema fusionatu zituzten) eta memoria etnografikoa aldarrikatzearen eztanda izan zen. Geroago, Estatuko abangoardia izan ziren eta nazioartean prestigioa izan zuten frankismo berantiarreko zinemagileen belaunaldia sortu zen: **Elias Querejeta**, **Antonio Mercero**, **Eloy de la Iglesia**, **Pedro Olea**, **Ivan Zulueta**, **Antton Ezeiza**, **Victor Erice** –*El espíritu de la colmena* mitikoarekin– eta **Aguirre**... Urte esperimental horietan, erreferentzia oso garrantzitsua izan zen **Larruquert** eta **Nestor Basterretxearen** *Ama Lur* (1968) izeneko kalitatezko dokumentala.

Euskarazko zenbait filma ere egin ziren. Urte zizakatuak izan ziren, formatuei dagokionez (laburmetriak, luzemetriak edo dokumentalak egin ziren) eta politika–zinemari dagokionez (1979an, **Iñaki Nuñez**–ek *Estado de excepción* –Salbuespen egoera– eta **Imanol Urbek** *Proceso de Burgos* –Burgosko prozesua– filmak egin zituzten).

80ko hamarkadako euskal zinemagintzan gehien gogoratzen diren urteak dira. Aipagarriak dira **Imanol Urbere**n Segoviako ihesa eta Mikelen heriotza, **Montxo Armendarizen** *Tasio* eta Ericeren *El Sur*.

Euskarazko erdimetriaiekin edo thriller–ekin edota animazioarekin esperimentatu zen (hurrenez hurren, **Angel Lertxundiren** Hamaseigarrenean aidanez, **Ortuoste** eta **Rebolloren** *7 kale* eta **Juanba Berasategiren** *Kalabaza Tripontzia*). Aipagarriak dira, halaber, zenbait ekoizle (**Ángel Amigo**, **Txepe Lara** edo **Ibarretxe** anaiak) eta fotografia–zuzendari ere (**Javier Aguirresarobe**).

90eko hamarkadako zinemari dagokionez, kalitate handikoa da eta euskal zinemagintza sendotu egin zela esan daiteke. Izen berri eta anitzak sortu ziren **Alex de la Iglesia**, **Juanma Bajo Ulloa**, **Julio Medem**, **Enrique Urbizu**, **Daniel Calparsoro**, **Helena Taberna**, **Zabala** eta **Olasagasti**...

Oraintsuago, aipatutako zinemagileen lanaren jarraitutasuna egiaztatzen duten lan interesgarri eta anitzak daude (*La comunidad*, Alex de la Iglesiarena; *Caja 50* eta *La vida manca Urbizurenak*; *Silencio roto* eta *Obaba*, Armendarizenak; *Lucía y el sexo* eta *La pelota vasca*, Medemen dokumental ausarta). Aldi berean, zinemagile berriak (**Pablo Malo**...) eta kalitatezko laburmetriagileak (“**Tinieblas**” **Gonzalez**, **Kepa Sojo**, **Koldo Serra**, **Borja Cobeaga** edo **Nacho Vigalondo**...) ere sortu dira. Animazioari dagokionez, nolabaiteko euskal espezializazioa sortu da. 2005ean euskaraz egindako bi film aurkitu dira: *Aupa Etxebeste* **Asier Altuna** eta **Telmo Esnalena** eta *Kutxidazu bide* **Ixabel**, **Fernando Bernues** eta **Mireia Gabilondorena**, euskarazko luzemetria aitzindarietako bat izan zen 1989ko **Antton Ezeizaren** *Ke arteko eguna* testigantzaren ildoari jarraituz.

Euskal zinemaren arazoa ez datza kreaizaileengan, baizik eta euskal giza baliabide asko Madrilera lanera joatera behartu dituen egitura ekonomiko eskasean baizik. Hala ere ikus–entzunezko 70 enpresa baino gehiago daude.

1940–70 urteetan, zinera joatea gizarte–jarduera masiboa zen, baina 80ko eta 90eko hamarkadetan beherakada nabaritu zen; hala ere, azken urteetan suspertu egin da berriz ere. Euskadin, batez beste, pertsona bakoitzak 3 filma ikusten ditu urtean, Espainiako Estatuko hirugarren erkidegoa, Madril eta Kataluniaren ostean.

Bideoari eta DVD–ari dagokienez, erosketak eta bildumazaletasuna handiagotu egin dira, alokatzea mantendu egin da, DVD–a eta sarearen bidez eskuratzea izugarri igo dira, eta bideoa gutxitu egin da 1998az geroztik.

Euskal Filmategia

Euskal zinemaren eta “Donostiako Zinemaldiaren” memoria Euskal Filmategia fundazioan gordetzen da. Fundazioaren egoitza Donostian dago. 1978an sortu zen, Euskal Herriko ikus–entzunezko memoria gordetzeko. Filmategiaren eginkizunak honako hauek dira: zinema eta, batez ere, euskal zinema, aztertzeke interesgarriak izan daitezkeen pelikulak edo ikus–entzunezkoak (dokumentalak, fikzioa, zinemaren historiari buruzko dokumentuak) ikertzea, artxibatzea, kontserbatzea eta ematea, eta intereseke dokumentuak eta material teknikoak zaintzea. Hedapen–lanak ere egin ohi ditu.

7.2 Euskal literatura

Euskaraz zein erdaraz egindako euskal literatura dago.

7.2.1. Euskaraz egindako euskal literatura

XVI. mendera arte ez dago idatzizko literaturaren frogarik. Idatzizkoaren lekua ahozko literaturak bete zuen. Ahozko literatura, gaur egun ere, garrantzitsua da Euskal Herrian, batez ere, Pastoralaren, euskal herri-kanten eta bertsolaritzaren bidez.

Bertsolarien saioa.



Bertsolaritza

Bertsolaritza bertso eta hizketa bereziak erabilia egindako ahozko poesia da. Dirudienez, XV. mendean sortu zen. Ekitaldiak kantatuta egiten dira, adin guztietako jendearen aurrean. Etorria (bat-batean jarduteko gaitasuna) eta doinua ezinbestekoak dira. Bertsolariek unean uneko gizarte-ingurunearekin zerikusia duten gaiak hautatzen dituzte eta zentzudun bertsotan adierazi ohi dituzte.

XIX. mendeko bertsolaritza erabakigarria izan zen, zeren ahozko literaturaren altxor bihurtu baitzen. Foruak galtzea, gerra, herrimina eta maitasuna ziren, garai hartan, gai nagusiak. Bertsolari eta ahozko poeta garrantzitsuenak honako hauek dira: **Indalezio Bizkarrondo “Bilintx”**, **Jose Maria Iparragirre** (“Gernikako Arbola” euskal herri-ereserkia betikotu zuen koblakari eta bidaiari foruzalea), **Pierre Topet**, “**Etxahun**” eta “**Xenpelar**”.

Bigarren Karlistadaren eta bertsolaritza modernoaren hasiera (1876-1935) bitarteko trantsizio-aldiari Berpizkundea deitu ohi zaio. Denbora-aldi horretan, bertsolari garrantzitsuak sortu ziren: “**Udarregi**”, “**Txirrita**” edo “**Urretxindorra**” eta haien lekukoa hartu zutenak: “**Basarri**”, “**Uztapide**”, **Xalbador**, **Mattin** eta “**Lazkao Txiki**” (oso ospetsua izan zen bere gatz eta umoregatik).

Gaur egungo bertsolaritza hirurogeiko hamarkadaren azken urteetan hasi zen (gizarte-nahaste handiko garaia Euskadin). Bertsolaritza eta herri-kantak kultura eta askatasuna defendatzeko baliabide bihurtu ziren. Jon Lopategik eta Jon Azpillagak osatzen zuten bikotea garrantzitsua izan zen balio eta konpromiso politikoari dagokionez.

Garatzen diren gaiak, neurriak eta doinuak ugari direnez, poliki-poliki, arte kultu bihurtu da. **Xabier Amuriza** izan zen aitzindarietako bat. Horren ostean, **Sebastián Lizaso**, **Anjel Peñagarikano**, **Mikel Mendizabal**, **Jon Sarasua**, **Eguzkitze**, eta abar etorri ziren. Emakumeek gero eta gehiago parte hartzen dute; aipagarriena **Maialen Lujanbio** da, 2001eko txapelketan txapeldunorde izan zen. **Andoni Egaña** da gaur egungo txapelduna, eta poesia kultua, originala eta ironikoa egiten du.

Gaur egun, bertsolariek 1.200 bat ekitaldi egin ohi dituzte urtean. Bazkalosteko ekitaldi asko daude, baina garrantzitsuenak lehiaketak dira, ekitaldi nagusia 4 urtetik behin egiten den Euskal Herriko Txapelketa da. Gaur egun ehun bat “eskola” daude, ikastetxe eta herrietan (ia mila ikasle ari dira), eta aisialdiko zaletasuna izateaz gain, bertsolari berriak ateratzeko harrobia ere bada.

Gernikako Arbola ereserkia egin zuen Jose Maria Iparragirre koblakariaren erretratua. Gernika (Bizkaia).



Euskaraz idatzitako lehenbiziko liburua, Bernat D'Etexepare



Gabriel Aresti.



Bernardo Atxaga.



Idatzizko lehen literatura

Euskarazko ahozko tradizioa aberatsa bada ere, XVI. mendearen aurretiko idatzizko laginak bakanak dira. Mende horretakoak dira honako lagin hauek: **Joan Perez Lazarraga** noble arabarraren eskuizkribua (1564–1567. Bertsoak, kantuak, maitasun-gertaerak, artzain-istorioak, kontaketa mitologiko luze bat eta Agurainen deskribapenak dauzka); **Bernat Etexepareren** *Linguae Vasconum Primitiae* izeneko liburua (bertsotan idatzita dago eta Bordelen argitaratu zen 1545ean) eta **Joannes Leizarragak** 1560an itzulitako Testamentu Berria.

XVII. mendeko autore aipagarrienak “**Axular**” (*Gero* izeneko liburu bakarra idatzi zuen) eta, batez ere, **Arnaud Oiherart** (Maule, 1592) dira. Oiherartek, politikan aritzeaz gain, historia, poesia eta literatura landu zituen. Euskal literaturak eman dituen autore laiko urrietako bat da, eta Euskal Herri osoaren kontzientzia izan zuen lehenbizikoa da. Lanik garrantzitsuenak *Notitia utriusque vasconiae* da (1638). Halaber, poesia kultua ere idatzi zuen (O'ten gaztaroa neurtitzetan...).

XVIII. eta XIX. mendeko idazle esanguratsuenak honako hauek dira: **Manuel Larramendi** (Andoain, 1690). Besteak beste, *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*, idatzi zuen. Eta **Joan Antonio Mogel** (Eibar, 1745). *Peru Abarka* idatzi zuen, 1802an (ezin da esan zentzu hertsian nobela denik). XVII. Mendearen amaieran, **Peñafloridako Konde** ilustratuak ere zenbait pieza idatzi zituen euskaraz. Euskarazko lehenbiziko nobela, *Auñamendiko Lorea*, alegia, **Txomin Agirrek** idatzi zuen 1898an.

XX. mendeko poesia

XX. mendearen hasierako poesiari dagokionez, gai nagusiak baserria eta abertzaletasuna dira. 30. hamarkadan horretan poeta handiak daude eta poesia kultuagoa eta unibertsalagoa da.

Jose Ariztimuño “Aitzol” (Tolosa, 1896–Hernani, 1936). 1930ean, Euskal Bepizkundea zeritzon mugimenduaren oinarria izan zen Euskaltzaleak elkarreaz arduratu zen. Frankistek fusilatuta hil zen. **Jose Mari Agirre “Lizardi”** (Zarautz, 1896–Tolosa, 1933). Lirikaren maila gorena lortu zuen, poesia kultua eta herrikoia erabiliz.

Esteban Urkiaga “Lauaxeta” (Laukiz, 1905–Gasteiz, 1937). Poeta handienetako bat da. Inspirazio-iturri nagusia erromantizismoa eta sinbolismoa izan ziren. Poesia kultua, konplexua eta minoritaria egin zuen. Lauaxeta ere frankistek fusilatuta hil zen.

Nikolas Ormaetxea, “Orixe” (Orexa, 1888–Añorga, 1961). Eruditutzat jotzen da eta joera klasikoko estiloko idazlerik esanguratsuenetakoa da.

Gerraostean, aipagarrienak honako hauek dira: **Jon Mirande** (Paris, 1925–1972). Heterodoxoa zen eta poesia neorromantikoa egiten zuen zen, eta pentsamentuari dagokionez, desesperatua, faxista eta arrazistaz. **Gabriel Aresti** (Bilbo, 1933–1975). Eragin erabakigarria izan zuen euskal poesiaren bide berrietan. Sinbolismotik –*Maldan Behera*– poesia sozialera –*Harri eta herri*– (1964) pasatu zen.

Azken lan honek eragin erabakigarria izan zuen hainbat idazlerengan, besteak beste, Xabier Lete, Ibon Sarasola, Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionandia (Pot taldekoa), poeta eta narratzailea, gaur egun atzerriratuta dagoena. 70ko hamarkadan, poesia sozial eta militantarekin batera sinbolismoa landu zuten beste idazle batzuk ere badaude, besteak beste, **Joan Mari Lekuona**, **Bitoriano Gandiaga** eta **Arantxa Urretabizkaia**...

Nobela modernoa

Martin Ugalde (1921–2004). Atzerriko euskal idazleen ordezkaria izan zen. Ipuinak eta nobelak idatzi zituen, euskaraz zein erdaraz; halaber, *Sintesis de Historia del País Vasco* (1974) izeneko lana ere idatzi zuen. Euskaldun Unibertsalaren saria jaso zuen 2002an. 2003an, prozesatu egin zuten, agindu judizialaren bidez itxi zuten Euskaldunon Egunkariako zuzendari izateagatik.

Baina eraginik handiena izan zutenak honako hauek izan ziren: alde batetik, **José Luis Alvarez Enparantza, “Txillardegí”**, hizkuntzalari. Nobela europarra ezagutzen duten eta hainbat literatura-genero (poliziakoa, historikoa, autobiografiak...) ikertzen dituzten idazle gazte, unibertsitario, hiritarrei dagokien nobela modernoaren bidea hasi zuen. Eta, bestetik, Ramon Saizarbitoria (1944). Narrazio-teknikak berritzen saiatu zen, estiloari berari garrantzia emanez.

Laurogeita hamarreko hamarkadako urteak urrezkoak dira, euskal nobelari dagokionez. Lan asko argitaratu ziren eta zein baino zein originalagoak.

Aukera anitza bada ere, honako hauek aipatuko ditugu erreferentzia gisa:

- **Bernardo Atxaga:** *Obabakoak* (1988), *Gizona bere bakardadean* (1994), *Soinujolearen semea* (2004).
- **Anjel Lertxundi:** *Otto Pette* (1995), *Azkenaz beste* (1996), *Argizariaren eguna* (2001).
- **Ramon Saizarbitoria:** *Hamaika pauso* (1995), *Bihotz bi* (1996), *Gorde nazazu ñurpean* (2000).
- **Arantxa Urretabizkaia:** *Zergaitik pampox* (1979), *Koaderno gorria* (1998).
- **Koldo Izagirre.** *Poeta gisa Itxaso ahantzia* (1976) idatzi zuen, eta narratzaile gisa *Sua nahi, Mr. Churchill* (2005).
- **Mari Asun Landa:** besteak beste, *Galtzerdi suizida* idatzi zituen. Gazte eta haurren literaturako Sari Nazionala lortu zuen 2003an, *Krokodriloa ohe azpian* lanarekin.



Euskal Liburu eta Diskoen Azoka urtero egiten da abenduan Durangon (Bizkaia).

Behean: Toti Martínez de Lecea idazlea liburuak sinatzen.

Horiez gain, aipagarriak dira **Joan Mari Irigoien, Jean Louis Davant, Joan Kruz Igerabide, Inazio Mujika, Joxemari Iturralde, Gotzon Garate, Hasier Etxebarria, Txomin Peillen, Laura Mintegi edota Patxi Zabaleta**. Oraintsuago, belaunaldi berri polifazetikoagoa sortu da, sentikortasun narratibo eta poetiko berriekin (narrazioan: **Iban Zaldúa, Pako Aristi, Aingeru Epaltza, Joan Garzia, Lourdes Oñederra, Unai Elorriaga...** eta poesian: **Felipe Juaristi, Tere Irastorza, Harkaitz Cano, Karlos Linazasoro, Kirmen Uribe, Yolanda Arrieta...**).

7.2.2. Erdaraz (gaztelaniaz edo frantsesez) egindako literatura

Erdarazko euskal literaturaren parte garrantzitsu bat, literatura espainolaren eta frantsesaren historiaren bidez ezagutzen da.

Lehen literatura

la ez dago gaztelaniaz edo frantsesez egindako euskal literatura laiko goiztiarrik Salbuespena *La Araucana* izeneko epopeia, **Alonso Erzilla** noble bermeotarrarena. **Margarita Nafarroako** erreginak (1492–1549), frantsesez, berrehunetik gora ipuin eta maitasun–endredoei buruzko istorioak dauzkan liburua idatzi zuen: Heptameron–a, alegia. Boccacio–ren Decameron–ean inspiratuta dago.

Hazkunde–hasiera XVIII. mendearen amaieran izan zen, *Azkoitiko Zalduntxoak* deitzen ziren (“zalduntxoak” ezizena ezaugarri gisa hartu zuten, umore onez) euskal ilustratu polifazetikoan lanarekin: **Xabier Munibe** edo **Peñafloridako Kondea** –antzerki–lan txikiak, partiturak eta poemak idatzi zituen–, **Narrosko Markesa** eta **Manuel Altuna**. Literatoak baino gehiago, saiogileak ziren. Felix Samaniego (1745–1801), Peñafloridako Kondearen iloba, ospetsua zen, elezahar moralizatzaileei esker (erotikoren bat ere badago).

Agustin Xaho (1810–1858) Atharratzen jaio zen, eta kazetaria, historialaria eta hizkuntzalaria izan zen. Idazle erromantikoa, konspiratzailea eta abenturazalea zen. Zazpiak Bat, euskal zazpi lurraldeen batasuna nahi duen lehen aitazindari bihurtu zen eta euskaldunen jatorriari buruzko Aitorren mitoa ere asmatu zuen. Joera errepublikanoa zuen Ariel egunkaria sortu zuen. Halaber, *Histoire primitive des Euskariens*, zenbait nobela eta hiztegia ere egin zituen.

XIX. mendean, kostunbrismoa zen nagusi eta XIX. mendearen amaierara eta XX. mendearen hasierara arte ez zen literatura eta saiogintza unibertsaleko idazle ospetsurik sortu.

XX. mendea

Miguel de Unamuno. Bilbon jaio zen (1864–1936), eta poemak, saiokak eta nobelak (*Niebla, La tía Tula*) idatzi zituen idazle berritzailea da.

Miguel de Unamunoren erretratua.




Pío Baroja.



Gabriel Celaya (ezkerrean), bere emaztea Amparixu eta Blas de Otero.



Ramiro Pinilla "Verdes valles, colinas rojas" lanean euskal historia modernoaren ibilbidea egin zuen familia-leinuen bidez.



Filosofo ospetsua eta 98ko belaunaldiaren buru izan zen (*Del sentimiento trágico de la vida, La agonía del cristianismo, Vida de Don Quijote y Sancho...*), eta, horrez gain, zutabegile eta polemista bikaina ere bazen. Euskara ondo ezagutzen zuen, eta hizkuntza hila bihurtuko zela uste zuen. Bere garaiko gertakizun askotan parte hartu zuen, batzuetan jarrera kontraesankorra bazuen ere. Sozialista eta antinazionalista zen, ez zuen frankisten Altxamendu Nazionalaren aurkako jarrera hartu, baina, laster, uko egin zion erregimenari, errepresioa zegoela eta ideiak mesprezatu egiten zirela ikusita.

Pío Baroja. Donostian jaio zen (1872–1956). Nobelen, paisaien eta istorioen narratzaile emankor eta bikaina zen, eta eragin handia izan zuen euskal gaiei (*La casa de Aitzgorri, Las aventuras de Shanti Andia...*), karlistadei (*Las memorias de un hombre de acción*), hirietako bizimodu latzari (*La busca*) edo gai orokorrei (*El árbol de la ciencia*) buruzko narratiba espainolean.

50–70ko hamarkadetan, euskal literaturan eta literatura espainolean eraginik handiena izan zuten idazleak honako hauek izan ziren: **Gabriel Celaya** (Hernani, 1911– Madril, 1991). Poesia soziala eta eguneroko bizitzari buruzkoa egin zuen (*La soledad cerrada, Las cosas como son...*) eta **Blas de Otero** (Bilbo, 1917–Madril, 1979). *Ángel fieramente humano* edo *Pido la paz y la palabra* idatzi zituen.

Angela Figuera (Bilbo, 1902– Madril, 1984). Poesia sentsuala eta soziala idatzi zuen; besteak beste, *Mujer de barro* edo *Vencida por el ángel*. **Juan Larrea** (Bilbo, 1895–Argentina, 1980). Picassoren laguna zen. Oscuro dominio (1935) poema–bilduma eta *Visión celeste* idatzi zituen.

Nobelari dagokionez, aipagarriak dira **J. A. Zunzunegui**, Real Academia de la Lengua Españolako kidea (*El barco de la muerte*), **Luis Martín Santos** (*Tiempo de silencio*) edo **Ignacio Aldecoa** (1925–1969) gasteiztarra. *El fulgor y la sangre*, eta *Con el viento solano* nobelak idatzi zituen –azken honen filma egin zen–.

Madrilen jaio zen arren, **Alfonso Sastre** (1926) euskal herritarra da adopzioz. Konpromiso sakona hartu du Euskal Herriarekiko, **Jose Bergamin** polifazetikoak bere bizitzako azken urteetan egin zuen bezala. Antzerkia albo batera utzita. Antzerkia deritzon kapituluak–Sastrek ikuspuntu ezkertiarreko zenbait saio idatzi zituen (*Manifiesto contra el pensamiento débil, Los intelectuales y la utopía...*). Halaber, **Marc Légasseren**, (*Gaztibeltzaren Karabinak*) laguna izan zen.

1920ko hamarkadan jaiotakoak dira: **Ramiro Pinilla** –*Las ciegas hormigas*–. *Oraintsu, Verdes valles, colinas rojas*, berrargitaratu du eta Narratiba Sari Nazionala lortu zuen 2005ean, **Pablo Antoñana** nafarra edota **Elías Amézaga** edota **Jose Miguel de Azaola**. 30–40ko hamarkadetan jaiotakoei dagokionez, esanguratsuenak honako hauek dira: **Raul Guerra Garrido**. Nadal Saria irabazi zuen 1976an, *Lectura insólita de "El capital"* lanarekin; **Luciano Rincón** (1932–1993). Kazetaria eta saiogilea zen, *Francisco Franco, historia de un mesianismo* idatzi zuen (Ruedo ibérico–k argitaratutakoa, 1964an).

Literatura berria

Nobelagileei dagokionez, garrantzitsuena **Lucía Etxebarria** (Bermeo 1966) da. Literatura freskoa eta limuria egiten du, eta 2004an, Nadal Saria irabazi zuen *Beatriz y los cuerpos celestes* lanarekin. Nafarroan, aipagarriena **Miguel Sánchez Ostiz** da. Un infierno en el jardín eta *El pasaje de la luna* nobelak eta Derrotero de Baroja saioa idatzi ditu.

Halaber, autore ospetsuak dira Juan Bas, **Fernando Aramburu** (*Los peces de la amargura*, ETArek biktimei buruzkoa) **Juan Manuel de Prada**, **Pedro Ugarte**, **Fernando Marías**, **Espido Freire**, **Lopez Hidalgo** eta **Jose Javier Abasolo**. Bestalde, aipagarriak dira **Toti Martínez de Lecea** –arrakasta lortu du nobela historikoarekin– eta **Seve Calleja** –gazteentzako narrazioa–. Poesiari dagokionez, **Julia Otxoa**, **Jon Juaristi** edo **Carlos Aurteneche** aipatu behar dira.

Frantsesez idazten dutenei dagokionez, aipagarrienak honako hauek dira: **Florence Delay** (*Etxemendi*), eta euskaraz eta frantsesez idazten duen idazle bakanetakoa **Itxaro Borda**.

Euskal merkatua txikia da, baina liburuak kontsumitzen dituen publiko garrantzitsua dago. Biztanleen erdiak baino gehiagok irakurtzeko ohitura du.

Kalkuluen arabera, ehun baino gehiago dira euskal argitaratze–enpresak. Euskadiko merkatuaren % 30a hartzen dute –parte handi bat euskarazko liburuak eta testuliburuak dira–, gainerakoa kanpoko edizioen esku dago, batez ere Katalunia eta Madrilekoen esku. 2005ean, 3.515 izenburu argitaratu ziren –8 milioi ale– eta 86,2 milioi euro fakturatu ziren, Euskadiko Editoreen Gremioaren arabera. 1982an 338 titulu argitaratu ziren, eta 2005ean argitaratutakoak 1.616 (guztizkoaren % 46) izan ziren (3,4 milioi ale); beraz, 20 urtean, jauzi kualitatiboa egin da.

Eusko Jaurlaritzak euskarazko liburuen argitalpena sustatzen du, eta liburuak argitaratzeko diru–laguntza handiak eman ditu. Nafarroan, 2005ean, 1.020 titulu argitaratu ziren, INEren arabera.

7.3. Arte eszenikoak eta musika-arteak

7.3.1. Antzerkia

Pastorala herri-antzerkia da. Berariaz, Iparraldean sortu eta antzezten da. Erdi Aroko antzerkian du jatorria, baina lehenbiziko partiturak XVIII. mendekoak dira. Errepertorio historikoa ehun bat alekoa da. Pertsonaiak onak eta gaiztoak ziren eta Bibliari edo Frantziaren historiari buruzko gaiak tratatzen ziren.

Pastoral modernoak aire zabalean antzezten da eta herri-arrakasta handia du-1950ean **Piarres Bordazarrek** (Etxahunekoa) gai berriak sartu zituen-. Emakumeek ere parte hartzen dute, euskal inguruari buruzko libreto berriak lantzen dira, gertakizunen edo pertsonaien istorioak kontatzen dira, koruak eta orfeoia daude, errituala izaten jarraitzen du eta, urtero, dagokion Zuberoako herri jakin batek prestatu eta antzezten du pastorala. Beste autore ospetsu batzuk **Junes Casenave** eta **Jean Louis Davant** dira.

Gero eta herri-antzerki mota gehiago egin ohi dira eta arrakasta dute. Lekeition, Bergaran eta Arrasaten herri-antzerkia egin ohi da, eta, oraintsuago, Mungian, 200 lagunek baino gehiagok parte hartuz, Laua-xetari buruzko pieza bat egin zuten.

Arriaga antzokia. Bilbo.

Euskarazko antzerki konbentzionala **Pedro Barrutiarekin** (*Aramaio*, 1682-1759) eta bere *Gabonetako Ikuskizuna* deritzon antzinako Misterioen antzerkin hasi zen. 1876an, Marcelino Soroa donostiarraren *Iriyarena* zarzuela elebiduna antzeztu zen Miarritzen, eta bi urte geroago Donostian.

XX. mendearen hasieran, **Toribio Alzaga** (*Ramuntxo, Oleskari berriya...*), **Abelino Barriola** eta **Katalina Eleizegiren** (1889-1963) lanak dira aipagarrienak. Gerraosteko euskarazko antzerkiari dagokionez, esanguratsuenak honako hauek dira: **Antonio M^a Labaien** eta **Piarres Larzabal**, frankismoan errefuxiatuei laguntzeagatik ospetsua zen Iparraldeko Soko herriko erretorea eta Matalas heroiari buruzko lana idatzi zuena. Oraintsuago, esanguratsuenak **Daniel Landart** da. Arestik eta Atxagak ere antzerki-lanak idatzi zituzten.

Gaztelaniaz, aurrekariak Erdi Aroko herri-antzerkia (*Misterio de Obanos*), eta **Muniberen fartsak** (*El Borracho Burlado*) dira, hala ere, esanguratsuenak, **Alfonso Sastre** da. Sastre euskal literaturak eta literatura espainolak eman duten dramaturgorik nazioartekoena da (*Escuadra hacia la muerte, La mordaza* edo *La taberna fantástica*). Hurrengo belaunaldian, garrantzitsuenak honako hauek dira: gaztelaniaz, **David Barbero**, **Rafael Mendizabal** eta **Ignacio Amestoy** eta euskaraz, **Xabier Mendiguren Elizegi**, **Antton Luku**...

Euskal antzerkiaren berrikuntza zenbait talderen eskutik etorri zen: Jarrai (1960-65), **Txinpartak**, **Akelarre** edo **Cómicos de la Legua**. Geroago, abangoardia hasi zen Akelarre taldearen *Irrintzi* (1977) ikuskizunarekin eta beste zenbait talderekin: **Denok**, **Orain**, **Bekereke** eta **El Lebril Blanco** (Nafarroa).

80ko hamarkadako erdialdean, **Maskarada**, **Karraka** eta **Kukubiltxo** (txotxongiloak eta umeentzako antzerkia) taldeek Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra osatu zuten; horien ondoren, Geroa taldea eta Hazparneko "*Galarrotzak*" jaialdia egiten zuten beste zenbait talde amateur etorri ziren. Gaur egun, talde garrantzitsuenak **Ur** (**Helena Pimentarena**), **Markeline**, **Trapu Zaharra**, **Hika**, eta **Ttanttaka** (*El Florido Pensil*). Talde berak euskarazko zein erdarazko bertsoak egin ohi dituzte. Iruñean, Nafarroako Antzerki Eskola sortu zen, eta bertatik sortu ziren, besteak beste, **Teatro Estable de Navarra**, **Pinpilinpauza**... Iparraldean, **Théâtre Des Chimères** talde profesionalak, frantsesezko antzerkia egiten du.

Gaur egun, arestian baino lokal gehiago daude, jende gehiago joaten da antzerkia ikustera eta antzerki-emanaldi gehiago daude. Euskadin 50 antzokia daude, eta horietako 20k erregulartasunez funtzionatzen dute. Ikuskizunari berari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da Euskal Antzerki Sarea sendotzea -sarean, dagoeneko, 36 antzoki konektatuta daude- eta euskal arteak nazioartean hedatzea. Artez aldizkarian, programazioak, kritikak eta eszena-emanaldiak aztertzen dira. Dagoeneko desagertu den *Hau komeria* izeneko EITB-ren programak, aldi batean, arreta kulturala erakartzeko lana egin zuen.

Zuberoako pastorala.



Ur antzerki-taldea.



Juan Crisóstomo Arriaga.



Julian Gayarrereren mausoleoa. Erronkari (Nafarroa).



Donostiako Orfeoia La Fura dels Bausek Salzburgeko jaialdian egin zuen "Fausto" muntaiain.



7.3.2. Musika

Euskaldunek, antzinatek, gustuko izan dute musika, kantatua zein instrumentala. Bazkaltzeko batzen diren hiru euskaldunek koroa osatzen dutela esan ohi da. Izan ere, koroen herri-tradizio handia dago, eta, gaur egun beharokada badago ere, Iparraldean 80 koro baino gehiago daude.

Halaber, erromanizazioan ere musikaren jarraipenaren lekukoak daude, eta Erdia Aroko kanta (*Beotibarko Bataila*, *Bereterretxeko kanta*, *Lelo il Lelo...*) eta erez asko daude. Errenazimentuan, kantak mantendu egin ziren (*Olaso*, *Jauregiko Kantutegia...*) eta musika polifonikoa sortu zen (**Joannes Anchieta** -1462-1523-). Barrokoan, musika-kapera eta organo-maisu asko zeuden, eta, halaber, bilantzikoak, koplak eta pastoralak ere egin ohi ziren.

XIX. mendea, eta, batez ere, Erromantizismoa, garai bikaina izan zen. Sasoi horretan esanguratsuenak **Juan Krisostomo Arriaga** bilbotarra -gazte hil zen eta euskal Mozart-a deitu ohi zitzaion, besteak beste, bere re tonuko Sinfonia edo Esklabu zoriontsuak lanengatik- edo **Hilarion Eslava** (konpositore eta pedagogo), **Pablo Sarasate** (biolinista) edo **Julian Gayarre** (tenorea) nafarrak. **Pascual Emilio Arrietak** (nafarra hau ere) opera bat (Ildegonda) eta zartzuela arrakastatsuek (*Marina* -gero opera bihurtu zen- eta *El dominó azul*) konposatu zituen. Herri-musikak (txistulariak, orfeoak, koroak, musika-bandak, pastoralak edo bertsolariak) ere goraldia izan zuen eta hiriburu guztietan kontserbatorio, orkestra sinfoniko, orfeoi eta elkarte filarmoniko ugari sortu ziren.

XX. mendeari dagokionez, nazioartean ospea lortu zuten bi konpositore dira nagusi: **Maurice Ravel** (1875-1937) -Lapurdikoa Ziburu herrian jaioa-: *Pabana hildako infantarentzat*, Piano-kontzertuak, operak, baletak, eta Bolero ospetsua konposatu zituen. Eta musika-nazionalismoaren prototipoa zen **Jesus Guridi** arabarra (*El caserío*, *Diez melodías vascas...*). Horiez gain, garai hartan, musikaren berpizkundea izan zen, zenbait konpositore bikainen eskutik, besteak beste: Jose Maria Usandizaga, **Francisco Madina**, **Tomas Garbizu**, **Tomas Aragües**, **Jesus Arambarri**, **Luis Aramburu**, **Pablo Sorozabal** neorromantikoa, edota **Aita Donostia** inpresionista.

Ez dago euskal opera askorik. Lehenbizikoa (*Pudente*) da, **Santesteban**-en musikarekin eta **Serafin Barojaren** libretoarekin, Donostian estreinatu zen 1884an. Azken urteetan, zenbait opera berrestreinatu dira: *Mendi-mediyan* Usandizagarena, *Mirentxu eta Amaya* Jesús Guridirenak eta *Larraldeko Lorea* Aita Donostiarena Halaber, **Francisco Escudero** maisuaren *Zigor* (1963) edo *Gernika* (1986) operak estreinatu dira. Escudero-k lan oparo eta bikaina egin du, berrikuntza musikalaren eta abangoardismoaren artean, genero guztiak ukituz.

Musika klasiko garaikideari dagokionez, besteak beste, esanguratsuenak **Karmelo Bernaola**, **Luis de Pablo** eta **Anton Larrauri** dira. Oraintsuago, esanguratsuek dira **Felix Ibarrodo**, **Ramón Lazkano** edo **Gabriel Erkoreka**. Zinemarako musika egin duten maisuak ere badaude: **Alberto Iglesias** (Oskar sarietarako izendatuta egon zen *The Constant Gardener* eta *The Kite Runner* filmen soinu-banda egiteagatik), **Angel Illarramendi** eta **Bingen Mendizabal**.

Mundu osoan zehar kontzertuak eman dituzten musika-joleei dagokionez, aipagarrienak **Nicanor Zabaleta** donostiarra (1907-1993) harpa-jolea, **Joaquin Achucarro** pianista bilbotarra, **Asier Polo** biolontxelo-jolea eta **Felix Ayo** biolinista dira. Halaber, txistulari bikainak ere badira, besteak beste, aipagarriena **Jose Inazio Ansorena** polifazetikoa, (musikaria, aktorea eta pailazoa) txistularien ahaidekoa. **Luis Mariano** (1920-70) kantari irundarra (operetak eta errebistak) oso ospetsua izan zen. Kantu lirikoari dagokionez, aipagarrienak **Maria Bayo** nafarra eta **Ainhoa Arteta** gipuzkoarra dira.

Tradizioak, instituzioak eta memoria

Instrumenturik adierazgarrienak, denak antzinako jatorrikoak, txistua, danbolina, dultzaina, txalaparta -gaur egun espresio-berrikuntza bete-betean dago- eta alboka dira. Trikitixa, akordeoi diakronikoa txikia eta ospetsua, ordea, XIX. mendearen amaieran sartu zen Euskal Herrian.

Tradizioari dagokionez, aipagarriak dira, halaber, Nafarroako jotak -gastelaniaz kantatzen diren lauko txikian egindako poemak dira- eta aurorak -"aurorok" kantatzen dituzte, jai nagusien bezperetan-. Aspalditik, Tafallan, "Concurso de finalistas de jota" deritzon lehiaketa egin ohi da. Jotari berritzaile eta ospetsuena **Raimundo Lanas** da.

Torkestrei dagokionez, aipagarrienak Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS), Bilboko Orkestra Sinfonikoa (BOS) -1922an sortu zen- eta Iruñeko Pablo Sarasate Orkestra dira. Orkestrok ekitaldi-programa betea dute. Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO), 1997an sortu zen eta urtean bi aldiz jotzen du. Bilbon, Akordeoien Orkestra Sinfonikoa dago (30), Amagoia Loroñok zuzendutakoa. Orfeoiei dagokionez, Donostiako Orfeoia da nazioartean ezagunena. Halaber, tradizio handia dute Bilboko Koral Elkarteak, OLBEko Koroak, Errenteriako Andre Mari Abesbatza, Easo Abesbatza, eta Nafarroan, Iruñako Orfeoia eta Ganbera Korala.

OLBE (Opera Lagunen Bilboko Elkarte) operari dagokion programazioaz arduratzen da eta Donostiako Musikene gaimailako kontserbatorioa da. Eresbil fundazio publikoa euskal soinu-memoriari arduratzen da. Soinu-materialak gordetzen ditu (kantak, testuak, partiturak, etab.). Errenterian du egoitza eta Musika eta Euskal Musikaren Artxibategia da. 100 funts baino gehiago dauzka eta ia 1.550 konpositore euskal herritar daude erregistratuta. Lege-gordailuaren kopia ere bertan gordetzen da.

Herri-musika garaikidea

Pasa den mendeko 60ko hamarkadako herri-musikaren eklosioaren aitzindaria "Ez dok amairu" (Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Joxean Artze, Lourdes Iriondo, J. A. Irigarai eta Xabier Lete). Herri-kultura, masa-kultura eta aldarrikapenak uztartu egin zituzten eta tradiziozko musika folklorikoa baztertu egin zuten. **Oskorri** taldea garai berekoa da. Aipatutako musikari horietako batzuek, gaur egun ere, lanean dihardute.



Herri-musika, batez ere, euskaraz egin izan da. 70ko hamarkadako kantautore (Imanol Larzabalsamintasunez oroitua, **Antton Valverde, Urko, Gorka Knörr, Estitxu...**), herri-musika (**Urretxindorra, Oskarbi, Pantxo eta Peio, Haizea...**) eta folkaren eta rockaren (Niko Etxart) ostean, 80ko eta 90eko hamarkadetan, rock erradikala etorri zen (**Hertzainak, Kortatu, Negu Gorriak, Su ta Gar...**). Horiez gain, mota guztietako musika (hard-rocka, jazz, reggae-a, hip-hop-a...) jotzen duten beste hainbat eta hainbat talde sortu dira.

Talde mitikoak egon dira: **Itoiz** (Juan Karlos Perez) edo **Errobi** (Anje Duhalde eta Mixel Ducau). Gaur egun, honako hauek bereiztu dira: **Kepa Junkera** trikitilari berritzailea, **Pier Paul Berzaitz** zuberotarra, zenbait musikari eta kantautore: **Ruper Ordorika, Jabier Muguruza, Gontzal Mendibil...** Denek gizarte-eragin handia izan dute irudikapen kolektiboan. Gaur, sentsibilitate berria duen belaunaldi berri batek dihardu: **Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren, Rafa Rueda...**

Gaztelaniaz, zenbait taldek pisu handia izan dute Espainian eta Latinoamerikan: **Mocedades, Barrikada, Orquesta Mondragón** (Javier Gurruchaga), **Duncan Dhu** (Mikel Erentxun), edota **La Oreja de Van Gogh, Fito** eta **Alex Ubago**.

Diskoaren industrian, Euskal Herri osoan pare bat dozena etxek dihardute eta 200 bat titulu ekoizten dituzte. Zineman gertatzen ez den bezala, bertako musika-aren kontsumo-kuota garrantzitsu samarra da euskal merkatuan -merkatuaren % 3-5a da, eta gehiena euskarazkoa-.

Lehentasunei dagokienez, SGAE-ren 2003ko txostenaren arabera, Espainiako batez bestekoarenaren desberdinak dira eta, generoei dagokienez, gauza bera gertatzen da -folk, new age, heavy, latinoa-. CD-ak edo kasete-zintak erosteko eta etxean entzuteko ohiturei dagokienez ere, Espainiako batez bestekoaren gainetik daude.

Herri-musikako eta pop-rock-eko diskografia-sektoreentzako laguntzak bideratzen hasi dura (azokak, katalogoak, Euskadiko Soinuak izeneko markarekin hautatutako CD-en urteroko edizioak).

Mikel Laboa, 2008an hil dena, euskal musika garaikidearen sinboloetako bat izan da. Beste musikari batzuekin batera "Ez dok hamairu" taldea fundatu zuen.

Oskorri.



Kortaturen diskoaren azala. Kortatu euskal rock erradikaleko talde garrantzitsuenetakoa da.



Kepa Junkera trikitilaria.



Maskarada Zuberoan.



Larrain dantza.



La Fundacion, dantza garaikideko zentroa. Bilbo.



Euskal herritarrek, antzinatek, gustuko dute dantza, bai herri-dantza, zein dantza artistikoa. Voltaire-k Contes Philosophiques izeneko lanean, honako hau zioen euskal herritarrei buruz: “Pirinioen oinetan bizi dira edo, hobeto esanda, jauzi egiten dute”.

Eta adierazpen hori zuzena da, zeren, jauzia (airean geldituta dantzatzeko indarrez egindakoa) euskal dantzaren alderdi garrantzitsua baita. Estilo horren ondorioz, dantza klasikoaren errepertorioko bi pauso sortu dira: saut basque eta pas de basque deritzenak.

Hona hemen, dantza ezagunenetako eta ospetsuenetako batzuk:

- Aurrekua: Gipuzkoan eta Bizkaian dantzarik ospetsuena eta dotoreena da. Pertsona eta pertsonaia garrantzitsuen omenez dantzatu ohi da.
- Baztango bailarako Mutildantza: jatorrian, mutilek baino ez zuten dantzatzeko.
- Zuberoako Maskarada: izen hori erabili ohi diren inauterietako elementuen ondoriozko da.
- Ezpata-dantza: oso ikusgarria da, zeren konpasa etengabe aldatzen baita eta ezpatak erabiltzen baitira.
- Larrain-dantza.

Europa osoan bezala, Euskal herrian hiru dantza-modalitate daude: tradizionala, klasikoa eta garaikidea.

Tradizionala.

Jatorriz, ospakizunekin (giza bizitzako zikloak: jaiotza, gaztaroa, ezkontza...) edo naturaren ziklo ekonomiko eta naturalekin lotuta dago; izan ere, urte-sasoi bakoitzaren arabera jaialdiak egin ohi dira.

Dantzen errepertorioa ehunka dantzez osatuta dago, batzuk zehazki bereiztuta daude eta beste batzuk lekuko aldaerak dira. Dantza-taldeen sare zabala -herri gehienetan, euskal dantza lantzen duten dantza-taldeak daude, eta ekitaldiak egin ohi dituzte herriko edo eskualdeko publikoarentzat- eta dantza-eskola ez-arautuak daude. Herriko jendeak oso gustuko ditu herri-dantza eta dantza tradizionala, eta osagai garrantzitsua dira herrietako jaietan. Edozein omenalditan, ezinbestekoa izan ohi da, txistularien laguntzarekin ohorezko aurrekua interpretatzen duen dantzaria.

Dantza batzuk edo noiz edo noizein urte-sasoitan dantzatzeko dira: aurrekua, mutil-dantza, jota zaharra... eta beste dantza batzuk, ordea, egun, gertakizun edo sasoi jakin batzuetan dantzatu ohi dira (Altsasuko zortzikoa, otsailaren 5ean; Lekeitioko kaxarranka edo dantza plazan, Gasteizen, udaberriko eta udako larunbat guztietan). Halaber, ordenarik gabe dantzatu ohi diren dantza masiboak ere badaude (kalejirak, biribiletak, porrusaldak, jotak...); beste batzuk taldean antolatzen dira (makila-dantza, ezpata-dantza), beste zenbait, berariaz, gizonezkoenak (mutil-dantza -gaur, emakumeek ere dantzatzeko dute-, zortzikoak) edo emakumeenak (sagar dantza, neska dantza...) dira; gizonezko eta emakume aritzen direnak ere badaude (jotak, ingurutxoak, Altsasuko zortzikoa...).

Euskal Herriko dantza-talde gehienak Euskal Dantzarien Biltzarreko kideak dira. Erakunde horrek, besteak beste, urtero Dantzari Eguna antolatzen du. Urtero nazioarteko folkloerari buruzko jaialdiak egin ohi dira, Portugaleten eta Gasteizen.

Dantza klasikoa

Hain ospetsua ez bada ere, dantza klasikoa ere onetsi samarra da. Dantza klasikoko maisurik garrantzitsuenak **Jon Beitia** da. Herri-dantzen errepertorioa aberatsa eta aztertua bada ere, dantza klasikoari edo profesionalari dagokionez, ez dago, euskal dantza tradizionalan oinarrituta, ekarpen interesgarriak egin duen koreografo eta ikertzaile askorik, honako hauek salbu: **Segundo Arteta** (lehen) eta **Bittor Olaeta** eta Juan Antonio Urbeltz (geroago).

Dantza garaikidea

Badira esperientzia profesional (**Damian Muñoz**-ena, kasu) edo erdiprofesional batzuk. Aipagarria da **La Fundacion** programazio-areto eta erakunde antolatzailea (besteak beste, Bilboko Dantzaldia antolatzen du).

Euskal Herriko hainbat dantzari, nazioarteko konpainietan ari dira, hots: **Igor Yerba** (konpainiarik garrantzitsuenek gonbidatu ohi dute), **Lucía Lakarra** (Municheko Operako Baletoko lehen dantzaria), **Asier Uriagereka** (Monte-Carloko baletoko lehen dantzaria).

Euskal Herrian goi-mailako dantza-konpainia profesional bakarra dago: **Biarritzeko Baleta**. 1988an sortu zen eta Biarritzeko Erdialdeko Geltoki zaharrean du egoitza. Zuzendaria **Thierry Malandain** koreografoa da. Baletak 15 dantzari profesional dauzka.

Euskadiko hiru hiriburuetan, dantza arautuaren lehen mailako heziketa eman ohi da, eta Gasteizko Kontserbatorioan, erdi-mailako prestakuntza ere eman ohi da. Nafarroak bere Dantza Eskola dauka, oinarritzko zikloa eta ziklo ertaina dituen.

7.4. Kultura digitala eta multimedia

Digitalizatzea informazioarekin (biltegiatzearekin, igortzeko erekin, deskodetzearekin eta erabilerarekin) lotutako aldaketa teknologikoaren ondoriozko fenomeno orokorra da, eta, dirudenez, aldaketak eragingo ditu gizarte-ohituretan eta eredu ekonomikoetan. Euskadin, ahalegin handia egin da teknologian eta ekipamenduetan, baina, oraindik ez dugu lortu garai digitaleko edukiei eta arteari dagokionez, behar adina aurre egitea.

Kulturari berari dagokionez, zenbait maila bereiztu behar dira: ondareak eta kreaioak digitalizatu egin behar dira, kontserbazioa eta erabilera ziurtatzeko, ondare horren garapena sustatzeko, eta arte-espresioa sortzeko (multimedia, art net...).

Lehen mailari, hau da, ondareak digitalizatzeari dagokionez, instituzio guztiak digitalizatzeko ahalegin handia eta zorrotza egiten ari dira, zenbait eduki digitalizatuak erabiltzeko sarbidea eskainiz (liburutegi digitala, artxibategiak, egunkariak - www.euskadi.net/liburutegidigitala-) eta ekimen ugari burutuz (Eusko Legebiltzarra, diputazioak, Eresbil, EITB, Susa, Euskaltzaindia, Euskadiko Filmmategia...). Zenbait erakunde lan horietan espezializatuta daude, hots: Euskomedia, Elhuyar, Vicomtech (Gaia-rekin lotutako enpresak dira).

Bigarren mailari, hau da, erabilerari eta garapenari dagokionez, kultura-eduki digitalak gero eta gehiago erabili ohi dira, kultura ekoizteko eta hedatzeko, erdarazko zein euskarazko kultura-edukietan -interesgarria izango litzateke, Interneten "eus" domeinua sortzea-. Alderdi horiek funtsezkoak dira, klonazio kulturala saihesteko eta epe ertainean merkatuak sortzeko.

Hirugarren mailari, hau da, berariazko kreaio-jarduerari, dagokionez, artean edo komunikazio digitaletan diharduten kreaiozaleekin batera (arte elektronikoa, net-art...), multimedia dago. Hastapenetan dagoenez, merkatuak, gaur egun, ezin du kulturari dagokion multimedia dinamizatu, eta horrek ekimen publikoa -hezkuntzak edo hizkuntza politikak egindako enkarguak, kreaioak, ondarea multimediaren bidez islatzea...- eta merkatua sortzeko jarduerak eskatzen ditu.

7.5. Artisautzak

Eskulanarekin, artearekin eta memoriarekin zerikusia duen euskal artisautzan, artzainen eta nekazarien munduarekin lotutako gauzak egin ohi dira. Artzainek, lanerako zurezko tresnak egin ohi zituzten: makila, uztaiak, askak edo gazta egiteko kaikuak. Baina, eboluzio orokorraren, eta, batez ere, nekazaritzaren

eboluzioaren ondorioz, artisau batzuk besteentzako gauzak egiten espezializatu ziren, eta ondasunen edo diruaren truke saltzen zituzten.

Artisauak zurezko eta burdinazko nekazaritza-lanabesak (gurdiak, uztarriak, goldeak, aitzurrak...) eta zurezko tresnak (kutxak, mahaiak...) fabrikatzen zituzten. Larrua erabiliz, besteak beste, oinetakoak (abarkak), uhalak, zahatoak eta pilotak egin ohi zituzten. Ez ditugu ahaztu behar saskigintza, amuak, sareak eta sare-aparailuak, zeramika (tornuaren erabilerarekin nabarmen garatu zen), ehunezko materialak (abarketak), musika-tresnak (txirulak, txistuak, dultzainak, txalapartak, panderoak...) eta dekorazio-arteen deribatuak (bitxiak, damaskinatua, zaharberritzea...).

Gaur egun, euskal artisautzan edozein motatako materialak erabili ohi dira (harria, buztina, zura, papera...), dekorazio-piezak zein gauza erabilgarriak egiteko, eta, ondorioz, diseinu berriak sortu dira. Erabilera berrietarako material berriak erabili ohi dituzten artisauak sortu dira: miniaturistak, modelogileak, maketagileak, surf-taulen egileak....

Artisautza-enpresei dagokionez, mikroenpresa urri eta heterogeneoak dira (autonomoak barne). 300 inguru daude eta horietatik 261 daude erregistratuta (115 Gipuzkoan, 113 Bizkaian eta 33 Araban). Enplegu mugatua sortzen dute: 500-600 lanpostu. Jarduera nagusiak zurezko altzarigintza (%13,4), zurezko objektuak (% 12,9), zeramika (% 12,6), landare-zuntzeko gauzak (% 9,4), ehunezko gauzak (% 7,9), bitxi gintza (% 6,9), metalezko gauzak (% 6,5), beiragintza (% 6,1), larruzko gauzak (% 4,7), marmolezko, harrizko eta eskaiolazko objektuak (% 1,1), musika-tresnak (% 1,1) eta bestelakoak (% 17,3).

Gaur egungo artisauaren profila, suposatu ohi den arketipoaren nahikoa desberdina da: gizonezkoak gehiago dira (% 65), emakumeen aldean; hobekuntza profesionalaz eta lan-tresnen berrikuntzaz arduratzen dira (% 37ak, hobekuntza-ikastaroak egin dituzte); ordenadorea erabili ohi dute (informazioa jasotzeko, kudeatzeko, komertzializatzeko eta diseinuak hobetzeko); gehienek 35 urte baino gehiago dituzte; heren batek ez du artisautza jarduerara nagusitatu (ezin dute lanbide horretatik bizi); artisauaren eta bezeroaren arteko salmenta zuzena da nagusi.

Artisautzaren etorkizuna zaila da, zeren produktu industrialak eta garapen bidean dauden herrialdeetako produktuak oso lehiakorak baitira, ordezko belaunaldiak ez baitira nahi adinakoak eta errentagarritasun-patroi onargarriak lortzea oso zaila baita. Eskuhartze sakona egiteko, sektorea eta artisauen irudia hobeto erregulatu behar dira, zeharkako laguntza instituzionala emanaz eta labela (agiria) sortuz; diseinu berriak sortu edo daudenak egokitu egin behar dira; merkataritza-kanal zaharrak hobetu eta berriak sortu behar dira eta tokiko kultura eta turismoarekin uztartu behar da.

euskadi.net, Eusko Jaurlaritzaren baliabideen web-gunea.



Artisaua pilotan jokatzen xistera egiten.



8. KULTURA- ETA KOMUNIKAZIO-ZERBITZUAK ETA ERAKUNDEAK

Ekarpen garrantzitsuak egin dituzten eta gaur egun memoria kolektiboaren parte diren zerbitzu kulturalak egiten dituzten erakundeak (museoak, artxiboak eta liburutegiak) gizabanakoak eta kolektiboak daude.

Halaber, badira, agenda kulturala osatzen duten gertakizunak, bisitarien onespina merezi duten herri-ohiturak eta gaurkotasun orokorra eta kulturala tratatzen duten komunikabideak.

Artium Arte Museoa. Gasteiz.



Zientziaren Kutxaespazioa. Donostia.



8.1. Museoak

Museoen eginkizunak, besteak beste, honako hauek dira: kultura ondasunen ezagutza bultzatzea (fisikoki kontserbatzea, babestea eta dokumentatzea) eta kreaio artistikoa kulturalki aurkeztea hedatzea eta sustatzea.

Euskal Herria, museo-gune artistikoetan espezializatuta dago. Bilboko Arte Ederretako Museoaren (1908) ostean, Nafarroako Museoa (1910), Baionako Euskal Museoa (1924) eta Donostiako San Telmo Museoa (1932) sortu ziren. 60 urte geroago, 90ko hamarkadan, jauzi kualitatiboa egin zen, Guggenheim Museoa, Artium (Gasteizen), Chillida Leku (Hernanin) eta Oteitza Museoa (Alzuzan) sortu zirenean. Hala ere, badaude artistikoak ez diren museoak ere.

Euskal Herrian 120 bat museo eta bilduma daude. Euskadin, 68 daude (30 Gipuzkoan, 19 Bizkaian eta 19 Araban), Nafarroan 30, eta Iparraldean 20 inguru daude.

Euskal Herrian arte-museo garrantzitsuak daude.

Frank O. Gehry arkitektoak eraikitako **Guggenheim Bilbao Museoaren** eraikina artelana da berez; eraikin horren bidez, Bilboren irudia kanpoan zabaldu da. Elkarrekin konektatutako bolumenez, kareharriz eta titanio kurbatuz egindako armazoia ikusgarria da.

Guggenheim museoan bilduma iraunkorra dago eta aldi baterako erakusketak egiten dira. Bilduma iraunkorra New York-eko funtsez (eskuragarriak kontratu bidez) eta Bilboko funtsez osatuta dago. Museoaren bildumak XX. mendeko artista esanguratsuen artelanak dauzka, besteak beste: Eduardo Chillida, Yves Klein, Willem Kooning, Robert Rauschenberg, Antoni Tapies, Mark Rothko,

Andy Warhol, Richard Serra, Anselm Kiefer, Robert Motherwell, Rosenquist, Bourgeois eta Viola.

Bestalde, Euskal Herriko eta Espainiako arte gazteari dagozkion izen esanguratsuak ere badaude, besteak beste: Txomin Badiola, Cristina Iglesias, Pello Irazu, Koldobika Jauregi, Jesus Mari Lazkano, Darío Urzay, Miquel Barceló eta Prudencio Irazabal. Urtean, batez beste, milioi bat bisitari izan ohi ditu museoak.

Bilboko Arte Ederretako Museoa. 1908an eta 1924an sortutako bi museo elkartu ondoren sortu zen. Museoaren bilduma bikaina XII. mendeko artelanekin hasten da, eta XVI eta XVII. mendeko (Velázquez, El Greco, Murillo, Zurbaran, Ribera, Carreño...), barroko flandestarreko (Van Dyck, De Vries...) eta XVIII. mendeko (Paret, Bellotto, Meléndez...) funts garrantzitsuak daude. Goyaren artelanak eta XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako pintoreen (Sorollaren edo Madrazoren) artelanak ere ikus daitezke.

Halaber, XIX. mendeko eta XX. mendearen lehen zatiko euskal artisten bildumarik garrantzitsuena dauka. Besteak beste, honako artista hauen artelanak ikus daitezke: Guinea, Zuloaga, Guiard, Regoyos, Echevarria, Iturrino, Arteta, Aranoa, Lecuona, Ucelay edo Balerdi. Horiez gain, honako artista hauen piezak ere badaude: Gauguin, Delaunay, Cezanne, Picasso, Kokoschka, Bacon, Vázquez Díaz, Gutiérrez Solana, Gargallo, Oscar Domínguez, Tapies, Millares eta Saura. Oteitzaren eta Chillidaren lanak ere ikus daitezke.

Artium. Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa. Gasteizen sortu zen 2002an. Museo honen xedea gure garaiko artea hedatzea da, bilduma iraunkorraren bidez, aldi baterako erakusketak eta kreaioarekin eta pentsamenduarekin lotutako beste zenbait jarduera paralelo eginez. Espainiako arte garaikideko bilduma oso ona du.

San Telmo Museoa. 1932an sortu zen, Donostian, XVI. mendeko komentu zahar batean. Esanguratsuak dira erromatarren aurreko hilarriak eta Euskal Herriko bizimodu tradizionalaren alderdiei buruzko material etnografikoak. Halaber, pinakoteka ere badauka. Pinakotekan, XV-XIX. mendeetako pintura-artelanak daude, eta artistei dagokienez, besteak beste, Madrazo, El Greco, Remi, Ribera edo Rubens-en eta euskal pintoreen lan garrantzitsuak ikus daitezke.

Chillida-Leku. Zabalaga baserrian, Hernanin, aire zabalean eraikitako museoa. Eduardo Chillida eskultorearen jardunbidea erakusten duen lan-multzo garrantzitsua.

Baionako Euskal Museoa. Gai anitz eta orokorrak erakusten dira eta Musée Bonnat bilduma-museoa da (hau ere Baionan dago).

Nafarroako Museoa. Berri samarra da (1956). “Nuestra Señora de la Misericordia” ospitalea zenaren eraikinean du egoitza. Jatorrizko eraikinetik portada eta eliza (biak XVI. mendekoak) baino ez dira gelditzen. Historiaurretik gaur egunera arteko Nafarroako ondarearen laginak ikus daitezke (artista nafar garaikideen funtsa dauka). Aldi baterako erakusketak ere egin ohi dira.

Oteitzaren Museo-Etxea. Francisco Javier Sainz de Oizak eraiki zuen. Nafarroako Alzuza herrian dago. Ibilbidean, Oteitzaren artelan esanguratsuenak eta artistak erabili ohi zituen aretoak (laborategia, etxea eta tailerra) ikus daitezke.

Honako beste museo eta bilduma hauek ere badaude:

- Itsas museoak: Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa, Donostiako Ontzi Museoa eta Akuarioa, Miarrizteko Itsas Museoa eta tradiziozko arrantza-tresnak (txankuak) eta ontziak dauzkan Bermeoko Arrantzalearen Museoa.
- Etnografia-museo orokorrak: Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa (Bilbon); San Telmo Museoko funtsak; Gasteizko Arkeologia Museoa (Gobeo familiaren etxean dago) eta Baionako Euskal Museoa. Halaber, ildo berekoak dira, besteak beste, Gernikako Euskal herria Museoa eta Artzeniegakoa, Elizondokoa edo Iratxekoa.
- Arte sakratuko museoak: Bilbokoa eta Gasteizkoa eta Orreagako edo Tulebraseko monasterioetakoak.

Oteiza Museo Etxeko barneko patioa. Francisco Saenz de Oizaren lana. Alzuza (Nafarroa).



- Burdina, garraio eta beste lan batzuekin lotutako museoak: Trenbidearen Euskal Museoa (Azpeitian); Gallartako Meatze Museoa; Rialia Industriaren Museoa Portugaleten; Pobal Burdinola, Muskizen; Balmasedako La Encartada txapel-fabrika; Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoa eta Añorgako zementu-fabrika; Zeraingo Parke Kulturala; Lenitz Gatzagako gatzaren museoa; Legazpiko (Gipuzkoa) Burdinaren Euskal Museoa.

- Zientzia eta Teknologia museoak: Donostiako Zientziaren Kutxagunea; Iruñeko Planetarioa, edota Medikuntza eta Zientziaren Historiarako Euskal Museoa (EHU-n, Leioan).

- Pertsonaiei buruzko bildumak (Zumalakarregi eta XIX. mendea, Ormaiztegin, Simon Bolivar, Bolibarren, Aiaratarrak, Kexaan) edo artistei buruzkoak (Zuloaga, Beobide...), edota gai anitzei buruzkoak: bakea (Gernikako Bakearen Museoa), ideologiak (Arteako Abertzaletasunaren museoa), zeramika (Euskal Buztingintzaren Museoa, Elosuko Ollerias auzoan, Araban), gozogintza (Tolosako Xaxu Museoa, Txokolatearen Museoa Baionan, Sarako Euskal Pastelaren museoa), moda (Balenziaga Museoa, Getarian), fotografia (Zarautzen), kartak (Fournier Etxeko karten museoa, Gasteizko Bendaña Jauregian), argizaria (Baionako Grevin Museoa), ardoa (Biasteriko Ardoaren Museoa), polizia (Arkauten), Oppidum (Iruña Okan, Araban), Tauromakiako museoa Bilbon edo Olentzerorena (Mungian).

Euskadiko museoak eta bildumak, lurraldeka

	Museo kopurua	Bisitariak (milaka pertsonatan)			
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Guztira
Arte garaikidea	3	852	85	102	1.039
Arte Ederrak	3	150	-	37	187
Historia	11	64	13	10	87
Orokorrak	2	40	63	-	103
Etnografia - Antropologia	11	27	4	-	31
Espezializatua	16	10	40	96	146
Zientzia eta teknologia	5	8	171	-	179
Natur Zientzia eta Historia	6	-	336	-	336
Arkeologia	1	-	-	24	24
Basetxea	10	-	1	15	16
	68	1.151	713	284	2.148

Ikus daitekeenez, Guggenheim (milioi bat inguru bisitari urtean), Aquariuma, Kutxagunea, Bilboko Arte Ederretakoa eta Artium museoetara urtean 100.000 bisitari baino gehiago joan ohi dira.

Tabakalera, Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroaren egoitza. Donostia.



La Encartada ehungintzako fabrikako museoa. Balmaseda (Bizkaia).



Txantreako liburutegia. Iruñea (Nafarroa).



Ignacio Aldecoa liburutegia. Gasteiz.



Euskadiko udal-liburutegiak koordinatzen dituen "liburutegia" web-gunea.



8.2. Liburutegiak

Liburutegi publikoak eta pribatuak ezagutza kontserbatzeaz, liburu klasiko eta garaikideak hedatzeaz eta komunitatearen garapen kulturalaz arduratzen dira. Ez dute inolako zentsurarik onartzen, ez ideologikorik, politikorik edo erlijiosurik, ez eta presio komertzialen ondoriozkorik.

Gaur egun, eta gero eta gehiago, edozein motatako dokumentazioa gordetzen duten zentroak dira: liburuak, aldizkariak, fonogramak, filmak, internet, dokumentalak, datu-baseak...

1979ko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu zuen, Estatuak ondare historikoa, artistikoa, monumentala, arkeologikoa eta zientifikoa defendatzeko ezarri zituen arauak eta betebeharrak betetzeko eginkizuna. Estatuarenak ez ziren Artxibategi, Liburutegi eta Museoen eskumenak ere transferitu egin ziren. Udal liburutegien eskumena udalarena da.

Udal eta foru-liburutegien %90ak baino gehiagok, urtean 200 egun baino gehiago zabaltzen dute. Gehienek funtzio automatizatuak dituzte (katalogazioa eta, hainbeste ez bada ere, maileguak), eta Internetarako konexioa dute. Funtsen % 62 gaztelaniazkoak dira eta % 30 euskarazkoak.

Euskadiko udal liburutegiak. Udalek kudeatzen dituzten Euskadiko 280 udal liburutegiak, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalan integratuta daude. Aderazgarrienak hiriburuetakoa liburutegiak dira: Bilboko Bidebarrietako Udal Liburutegia, Donostiako Liburutegi Zentrala eta Gasteizko Udal Liburutegien Sarea. Gaur egun, udal liburutegi guztiak lineako sarean sartzeko puasuak ematen ari dira (www.liburutegiak.euskadi.net). Horrela, erabiltzaileek, web-orriaren bidez, liburutegi guztietako funtsak kontsultatu ahal izango da, eta liburutegi guztietara sartzeko eta guztietako mailegu-zerbitzuak erabiltzeko agiria sortuko da.

Foru-liburutegiak. Bizkaiko foru-liburutegia XIX. mendearen amaierakoa da (204.207 liburu). 1988az geroztik, osoko birmoldaketa egin zen (175.000 liburu) eta 2002an handitzeko lanak hasi ziren. Gipuzkoako Foru Liburutegia, gaur Koldo Mitxelena Liburutegia dena (160.000 liburu), 1947an zabaldu zen eta puntakoa izan da, bai zerbitzuak zein Interneteko sarbideak eskaintzeari dagokionez. Egoitza "Koldo Mitxelena Kulturunean" dago. Ignacio Aldecoa Kultur Etxea edo Gasteizko Liburutegia Publikoa (121.895 liburu), 1842 inauguratu zen. Gaur egun Estatuarena da oraindik ere, baina Arabako Aldundiak kudeatzen du.

Unibertsitateetako liburutegiak. Dekanoa Deustuko Unibertsitateko Liburutegia da. 1888ko ikasturtean hasi zen funtzionatzen. 1974an Euskal Gaien Institutuaren Liburutegia sortu zen. Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiei dagokionez, zentrala Leioan dago eta Gasteizko eta Donostiako kanpusetan ere bana daude. Handiena eta anitzena da eta 1.015.000 liburu dauzka 25 liburutegiko funts bibliografikoetan. Mondragon Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere dagokien liburutegiak dituzte.

Liburutegi espezializatuak. Eremu jakin batean lanean diharduten kultura-elkarte edo -erakundeekin lotuta daude. Esanguratsuenak honako hauek dira: euskal kulturari eta hizkuntzari buruzkoak (Eusko Ikaskuntza, Sancho el Sabio Fundazioa, Euskaltzaindia, Labayru Institutuko Euskal Biblioteka, Habe), historiaurreari, arkeologiari eta etnografiari buruzkoak (Aranzadi Zientzia Elkarteak), musikari buruzkoak (Eresbil, Goi Mailako Musika Kontserbatorioa), zinemari buruzkoak (Euskadiko Filmategia), aldizkako argitalpenei, kartelei, liburuxkei, eta abarri buruzkoak (Lazkaoko Beneditarren Komentua), euskal gaiei eta erlijio-gaiei buruzkoak (Arantzazuko eta Loiolako Santutegiak edo Gasteizko eta Donostiako Apaizgaitegiak), gai anitzei buruzkoak (Sociedad Bilbainako liburutegia), arteari buruzkoak (Museoetako liburutegiak).

Liburutegi batzuk Administrazioarenak dira: Liburutegi Zentrala eta Eusko Jaurlaritzako Siletakoak eta Eusko Legebiltzarrekoa. Liburutegi birtualak ere badaude: Eusko Ikaskuntzarena (gaur egun Euskomedia Fundazioan).

Ikastetxeetako liburutegiak. Guztira 873 ikastetxe daude, eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe horietako 612k liburutegi-zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Euskal bibliografiaren arloari dagokionez, oso garrantzitsuak dira **Jon Bilbok** (1914-1994) -Eusko Bibliographia- eta **Joan Mari Torrealdai** egin dituzten bilketa-lan handiak.

Liburutegi Nazionala edo Euskadiko Liburutegia egiteko proiektua dago. Liburutegi horren eginkizuna Euskal Liburutegi Sistemaren buru eta Euskal Liburutegia Digitala izatea da.

8.2.1. Fonotekak eta mediatekak

Diskoak, zinta magnetofonikoak, CD-ak eta mota guztietako soinu-artxiboak, memoria historikoa babesten laguntzen duten lekukotasun-dokumentuak dira. **Fonotekak** herrien eta gizartearen soinu-ondarea babesteaz eta ezagutzera emateaz arduratzen diren erakundeak dira. Soinu-artxiboetan, musika-erregistroak ez ezik, diskurtsoak, gizarte-gertakizunak, elkarrizketak eta ahozko tradizio aberatsa ere sartzen dira.

Liburutegiak **mediateka** bihurtzen ari dira (Koldo Mitxelena Kulturunea, Bidebarrieta...), zeren CD-ak eta DVD-ak kontserbatzeko eta maileguan emateko zerbitzu osagarria ematen hasi baitira.

Monografiak zeharo nagusi badira ere (funtsen % 94), bestelako funtsak gero eta gehiago erosi ohi dira: ikus-entzunezkoak, elektronikoak eta bereziak (marrakizkiak, kartografiak...), batez ere, Bilbon, Donostian, Erreterian, Tolosan eta Arrasaten.

Miarritzeko mediateka 2004an inauguratu zen eta gai orokorretakoa da. Ikus-entzunezko material ugari, Internetarako sarbideak eta zenbait departamentu espezializatu dauzka: literatura, Latinoamerika, irudia, euskara, umeen departamentua eta tokiko funtsak.

8.2.2. Nafarroako liburutegiak

Nafarroan, 3 milioi liburu dauzkaten 128 liburutegi daude. 2000. urtean, 94 liburutegi publiko zeuden (% 73,5), liburutegien % 20 espezializatu hitzartuak ziren, % 4 unibertsitateetakoak (azken hauek liburuaren herena baino gehiago daukate). Urtean, 800.000 mailegu egiten dira, 180.000 hartzailearentzat.

Nafarroako Liburutegi orokorra 1940an sortu zen. Nafarroako bibliografia-ondarea gordetzen du, liburutegi publikoen sistema koordinatzen du eta Lege Gordailua kudeatzen du. 320.000 dokumentuko funtsa du eta laster egoitza berria izango du.

Koldo Mitxelena Kulturunea.
Donostia.



Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegi berria.
Bilbo.



8.3. Artxibategiak

Artxibategi-zerbitzuek honako oinarrizko hiru eginkizun hauek dituzte: funtsak kontserbatzea, tratatzea eta hedatzea. Euskadin, 1990ean, eskumenak berrantolatzen dituen Euskal Kultura Ondarearen Legea onartu zen. Hiru Diputazioek dagokien Artxibategiaren eskumena dute, eta herrialdeko gainerako Dokumentuen Ondarearen eskumena Kultura Sailari dagokio. Hiru Probintzietako Artxibategi Historikoen eskumena Kultura Ministerioarena da.

Badator zerbitzua 1998an inauguratu zen eta "Iragi" web-ean dago instalatuta. Bergaran dagoen Artxibategi Zerbitzua eta Dokumentu Ondarearen erakundea da. 1986az geroztik, Eusko Jaurlaritzaren artxibategi-politikaz arduratzen da. Dozenaka artxibategi publiko zein pribatuetako 300.000 erreferentzia baino gehiago daukate, eta egiazko denboran kontsulta daitezke. Eliz artxibategi historikoak ere eskuragarri daude.

Euskadiko Artxibategi Historiko Nazionala izango denaren egoitza Bilboko Vesga eraikina izango da. Besteak beste, Eusko jaurlaritzako funts guztiak, Bergarakoak eta Salamancan atxikitako Gerra Zibileko artxiboak barne.

Poliki-poliki, udalerrietan artxibategi-zerbitzuak finkatzen ari dira. Internet sarearen garapenak hedapen-esparru egokia eskaini du.

Nafarroako Artxibategi Orokorra

Nafarroako Artxibategi Orokorra 1836an sortu zen, Nafarroako Diputazioak deuseztatutako Konputu-Ganberaren artxibategiaren jagotea bere gain hartu zuenean.

Bertara beste funts paralelo batzuk iristen joan dira, hots: Erresumako Artxiboak, Antzinako Nafarroako Errege Kontseiluaren prozesu judizialen aktak, Errege Auzitegiaren eta Kleroaren sekzioak, Notario-protokoloak eta, oraintsuago, Ogasun Saileko, Gobernu Zibileko eta Lurralde Auzitegiko funtsak. Halaber, Nafarroako artxiboen errolda/gidak, Nafarroako Gobernuaren, Kultura Ministerioaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmenaren bidez.

Nafarroako Artxibategia. Iruñea. Rafael Moneoren lana.



Artxibo eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuaren web-gunea Iragin (Dokumentu Ondarearen Zentroan).



8.4. Zenbait hezkuntza- eta zientzia-erakunde

2006-2007 ikasturtean, EAEko Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman 1.051 ikastetxe zeuden eta ikastetxe horietan 336.850 ikasle ari ziren ikasten (% 49 mutilak eta % 51 neskak), honelaxe banatuta: haur-hezkuntzan (84.057), lehen hezkuntzan (103.609), hezkuntza berezian (408), Derrigorrezko bigarren Hezkuntzan (DBH-n) (69.227), batxilergoan (30.659), Maila Ertaineko Lanbide Heziketan (10.721), Gai Mailako LH-n (15.644) eta zereginen ikaskuntzan (411). Ikasleen erdiak baino ez zebiltzan ikastetxe publikoetan (% 52,2), eta ikastetxe pribatuetan 161.031 ikasle ari ziren (ikastetxe pribatu gehienek diru-laguntza publikoa jaso ohi dute).

Lurraldeen arabera, Bizkaian 174.659 ikasle ari ziren, Gipuzkoan 112.524 eta Araban 49.667 zebiltzan.

Horrez gain, bestelako ikaskuntza aratuak ere badaude: hizkuntzak (28.823 ikasle ari dira), musika (1.590), arte eta lanbideak (273) eta dantza (61).

Aldaketa demografikoek eskolaratutako populazioa gelditzea eragin dute. 1997-1998 ikasturtean, 432.113 ikasle zeuden (unibertsitatekoak barne), eta 2005-2006 ikasturtean, 437.900 ikasle daude. Batez ere, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntza nabaritzen da, eta ez da hainbeste nabaritzen unibertsitatean (90.623 izatetik 68.924 izatera pasatu da). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan eskolaratzea derrigorrezkoa denetik, ordea, ikasleen kopurua handiagotu egin da, zeren 20.000 ikasle gehiago baitaude.

Euskal Herrian, bost unibertsitate daude. Horietako hiru Euskadiko Autonomia Erkidegoan daude. Ikasleen % 54,4 emakumeak dira. Euskadin, 56 zentro unibertsitario daude (fakultateak eta eskolak), hainbat kanpusetan banatuta (Medikuntza, Zientziak, Arte Ederrak, Zuzenbidea, Informazio Zientziak, Kimika, Informatika, Ekonomia, Ingeniaritza Industrial...), 2004an Unibertsitatearen Antolakuntzaren Legea onetsi zen.

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) publikoa da. 2005ean, 34 zentro eta 107 sail zituen. 2005erako aurrekontua 313 milioi eurokoa zen eta 39 milioiren baliabideak, kontratuak eta hitzarmenak lortu zituzten. 4.147 irakasle eta ikertzaile zituen kontratatuta eta horietako 2494 doktoreak ziren. Lehen eta bigarren zikloko 58 titulazio eta graduatu osteko edo doktoretzako 114 ikastaro ematen zituen hiru lurraldeetan. 57.390 ikasle zeuden matrikulatuta (Euskadiko ikasle guztien % 77), nazioarteko programetako Kanpus Birtualeko 6.027ak barne. Ikasleen % 50ak euskaraz hitz egiten zuten. Ikerketa-erakunderik garrantzitsuena da.

Euskadin, bi unibertsitate pribatu daude. **Deustuko Unibertsitatea** (jesuitena) da historikoena (1886) eta XX. mendean eliteak prestatzeaz arduratu da. 9 fakultate, 16.000 ikasle eta 600 irakasle ditu. Aldaketa handiak izan dira azken hogeita hamar urteetan. Mondragon Unibertsitatea (sistema kooperatiboaren ekimena) berriena da eta, bereziki, teknikaren eta enpresaren munduarekin lotuta dago.

Nafarroan, bi unibertsitate daude: **Nafarroako Unibertsitate Publikoa** eta tradiziozko “**Universidad de Navarra**” pribatua (Opus Dei-rena). Azken honek Fakultate bat du Donostian.

EHU, Leioako Campusa. (Bizkaia).



Iparraldean ez dago bertako unibertsitaterik –aldarrikapenetako bat da–, beste unibertsitate batzuetako ingeniarietako, zientzietako eta zuzenbideko ordezkariak baino ez daude.

Dena den, lehenago egon izan ziren goi-mailako ikaskuntzak ematen zituzten zentroak. **Iratxeko Filosofia eta Teologiako Unibertsitate** beneditarra (XVI. mendearen amaieratik 1824ra) eta **Iruñeko Santiago Unibertsitatea**, domingotarrena. Halaber, **Oñatiko Unibertsitatea**, 1540an sortu zen “Sancti Spiritus Universitas” izenarekin. Zuzenbide, Teologia eta Medikuntza ikasketak ematen ziren bertan.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte (RSBAP), Peñafloidako Kondeak bere etxean, gaur egun zaharberrituta dagoen Azkoitiko Insausti jauregian egin ohi zituen tertulien ondorioz sortu zen. Egoera sozial eta ekonomikoa aprobetxatuz, Europan zehar bidaiak egin zituzten pertsonak ziren. Beste herrialdeetako industria- eta kultura-maila ezagutzen zituzten eta atsekabetuta sentitzen ziren, XVII. mendean, gogoko zuten Euskal Herrian zegoen panorama zela eta. Bergaran sortu zen 1765ean. Garaiko erreformista nagusietako batzuk elkartekideak ziren: Olavide, Arriquirar, Ibañez de la Rentería...

Elkartea, hasieratik, hezkuntza kulturalaz, zientifikoaz eta moralaz arduratu zen, eta “Bergarako errege Mintegia” sortu zuten (1776-1796). Horretarako, lehen mailako zenbait irakasle europar (Proust, Chavaneau, Brisseau) eta Euskal Herrikoak (Elhuyar, Erro, Mas, Samaniego, Santibáñez, Foronda) aritu ziren eta Europa osoan ospetsuak izan ziren. Mintegian, lehenbiziko aldiz platina urtu zuten, altzairuak landu zituzten, burdinoletako teknikak hobetu zituzten, eta wolframioa isolatzea lortu zuten. Gaur egun, zenbait argitalpen egiten ditu, besteak beste RSBAP eta Egan aldizkariak. Egoitza Insausti Jauregian dago.

Sociedad Económica Tudelana de Amigos del País deritzona (1773). San Adriango Markesak fundatu zuen eta antzeko egin-kizuna zuen Nafarroako hegoaldean (errepideak, ubideak...).

Eusko Ikaskuntza (EI). Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Diputazioen eskaerari erantzunez, 1918an sortutako erakunde zientifikoa da. Elkartearen helburua euskal kulturaren berpizkundea iraunkor bihurtzeaz, bateratzeaz eta zuzentzeaz arduratzen den elkarte sustatzea eta elkarte horretan, euskal kultura sustatzeaz interesatuta dauden guztiak onartzea.

Debekatuta egon zen frankismoan, 1936tik 1976ra. 1976an etapa berria hasi zen. Ia hiru mila bazkide ditu. Ikerketarekin batera, beste funtsezko jardura hezkuntza da (Jakitez programa...). Aldizka, gaurkotasuneko gaiei buruzko **Kongresuak** egin ohi dituzte. Urtean, berrogei bat liburu argitaratzen dituzte: Saileko Koadernoak, **RIEV (Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria)**, Julio Urkijok 1907an sortutakoa, eta beste bilduma batzuk, besteak beste, **Asmoz ta Jakitez** hileroko aldizkaria, eta aldizkari elektronikoa; Euskonews & Media, **euskonews.com** web-ean.

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.



Sortu den azken unibertsitatea Mondragon Unibertsitatea da, kooperatibek sustatutakoa. Arrasate (Gipuzkoa).



8.5. Beste zenbait ekipamendu

Kongresu Jauregiak edo **auditorioak** ekintza kulturalak, kongresuak eta goi-mailako ikuskizunak antolatzeke premia asetzen dute.

Donostiako Kursaal Entzutokia Batzar Jauregia, Bilboko Euskalduna Jauregia, Bilboko ontzitegi zaharrak zirenen gainean eraikitakoa, Gasteizko Europa Jauregia -auditorioa izango dena- eta Iruñeko Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa arduratzen dira goi-mailako eta publiko-kopuru handiko ikuskizunak ziurtatzeaz. Aldizka, Donostiako Anoetako Belodromoan, Gasteizko Buesa Arenan eta Barakaldoko BEC-ean dagoen Bizkaia Arenan jende askoko kontzertuak egiten dira.

Aipatutakoez gain, esanguratsuak dira Bilboko Arriaga, Donostiako Victoria Eugenia edo Gasteizko Principal **Antzokiak** eta antzokiez, musika-aretoez eta erabilera anitzeko aretoez osatutako sare garrantzitsua (Barakaldo...). Martutenen dagoen **Arteleku**, dagoeneko finkatuta dagoen zentro publikoa da, arte garaikideari buruzko esperimentazioa eta hausnarketa egiteko eta arte hori hedatzeko. Erabilera bererako dira Biboarte (Bilbon) eta Montehermoso eta Krea (Gasteizen). Baliabide eszenikoen zentroak ere badaude (Bilbo Eszena). Donostian, Tabakalera fabrika zaharrean (30.000 metro karratu) proiektu kultural handia egingo da, hots, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea, nagusiki irudia eta berrikuntza kulturala garatuko dira.

Herri askotan, herritarrei kultura- eta kirol-baliabideen erabilera errazten dieten instalazioak daude. **Kultur etxeek**, liburutegiek, frontoiek (erabilera anitzeko kantxa bihur daitezkeenak...) eginkizun hori dute.

Adibidez, Gasteizen, bereziki interesgarria da hiriko auzo guztietan zehar banatzen den **hiriguneen sarea**. Gune horietan, auzoetako biztanleen kirol- gizarte- eta kultura-jarduera gehienak egin ohi dira. Beste hiriburuetan ere kultur etxeen sarea dago, urtean zeharreko programazio kultural anitzarekin.

Baluarte Auditorioa Nafarroako Kongresu Jauregia. Iruñea.



“Europa” Kongresu Jauregia. Gasteiz.



“Euskalduna” Kongresu eta Musika Jauregia, izen bereko ontziola zegoen lekuan eraikitakoa. Bilbo.



8.6. Komunikabideak

Gizarte- edo masa-komunikabideak (mass media), aldi berean, erakunde sozialak eta kulturalak dira irabazteko asmoa izan ala ez-; ideiak, informazioa, joera estetikoak, irudiak eta soinuak sortzen eta transmititzen dituzte, eta eragin kultural, sozial eta politikoa handia dute.

Komunikabideek masa-kultura kudeatzen dute. Masa-kultura horren bidez biztanleen ehuneko handi bat hornitzen da intelektualki. Gaur egungo hiru komunikabide handiak prentsa, irratia eta telebista dira. Internet ere garrantzia hartzen ari da. Denen artean gero eta bat-batekoagoa den gaurkotasuna hurbiltzen digute.

Hala ere, nazioartean zein gizarte bakoitzean informatzeko ahalmena ez dago berdintasunez banatuta. Are gehiago, eragin ekonomikoa, soziala eta politikoa informazio-eraginean edo audientzia handien programazioan islatzen dira, bai komunikabideen jabetza pribatuaren zein publikoaren bidez, bai korporazioen informazio-ganberetan edota lobby-etan (presio-taldeetan).

Komunikabide publikoek hiru eginkizun nagusi dituzte, hots: **informazioa ematea, prestakuntza ematea, eta enntretenitzea**; hala ere, gaur egungo sisteman azken eginkizun horrek -entreteneak- bastertu egin ditu este biak.

Irratian edo telebistan jarduteko Administrazio Publikoaren esleipena behar da, komertzialak ez diren (publizitaterik ez duten) eta eremu txikian aritzen diren elkarte-irratientzat salbu.

Komunikabideek, edonoren esku ez dauden inbertsioak eskatzen dituzte. Garrantzitsuenak finantza-talde eta talde ekonomiko handien barruan egon ohi dira edo jabetza publikokoak izan ohi dira. Telebista publikoak, estatukoak zein autonomikoak, oro har, mistoak izan ohi dira (diru publikoaren eta publikitatearen bidez finantzatzen dira).

2010. urtea sistema digitalera aldatzeko muga-data da; harrezkero, telebista analogikoa kendu egingo da, eta, horrek, erabat aldatuko du komunikabideen panorama, Euskadin ere bai.

Euskal Herriko Hegoaldeak (Euskadik eta Nafarroak) bere komunikazio-egitura du, prentsan batez ere, Madrilgo komunikabideen eragina, irratian zein telebistan, nagusi bada ere, eta horrela behar du izan, zeren Espainiako irratia-telebistako kate publiko eta pribatuaren eskaintza oso handia baita.

8.6.1. Taldeak eta agenteak

Bertako sisteman, talderik garrantzitsuenak, EITB, euskal irratia-telebista publikoa eta Vocento taldea dira.

Euskal Irrati Telebista (EITB), Eusko Jaurlaritzaren mendekoa da. Irratia (5 instalazio) eta telebista (2 kanal -ETB1 eta ETB2- Euskadirako eta beste bi kanal atzerrirako -Canal Vasco eta ETB Sat-) kudeatzen ditu. Euskadiko guztizko irratia eta telebistako ikus-entzuleen laurdena kaptatzen du.

Kate publiko horren xedeak legearen arabera araututa daude. Xedeok Eusko Jaurlaritzarekin egindako Programa Kontratuaren bidez kontrolatuta daude. Kontratu horretan laur urtetik behingo betebeharrak tasatzen dira, aurrekontuen % 70 inguru betetzen duen finantziazio publikoaren truke. Xede horiek, besteak beste, programazio kulturalari, bertako produktioari, euskarari, albistegi-kopuruari edo euskal kulturari dagozkie.

Vocento -lehen, Grupo Correo deitzen zen-. Tradizio handiko talde kontserbadorea da. Egia esateko, dagoeneko, Espainiako prentsa-talderik garrantzitsuenak da. Bizkaian eta Araban El Correo egunkaria eta Gipuzkoan El Diario Vasco egunkaria argitaratzeaz gain, beste dozena bat egunkari ditu Espainia osoan, eta tirada handiko Madrilgo ABC egunkariaren eta Taller de Editores-en jabea da eta Cimeco eskualdeko prentsako sozietate argentinarraren heren bat dauka. Akziodun garrantzitsua da telebistan, irratian eta ikus-entzunezko ekoizpenean. Internetako atari asko ditu.

Hegoaldean, aipatutako taldeon komunikabideez gain, beste egunkari, irratia eta telebista probintzial eta lokal batzuk ere badaude.

8.6.2. Ikus-entzuleak

Euskadin, prentsa-irakurleei dagokienez (biztanleen % 50ak irakurtzen du) hedapen-bolumen erlatiboak (190 ale mila biztanleko, prentsa espezializatua sartuz gero) Europako herrialdeen adinakoak dira. Espainiako batez bestekoaren ia bikoitza da eta Frantziako baino handiagoa da. Euskadin, irratia-entzuleak Espainiako Estatuko handienetakoak dira (% 58ak irratia entzun ohi du), 2004 martxoa eta urria bitarteko CIES-aren arabera.

Bertako komunikabideak Estatukoak baino gehiago erabili ohi dira. Lehentasun hori oso nabarmena da prentsari dagokionez, zeren, batez ere, lurraldekoa edo probintziala baita. 10 egunkaritik ia 9, bertan argitaratutakoak dira.

Egin eta Egunkaria (azken hori euskaraz) epailearen aginduz itxi ziren egunkariak dira, hurrenez hurren, 1998an eta 2003an.

EITB sozietate publikoaren irratia-estudioak.



Errotatibaren irteera.



8.6.3. Prentsa Euskal Herrian

Prentsari dagokionez, Vocento da nagusi. Euskadiko hiru lurralde-etako prentsa gehiena kontrolatzen du. Gainerako komunikabideak honako hauek dira:

- Berria, Euskal Herri osorako euskarazko egunkaria. 17.000 aleko eta 55.000 irakurleko hedapena du.
- Gara, Euskal herri osoan saltzen da. 20–25 mila aleko tirada eta 100.000 irakurle ditu, ideologia ezker-abertzalekoa.
- Deia, Bizkaian baino ez da saltzen eta EAJ-ren ingurukoa da. 20–25 mila aleko tirada du. Gaur egun, Diario de Noticias taldera atxikita dago.
- Diario de Noticias de Alava (Araban) eta, oraintsuago, Diario de Noticias de Gipuzkoa, biak Nafarroako Diario de Noticias-ekin atxikita. Nafarroakoa progresista eta euskaltzalea da eta finkatzea lortu zuen lehenbizikoa da.
- Diario de Navarra, kontserbadorea eta erabat nagusi da Nafarroan.
- Le Journal du Pays Basque. Tirada txikia du eta ideologia abertzalekoa da eta Iparraldean saltzen da.

Aldizkariak ere badaude: Argia, Jakin, Aldaketa 16... Inmigrazioaren esparruari dagokionez, egunkariak eta aldizkariak argitaratzen dira, hots: Etorikinen Ahotsa, Roman in Lume, Nueva Gente, Araba Integra, etab. Halaber, zenbait erakunde sozialen, besteak beste, Harresiak Apurtuz, Mujeres del Mundo, Ideasur, eta abarren, buletinak eta aldizkariak ere argitaratzen dira.

8.6.4. Irratia eta telebista

Euskadin, jakina, estatuko irrati-telebistaren sistemaren eragina da nagusi orokorrean. Eta hori, ordutegi batzuetan Radio Euskadi eta EITB-ren albistegiak (irratikoak zein telebistakoak) nagusi direla kontuan hartuta.

Irratiari dagokionez, Madrilgo kate pribatuek (SER, COPE, ONDA CERO eta Punto Radio) eta publikoek (Radio Nacional de España-ren zenbait instalazio) –zenbait ordutan deskonexioa egiten dute Euskadiko zenbait sukurtsaletarako– entzuleen % 75a hartzen dute Euskadin entzun ohi diren FM-ko irrati-instalazio asko (35etik 25) kate pribatuekin lotuta daude. Entzule gehien dituen SER konbentzionala da, eta hurbiletik jarraitzen dio erdarazko EITB konbentzionalak.

Horiekin batera, sare publikoaz gain, zenbait lurralde-irratik ere arrakasta dute: Bizkaia Irratia, Nerbion/Gorbea, Donostiako edo Bilboko Herri Irratia... la ez dago udal-irradi publikorik, baina badira zenbait irrati lokal eta elkarte-irradi: Euskalerrria Irratia, Eguzki eta Zarata (Iruñean) eta Xorroxin Irratia (Baztanen), Hala Bedi (Gasteizen), Irola, Tas-tas eta Koska Bizkaian... Musikaz gain, inmigratioari dagozkion gaiak tratatzen dituzten irrati lokalak ere badira: Radio Tropical, Radio Candela, etab.

Iparraldean honako irrati hauek daude: Xiberoko Botza (Maulen), Irulegiko Irratia eta Gure Irratia (Baionan).

Telebistari dagokionez, estatuko kate pribatuek (Tele5, Antena3, Canal+) eta publikoek (TV1 eta “La 2”) ikus-entzuleen ia % 75 hartzen dute. 2006an, CIES-en arabera, ikus-entzuleen batez

Komunikabideen mikrofonoak prentsaurrekoan.



El Correo-ren web-gunea, orriarik bisitatuena da euskal komunikabideetan.



Euskarazko egunkari bakarra Berria da.



besteko kopuru metatuari dagokionez, Tele 5 da nagusi (720.000), eta ondoren, ETB2 (625.000). Euskarazko ETB1en ikus-entzuleen batez besteko kopuru metatua 186.000koa da. Telebista lokalei edo probintzialei dagokionez, besteak beste, Tele Bilbo, Canal Bizkaia, Bilbovision, Tele Donosti, Localia, Canal Gasteiz edo Goiena dira esanguratsuenak. Denen artean, guztira, 185.000 ikus-entzule dituzte. Nafarroan, Canal 4 eta Canal 6 kateak kate pribatu autonomiko pribatuak dira TDT lizentziarekin.

Halaber, *Euskaltel* euskal telekomunikazio-antolatzaileak kudeatzen duen kable bidezko sarea ere badago. Interneterako sarbideei dagokionez, 2006an, biztanleen % 50ak erabili zuen, beti ere, 14 urtetik gora erabiltzaileak kontuan hartuta.

Nafarroan, telebistari dagokionez, ikus-entzuleen batez besteko metatuaren datuak 2006an -CIES-en inkestaren arabera- honako hau izan ziren: Tele5, 191.000; TVE 1, 169.000; Antena3, 181.000; ETB2, 83.000; La 2, 40.000; Canal 6, 25.000; Canal4, 30.000; ETB1, 27.000; Cuatro, 40.000; Canal+, 13.000. TVE-ren bi kateak dira nagusi (209.000) eta ondoren, orotariko beste bi kateak. ETB-ren (Euskadiko Autonomia Erkidegoko antolatzaile publikoaren) bi kateek 112.000 ikus-entzule dituzte, eta laugarren garrantzitsua da guztizko ikus-entzuleen kopuruari dagokionez, Nafarroako bi kate pribatuena baino askoz handiagoa.

8.6.5. Euskara eta komunikazioa

Urria bada ere, euskarak badu nolabaiteko presentzia prentsan (egunero argitaratzen diren aleen %3 -Berria eta herrietako egunkariak-), irratian (Euskadin, ikus-entzuleen % 10 inguru du, eta ikus-entzuleen kopuru metatua 200.000koa da). Irrati-eskaintza mugatua da (Euskadi Irratia eta, gazteentzako Euskadi Gaztea -EITB-renak biak- eta beste irrati pribatu -Herri Irratia, Bizkaia Irratia...- edo elkarte-irradi txiki batzuk). Frekuentzia Modulazioko (FM-ko) irrati pribatuen eskaintza urria da: ez dira saioen % 3ra iristen.

Telebistari dagokionez, telebista-kate lokal batzuek aparte (Goiena...), ETB 1ek baino ez du euskararen premia betetzen. Guztien artean, ikus-entzuleen % 6-7 inguru hartzen dute.

Euskararen presentzia komunikabideetan, ezagutzen dena eta erabiltzen dena baino askoz ere txikiagoa da. Merkatuak diskriminatu egiten du, zeren komunikabideetan gaztelania, hau da, gizarte osoak dakien duen hizkuntza, erabiltzeko joera baitago. Euskara gehiago erabili ohi da, ordea, aldizkari eta telebista lokaletan. Oreka lortzen laguntzeko, TDT lokalari buruzko dekretuak lehentasuna ematen die, kuoten politikan, euskarazko kanalei.

8.7. Saiogileak, zientzialariak eta pertsonaia historikoak

Zenbait pertsonak azterna utzi dute kultura kolektiboan, Euskal Herriatik kanpo ere.

8.7.1. Saiogileak eta zientzialariak

Martin Azpilikueta (Barasoain, 1492-1586). Domingotarra zen eta Baztaneko Agromondarren familiakoa. Doctor Navarrus goitizena zuen eta garai hartako intelektualik garrantzitsuenetakoa bat izan zen. Felipe II.aren aholkulari izan zen. Moralista -maileguak interesekin itzultzearen zilegitasuna defendatu zuen-, jurista eta ekonomialaria izan zen, eta, horrez gain, Xabierko Frantziskoren osaba zen.

Halaber, historiografia-ekarpen goiztiarra ere egon zen: **Esteban Garibay**. Arrasaten jaio zen 1566an. *Compendio Historial de España* izeneko lana idatzi zuen. Baina ikerketa goiztiarrak Nafarroan izan ziren. **Carlos Bianako** Printzeak Nafarroako monarkiari buruz ikertu zuen, **Pedro Agramontarrak** ere historiografia idatzi zuen, eta **Jose Moret**-ek (XVII. mendea) *Anales del Reyno de Navarra* idatzi zuen. **Juan Huarte de San Juan**-ek psikologia praktikoari buruzko Examen de Ingenios izeneko lana idatzi zuen.

Fausto eta Joan Jose Elhuyar anaiak mineralogistak izan ziren XVIII. mendean. Bata Mexikoko meatzeen zuzendaria izan zen eta, gerora, Espainiako ministroa, eta, besteak, wolframio kimikoki isolatzea lortu zuen eta merkurioaren, zilarraren eta platinoaren tratamenduak aztertu zituen.

Jose Agustin Ibañez de la Renteria (Bilbo, 1750-Lekeitio, 1826) ilustratuak, konstituzionalismoa, botere politikoaren banaketa, hiritarren ideia, Estatu mugatua edota udal askatasunak defendatu zituen. *Discursos eta Memorial Historico* (1798) izeneko lanak idatzi zituen; azken horretan, frantsesen aurkako gerran izan zuen eskarmentua kontatu zuen.

Nicolas Arriquirar ilustratu bilbotarra baino lehen, ospetsua izan zen ekonomian, **Jeronimo Ustariz** nafarra, *Teoria y práctica de Comercio y Marina* izeneko lanarekin. Geografo eta politiko ospetsua izan zen **Pascual Madoz** (Iruñea, 1806-Genoa, 1870). Liberala zen eta desamortizazioetako baten buru izan zen. 16 liburuz osatutako *Diccionario Geográfico de España* lan zehatza argitaratu zuen.

Santiago Ramon y Cajal Nafarroan jaio zen, Petilla de Aragón herrian, 1852an eta Madrilen hil zen 1934an. Medikuntzako Nobel saria lortu zuen 1906an, histologian egin zituen lanengatik.


Santiago Ramon y Cajal, Nobel saria Medikuntzan, 1906an, eskola ematen.



Joxe Miguel Barandiaran (erdian) indusketa bateko sarreran.



Julio Caro Barojaren erretratua.



Arturo Kanpion (Iruñea, 1854–1937). Nafarroako Euskara Elkartearen sortu zuen eta Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua Euskara izeneko lana eta *La Bella Easo eta Blancos y negros* nobelak idatzi zituen. Foruzalea zen eta gero nazionalista.

Resurrección María de Azkue. Lekeition jaio zen (1864–1951). Kantutegiaz gain, *Euskalerraren Yakintza* izeneko ahozko literatura, folklore eta herri-jakituriari buruzko bilduma (lau liburua) egin zuen. Operaren bat ere konposatu zuen eta *Ardi Galdua* nobela idatzi zuen.

Miguel de Unamuno eta lehen aipatu ditugun beste batzuek gain, 98ko belaunaldian, aipagarria izan zen **Ramiro de Maeztu** gasteiztarra (1875). Saiogile ospetsua izan zen eta Unamunoren aurkako ideologia zuen. Eskuineko ideologiako Accion Española aldizkaria fundatu zuen, eta bertan hainbat saio idatzi zituen (*La crisis del Humanismo, defensa de la Hispanidad, La revolución de los intelectuales...*). Errepublikanoek fusilatuta hil zen 1936an.

Xabier Zubiri filosofoa (1898–1983). Filosofiaren Historiako Katedraduna izan zen. Ortega y Gasset, Dilthey eta Heideggeren eragina zuen. Adimenari buruzko teoria proposatu zuen (*Inteligencia y razón*) eta bereziki kezkatuta zegoen teologiaren.

Historiaurrearen ikertzaile bikaina izan zen **Joxe Miel Barandiaran** (Ataun, 1889–1991). Euskal Ikerkuntza Institutua eta Iuskua aldizkaria fundatu zituen. Historiaurreko kobazuloak eta aztarnategiak ikertu zituen (Santimamiñe, Lezetxiki, Altxerri, Ekain...) eta euskal etnia eta mitologiari buruzko saiok idatzi zituen. Lan aipagarrienak honako hauek dira: *Euskal mitologia* (1922), *Euskalerriko lehen gizona* (1934), *Antropología de la población vasca* (1947), *El mundo en la mente popular* (1960) edota *Mitología Vasca* (1979). Bere laguntzaileak izan ziren, besteak beste, **Telesforo Aranzadi** etnografoa eta **Juan Mari Apellaniz** paleontologoa.

Barandiaranen ikaslea izan zen **Julio Caro Baroja** (Madrid, 1914–1995) kultura zabaleko etnologoak zenbait ikerketa egin zituen: *Los Pueblos de España* (1946), *Los Vascos* (1949) eta *Las Brujas y su mundo* (1961). Real Academia de la Lengua Española-ko, Real Academia de la Historia-ko eta Euskaltzaindiko kide izan zen eta sari ugari jaso zituen. Espainian, ikuspegi historiko kulturalaren aitzindaritzat eta XX. mendeko azken jakintsuetakotzat daukate. Beran, familiaren panteoian, lurperatuta dago. Halaber, historiari buruzko gaiak ere landu zituen, alegia: *Los judíos en la España moderna y contemporánea* (1961).

Koldo Mitxelena hizkuntzalaria (1915–1987), euskararen batasunaren sustatzaile eraginkorrena eta euskal literaturaren historialaria izan zen. Maisua izan zen euskara komunikazio-tresna gisa hautemateko orduan eta, horrez gain, ikertzailea ere izan zen (*Sobre el pasado de la lengua vasca*, 1964).

Luis Villasante (1920) filologo eta teologoa Euskaltzaindiko lehendakari izan zen, eta erlijioari, hizkuntzalaritzari (*El diccionario de Axular*) eta euskal literaturaren historiari (1961) buruzko lanak argitaratu zituen.

Beste historialari aipagarri batzuk honako hauek izan ziren: **Karmelo Etxegarai**, **Estanislao Labayru**, **Fidel Sagarmínaga**, **Pablo Gorosabel**, **Gregorio de Balparda**, **Andrés de Mañaricúa** edo **Micaela Portilla**.

Euskal Herriak eruditu ugari eman ditu, alegia: **Julio Urquijo** (1871–1950); **Justo Garate** (Bergara, 1900–1994) poligrafo euskaltzalea; **Bernardo Estornés Lasa** (Izaba, 1907–Donostia, 1999) entziklopedista eta argitaratzailea; **Juan San Martín** (Eibar, 1922–2005) –Arartekoa eta poligrafoa–; **José Mari Satrustegi** nafarra eta **Juan Plazaola** (1918–2005), euskal artearen historialaria.

Euskarazko saiogintzari dagokionez, honako izen hauek aipatu behar dira: **Jon Mirande**, **Salvatore Mitxelena**, **Txillardegí**, **Joxe Azurmendi** (*Hizkuntza, etnia eta marxismoa, Espainolak eta euskaldunak*), **Rikardo Arregi**, **Jean Etchepare** (*Buruxkak*), **Juan San Martín** (1922–2005), **Federico Krutwig** (*Vasconia* (1963) lanaren bidez, eragin handia izan zuen ezkerreko abertzale erradikalen ideologian. Azken urteetan, hizkuntza eta helenismoa ikertzeari ekin zion).

Gaztelaniazko saiakuntzari dagokionez, honako hauek dira garrantzitsuenak: **Javier Echevarría** (*Los señores del aire: Telépolis y el tercer entorno*), informazioaren aroari buruzkoa; **Juan Aranzadi** (*Milenarismo Vasco. El Escudo de Aquiloco*), interpretazio antropologiko berriei buruzkoa; edota beste filosofo batzuk, besteak beste: **Daniel Innerarity** (*La transformación de la política, La sociedad invisible*), **Javier Sadaba**, **Fernando Savater**, **Jon Juaristi**, **Jose Ramon Recalde**.

Gaur egun, nazioartean ospetsuenak diren zientzialariak **Pedro Miguel Etxenike** (Izaba, 1950), Euskal herriko Unibertsitateko Fisika Katedraduna da eta nazioarteko lan-ildo berriak zabaltu ditu materia kondentsatuaren fisikaren arlo askotan eta Euskal Herriari, zientzia eta teknologiako sistemaren sorkuntza bultzatu du; **Jesús Altuna**, Historiaurreko Arkeologian espezializatu da (Ekain, Erralla edo Amaldako indusketak), aitzindaria izan da arkeozoologian, eta Barandiaran Fundazioaren sortzaileetako bat da; **Juan Luis Arsuaga** paleontologoa, Atapuercako aztarnategietako indusketen zuzendaria da (aztarnategi horietan, Homo Antecessor aurkitu da) edo Felix Goñi biofisikoa.

Gaur egun, zientzia eta ikerketa ekipoetan oinarritzen dira. Euskadin, zientzia hutsetan akreditatutako 200 ikertzaile daude; horietako 400 “nazioarteko nagusitza” jotzen dira. Ikertzaile bikainak daude hainbat arlotan, besteak beste honako arlo hauek lantzen dira: aeronautika, minbizia, psikiatria–medikamentuak, ingeniariaritzak, plastikoak...

Koldo Mitxelena.



Pedro Miguel Etxenike.



8.7.2. Personaia historikoak

Hemen euskal pertsonaia ospetsuak –batzuk unibertetsalki garrantzitsuak dira– aipatuko ditugu. Asko eredugarriak dira. Beste batzuk, hain eredugarri ez badira ere, gure historiaren parte dira. Zientzialari, politikoa, intelektual, santu, asmatzaile, espedizio–buru edo artistez gain, kontrako alderdiko herrikideak ere badira, hots: inkisidoreak, faxistak, pertsonaia krudelak, piratak edo beltz–tratulariak.

Iñigo Aritza edo Arista. Iruñeko monarkia fundatu zuen, Musa ben Musa–ren anaia zen (VIII. mendea). Hainbat mendean botere–gunea Tuteran zuten Banu Quasi–tarren buruzagi musulman nafarra izan zen.

Antso Nagusia (1004–1035). Euskal Herri osoan, Tolosan eta Iberiar Penintsulako lurralde kristauaren parte gehiengan erreinatu zuen: Iruñea, Najera, Aragoi, Sobrarbe, Ribagortza, Gaztela eta Leon. Antso Nagusiaren erregealdian, gerora Nafarroako Erresuma izango zen Iruñeko erresuma sozialki, politikoki eta ekonomikoki hedatu zen. Santiago Bidea antolatu zuen, arte erromanikoa eta kultura klunitarra (monasterio beneditarretatik nazioartean hedatu zen kristau–berrikuntza) ekarri zituen.

Yehudah ha–Levi (1070–1141). Judua zen, Tuterakoa. Erdia Aroko penintsulako poesia hebrearraren aitzindari izan zen. Orainsu, Sobre las alas del viento izeneko bere lana argitaratu da. **Benjamin Tuterakoa** (1130–1175). Erdi Aroan, Italian, Grezian, Hurbileko Ekialdean, Indian eta Asia Erdialdean zehar bidaiatu zuen. Bidaia luze horretan bizi izandako gertakizunak eta hausnarketak Libro de Viajes izeneko liburuan kontatu zituen. Dokumentu hori bereziki interesgarria da, garai hartako munduko zati handi bat ezagutzeko.

Pero Lopez de Aiala (Gasteiz, 1332– Kalagorri, 1407). Literatoa, saiogilea, kronista, militarra, politikoa eta diplomatikoa. Bizitza gorabeheratsua izan zuen eta frankoen eta gaztelarren arteko 1381eko ituna sustatu zuen. Enrike III. erregeak Gaztelako Kantziler Gorena izendatu zuen.

Ignazio Loiolakoa. Azpeitian jaio zen 1491n. Noblea zen eta Nafarroako erregeordearen zerbitzura jardun zuen militar gisa eta Gaztela Koroaren aldekoa zen. Iruñeko setioan jasotako zaurien ondorioz erretiratu ostean, Ejercicios Espirituales idatzi zuen. Kontrarreformaren buru izan zen Jesusen Konpainia (jesuitena) fundatu zuen. Konpainia oso garrantzitsua izan da eliza katolikoaren historian eta mundu Erdiko eliteen prestakuntzan. Gipuzkoako eta Bizkaiko patroia da.

Xabierko Frantzisko. Xabierko Gazteluan (Nafarroan) jaio zen, 1506an. Bere familia Nafarroako Erresumaren aldekoa zen, Ignazio Loiolakoarekin batera Jesusen Konpainiaren fundazioan parte hartu zuen. Ekialde Urrunera (Japoiara, Goara, Malakara...) joan zen predikatzerara eta bertan hil zen. Nafarroako eta euskararen patroia da.

Joan Sebastian Elkano. Getarian jaio zen. Munduari itzulia eman zion lehena izan zen 1522an, Magallanesek hasi zuen enpresa burutuz.

Joan Zumarraga (1476–1548). Frantziskotarra zen eta Indiarren babesle titulua izan zuen, labore berriak eta inprenta eraman zituen Latinoamerikara eta Mexikoko lehenbiziko apezpikua izan zen.

Joana Albretekoa (1528–1572). Nafarroako erregina izan zen eta aitzindari politikoa izan zen. Gaztelak hegoaldeko Nafarroa konkistatu zuenean, Iparraldean (Nafarroa Beherean) ezarri zuen gortea. Joannes Leizarragari Testamentu Berria euskaratzea agindu zion. Antonio Borboikoa kalbindarrarekin ezkondu zen eta dinastia borboi higanotaren lehen erregea izan zen **Enrike Frantziako IV. eta Nafarroako III.aren** (1553–1610) ama zen.

Espainiako Erresumaren zerbitzura jardun zuten konkistatzaileen zerrenda luzea da: **Juan de Garay** (Urduña, 1528–Río de la Plata, 1583), Santa Fe hiria fundatu zuen eta Plata Ibaiko kapitain Jeneral gisa, Buenos Airesen bigarren fundazioa burutu zuen; **Miguel Lopez de Legazpi** (1510–1572) Filipinak Uharteak kolonizatu zituen; Andres Urdanetak (1508–1568), Ozeania esploratu zuen eta Ozeano barean zeharreko Amerikarantzko bidea aurkitu zuen.

Konkistatzaile berrezien eta krudelena **Lope de Aguirre**, izan zen (Oñati, 1515). Pizarroarekin batera ibili ondoren, El Dorado mitikoa bilatzen jardun zuen –**Pedro de Ursua** nafarraren agindupean–, Peruko eta Amazonaseko lurraldeetan zehar. Espainiako Koroaren aurka matxinatu zen, seguruenik, zenbait espedizio–kide hil ondoren, justiziari ihes egiteko.

Migel (1534–1588) eta **Antonio** (1577–1640) **Okendo** itsas–gizonek, hurrenez hurren, “Itsas Armada Garaiezinean” eta ontzi holandarren aurka borrokatu zuten.

Joan Idiakez (1540–1614). Erregearen idazkari eta atzerri–arazoetako arduraduna izan zen, Felipe II.aren.

Saint– Cyran edo **Jean de Duvergier de Hauranne** (Baiona 1581–1647), teologo jansenista garrantzitsua izan zen.

Catalina Erauso (Donostia, 1592–Mexiko, 1650) pertsonaia izugarria izan zen. Komentutik ihes egin eta, gizonezko mozarrotuta bizi izan zen. Gizonezko gisa, hainbat izen erabili izan zituen eta militar gisa aritu zen Amerikan zenbait urtean. Bere gorabeherak jakin zirenean, Felipe IV.ak ohorezko arretoa egin zion, eta erregeak, militar–maila egiazatu eta “moja alferiza” izena jarri zion.

Xabier María Munibe, Peñafloidako Kondea (1723–1785) eta Azkoitiko Zalduntzua zen. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta Bergarago Errege Mintegia fundatu zituen.

Antso Handiaren erregealdiko txanpona.



Limosna–kutxa Loiolako san Inazioaren irudiarekin.



1543ko mapa. Munduaren inguruan egin zen lehenbiziko bidaia irudikatzen du. Magallanes portugaldarrak hasi zuen eta Juan Sebastian Elkano amaitu zuen.



Sabino Arana Goiri kartzelan egin zuten aldietakoa batean.



Indalecio Prieto.



Dolores Ibarruri "Pasionaria".



Kosme Damian Txurruka. Mutrikun jaio zen (1761). Almirantea eta kartografo iaioa zen, eta Trafalgarreko batailan hil zen Ingalaterrako Itsas Armadaren aurka borrokatzen.

Tomas (1788–1835) eta Manuel Antonio Zumalakarregi (1773–1846) anaiak. Biografia desberdinak dituzte. Tomas, Ormaiztegin jaio zen eta Karlisten armadako jenerala izan zen Lehen Karlistadan. Gerrilla-taktika erabili zuen, eta, Durangon Esparteroren aurka nagusitu ondoren larri zauritu zuten Bilboko setioan. Manuel, beste anaia, ordea, liberala izan zen eta Espainiako Lehen Konstituzioa ("la pepa") eratu zuten Kadizko Gorteetan parte hartu zuen (1812). Justizia Ministro izendatu zuten, 1842an.

Francisco Javier Mina (Idozin, 1789–México, 1817). Espoz y Minaren iloba zen. frantsesen aurka aritu ziren gerrillari-taldeen buru izan zen eta, gerora, Mexikoren independentziaren alde borrokatu zuen, eta bertan hil zen exekutatuta.

Antoine d'Abadie (1810–1897). Hizkuntzalari aberats honek Etiopia esploratu zuen. Gero, euskara ikertzeari ekin zion eta elkarren segidako Lore-jokoak antolatu zituen. Familiaren lurretan, "Abbadie" gaztelua eraiki zuen Lapurdin. Gaztelua, gaur egun, Frantziako Zientzia Akademiaren egoitza da. Abbadie akademia horretako lehendakari izan zen.

Manuel Iradier. Gasteizen jaio zen (1854–1911). Esploratzailea izan zen Ginean, eta zenbait bidaia-liburu idatzi zituen.

Sabino Arana (Bilbo, 1865–1903). Euskara aztertzeaz gain (*Etimologías Vascas, Pliegos euskerófilos*), 1892an, Bizkaya por su independencia, argiaratu zuen. 1895ean Eusko Alderdi Jeltzalea sortu zuen, "euzkaldunen aberria Euzkadi da" ideian oinarrituta. Pertsonaia erabakigarria izan da azken mendeko euskal historian.

María de Maeztu Withney (Gasteiz, 1882– Buenos Aires, 1948). Bitzita osoa emakumeak hezkuntzan parte hartzeko eskubideberdintasunaren alde borrokatu zuen. 1915ean, Madilen, "Residencia Internacional de Señoritas" deritzona fundatu zuen.

Indalecio Prieto (1883–1962). Kazetaria eta politikoa zen. Agintari sozialista izan zen XX. mendearen lehen zatiaz geroztik, eta diputatu eta Espainiako Gobernuaren ministroa izan zen zenbait aldiz. Sozialismoaren sektore berritzailearen aitzindari izan zen. Lehenago, **Facundo Perezagua** Bizkaiko sozialismoaren fundatzailearen aurka aritu zen. Atzerriratuta zegoen garaian, sozialismo espainolaren agintari nagusietako bat izan zen.

Manu Robles-Arangiz (Begoña, 1884–Lapurdi, 1982). Gerora ELA sindikatua izango zen Solidaridad de Obreros Vascos fundatu zuen.

Manuel Irujo (Lizarra, 1892–Pamplona, 1981). Diputatu nazionalista eta ministroa izan zen Errepublikako Gobernuetan (1936–37). Atzerriko Errepublikako Gobernu kidea ere izan zen. Demokrazia garaian, Nafarroako senatari eta foru-diputatu izan zen. Instituciones jurídicas vascas eta La comunidad ibérica de naciones izeneko liburuak idatzi zituen.

Dolores Ibarruri «Pasionaria» (Gallarta, 1895–Madril, 1989). Langile-burua eta Espainiako Alderdi Komunistaren idazkari nagusia (1960ra arte) eta Internazional Komunistaren lehendakaria izan zen. Diputatu izan zen 1936an eta 1977an. Langileklaseen mitoa izan zen. Gerra Zibilean, berak asmatutako "No pasarán" goiburuekin, Frankoren tropen aurkako Madrilgo Erresistentziaren ikur bihurtu zen.

Jesus Maria Leizaola (Donostia, 1896–1989). II. Errepublikako Gorteetako diputatu eta Eusko Jaurlaritzako kide izan zen eta Jaurlaritzaren Defentsa Batzordearen arduraduna Gerra Zibilean (1936–37). Erbesteko Gobernuaren lehendakaria izan zen, Agirre hil ondoren (1960). 1980an Euskadira itzuli zen eta parlamentari hautatu zuten. Horrez gain, intelektuala eta Euskaltzaindiko kide ere izan zen.

Jose Antonio Agirre Lecube, lehenbiziko Eusko Jaurlaritza eratu zen egintzan (1936).



Jose Antonio Aguirre Lekube (Bilbo, 1904–Paris, 1960). Euskadiko lehen Lehendakaria izan zen. Euskal armada (Eusko Gudarostea) sortzeko eta II. Errepublikaren alde borrokatzeko proposamenak egin zituen Eusko Alderdi Jeltzalean. Nazionalistek, sozialistek, komunistek eta errepublikanoek osatutako kontzentrazio-gobernua eratu zuen. Hil arte Erbesteko Eusko jaurilaritzako Lehendakaria izan zen.

Pedro Arrupe (Bilbo, 1907–Erroma, 1991). Misiolaria izan zen Japoiari 27 urtean. 1945 Hiroshimako bonba atomikoaren esperientzia bizi izan zuen. Jesusen Konpainiako Jenerala izan zen, 1965az geroztik, Vatikanoko II. Kontzilioaren garaian. Pobrean elizaren eta Askapenaren Teologiaren tesien aldekoa zen.

Jesus Galindez (1915–1956). Unibertsitateko irakaslea, idazlea eta politikari nazionalista izan zen. II. Mundu Gerraren ostean, FBI-erentzako lan egin zuen. Trujillo diktadore dominikarraren aginduz hil zuten. Bere bizitza dramatikoari buruzko saioak, nobelak eta pelikulak egin dira.

Ignacio Ellacuria (Portugalete, 1930–1989). Jesuita, teologoa eta filosofoa zen, Askapenaren Teologiaren aitzindaria zen, **Jon Sobrinorekin** batera. Militarrek hil zuten El Salvadorren.

XX. mendeko aitzindari politikoak honako hauek izan dira: Ramon Rubial (1906–1999), PSOEko eta Autonomiaren aurreko Eusko Kontseilu Nagusiko burua izan zen. Beste politiko sozialista batzuk: **Fernando Buesa** -ETak hil zuen atentatuan 2000. urtean-, **Txiki Benegas**, **Ramon Jauregui**, **Nicolas Redondo**. Gaur, idazkari nagusia **Patxi Lopez** da.

EAJkoei dagokienez, XX. mendeko bigarren zatian: Juan Ajuriaguerra (1903–1978) eta **Xabier Arzalluz**. Gaurko aitzindariak, besteak beste, **Josu Jon Imaz** eta **Joseba Egibar** dira. Alderdiaren presidentea **Iñigo Urkullu** da. Eusko Alkartasuna (EA) **Carlos Garaikoetxeak** fundatu zuen 1986an, EAjtik banandu ondoren.

ETako aitzindari enblematikoak izan ziren: **Xabi Etxebarrieta** -liskar batean hil zen Tolosan, 1968an-, **Eduardo Moreno Bergareche**, "**Pertur**" -1976an erail zuten eta gaur egun ere argitzeke dago auzia-, **Jose Miguel Beñaran "Argala"** -GAlek erail zuen 1978an- eta **Txomin Iturbe** (1943–1987). Ezker abertzaleen aitzindariak **Rafa Diez Usabiaga** eta **Arnaldo Otegi** eta **Patxi Zabaleta** dira.

Mario Onaindia (1948–2003) eta **Juan Mari Bandres** Euskadiko Ezkerreko buruak izan ziren. Lehenengoa, gero, PSE-EEko aitzindariak izan ziren.

Ramon Ormazabal (1910–1982). PCE-EPKko aitzindaria izan zen eta **Javier Madrazo** Izquierda Unida-Ezker Batuako burua da.

Txus Viana. Desagertutako UCDko buru izan zen, eta **Marcelino Oreja** eta **Jaime Mayor Oreja** UCDkoak eta euskal PPkoak izan dira.

Jesus Aizpun (1928–1999) eta Jaime Ignacio del Burgo UPNko buruak izan dira. **Miguel Sanz** (UPN) Nafarroako Gobernuko Presidentea da.

René Cassin (Baiona, 1887–1976). Nobel saria Portu zuen 1968an, 1948ko NBen Giza Eskubideen Deklarazioa idaztegitik.

Horiez gain, aipagarriak dira beste zenbait pertsonaia: **Cristóbal Balenciaga** (1895–1972) eta **Paco Rabanne** jostunak edo XIX. mendeko **Luis Mazzantini** toreroa.


Kirolean, honako hauek dira esanguratsuenak: ziklismoan, **Miguel Indurain** (Frantziako Tourra bost aldiz irabazi zuen) eta **Joane Somarriba** txapelduna; boxeoa, Paulino Uzkudun (1899–1985) eta **Jose Manuel Ibar "Urtain"** (1943–1992) Europako txapeldunak; mendigoizaleei dagokienez, **Juanito Oiarzabal** (zortzi milako 14 mendi), **Martín Zabaleta** (Everestera igo zuen lehen Hegoaldeko euskalduna), **Felix eta Alberto Iñurrategi** anaiak (Felix hil zenean, 2000. urtean, zortzi mila metroko 12 mendi igota zeuzkaten), **Edurne Pasaban** (zortzi milakoak igo zituen lehenbiziki emakumea), **Josune Bereziartu** edo **Patxi Usobiaga** (munduko txapelduna 2006an eta 2007an); futboleko, **Telmo Zarraonaindia "Zarra"** (Mungia, 1921–2006) eta **Jose Anjel Iribar**; pilotan, **Julian Retegi**; maratoian, **Martín Fiz** eta gimnasia olinpikoan, **Almudena Cid**.

XX. mendeko pertsonaia guztiak ez dira demokrazia garaian bizi. Adibidez, **Julio Ruiz de Alda** lizarratarak Atlantikoaren Hegoaldea (10.000 kilometro) zeharkatu zuen Plus Ultra hegazkinaren balentrian parte hartzezagatik zen ospetsua, baina Falange Española-ren fundatzaile ere izan zen, fusilatuta hil zen 1936an. Frankoren Erregimeneko beste pertsonaia esanguratsuak honako hauek dira: **José Luis Arrese** falangista eta gero politikari eraginkorrek izango ziren Bilboko Alkate falangistak **Jose Maria Areilza** eta **Jose Felix de Lequerica**; **Rafael García Serranok** Francisco Franco Sari Nazionala irabazi zuen 1943an, *La fiel infanteria* lanarekin (gero pelikula egin zen). Erljiotsuei dagokienez, **Justo Perez de Urbel** "Valle de los Caídos-eko" abade izan zen eta **Zacarias de Vizcarra** (Abadiño, 1879–1963) "hispanitatearen" propagandista izan zen eta, besteak beste, *Vasconia españolísima* izeneko lana idatzi zuen.


Eredugarri ez diren pertsonaiak ere badaude: piratak (**Jean Lafitte**, **Joachim Larreguy**, **Johanes Suhigaraychipy**), beltz-tratulariak (**Jean Baptiste Ducasse**, XVII. mendean-; **Miguel Uriarte**, XVIII. mendean), esklabistak (**Julian Zulueta**) edo torturatzailak (**Meliton Manzanos**, ETak hildakoa 1968an).

Euskal herritarren ondoko ospetsuak izan dira **Francisco de Vitoria** (1484–1546), teologoa eta nazioarteko zuzenbidearen aitzindaria; **Simón Bolívar**, Amerikako askatzailea eta bere kidea zen **Rafael Urdaneta**, eta munduan euskaldunek duten prestigioan zerikusi izan duten betse hainbeste. Baina ondoko batzuen lana ez da harro egoteko modukoa. Adibidez, **Juan María Bordaberry** Uruguayko diktadorea izan zen eta **Augusto Pinochet Ugarte** Salvador Allenderen (Txilera XVII. Mendean joandako euskaldunen ondokoa hau ere) gobernu legitimoa eraitsi zuen 1973an.

René Cassin.



Ignacio Ellacuria jesuita.



Miguel Indurain Frantziako Tourreko liderraren maillot horiarekin.



Bilboko Orkestra Sinfonikoa.



Gasteizko Jazz Jaialdia.



Anthony Hopkins, Catherine Zeta Jones eta Antonio Banderas Donostiako Zinemaldiko "alfonbra" gainean.



8.8. Gertakizun kulturalak eta artistikoak

Gertakizun kultural eta artistiko garrantzitsuak daude.

Euskadin, musika-eskaintza handia eta anitza da. **OLBE**-aren (**Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen**) opera-tenporada edo **Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren** (**EOS**-aren) edo **Bilboko Orkestra Sinfonikoaren** (**BOS**-aren) kontzertuen bidez, omenaldia egiten zaio musika klasikoari.

- **Musika klasikoari** dagokionez: Bilboko Opera-programazioa, Donostiako Musika Hamabostaldia, Gasteizko Antzinako Musika Zikloa edo Errenteriako Musikaste Aste Musikala. Horiez gain, aipagarriak dira Cultural Alavak (Gasteizen) eta Donostiako Kursaal Fundazioak antolatzen dituzten kontzertuak (edo Bilbon Elkarte Filarmonikoak, Bilbao 700 fundazioak antolatutakoak eta asteburu osoa irautesen duen Musika-maratoia).

- Donostiako, Getxoko eta Gasteizko **Jazz** Jaialdiak.

- Getxoko **Musika Folkeko** Nazioarteko jaialdia.

- **Antzerkiari** dagokionez, jaialdi asko daude. Batzuek eszenatokia maite duten guztien begiradak erakartzen dituzte: Umorezko Antzerkiaren Nazioarte Jaialdia (Araian, abuztuaren erdialdean); Eibarko Antzerki Jardunaldiak; Txotxongiloen Jaialdiak Bilbon (azaroan), Tolosan eta Barañainen (Nafarroan); Irunberriko Antzerki Klasikoaren jaialdia; Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia (irailetik abendura) eta Magia Jaialdia; Leioako, Zarauzko eta Lekeitioko Kaleko Antzerkiaren Jaialdia; Bilboko Antzerki Dantza, eta, batez ere, Donostiako Antzerki Feria.

- **Abesbatzak**: Tolosako Abesbatzen Lehiaketa edo Arabako Nazioarteko Abesbatzen Astea.

- **Musika tradizionalak** euren lekua dute herrietako jaietan, kale eta plazetan, txistuaren eta danbolinaren edo trikitixaren soinuarekin.

- **Bestelako musikak**: Azkena Rock Festival eta Gasteizeko Musika Elektroakustikoaren, Leioako musika garaikidearen jardunaldiak edo Bilbao BBK Live.

Urtero, 60ko hamarkadaren amaieraz geroztik, abenduaren lehen astean, Durangoko landako pabilioian egin ohi den **Disko eta Liburu Azoka**, berez, gizarte-eginkizun masiboa da, eta Euskal Herrian argitaratzen diren disko eta liburuen zaleei berrikuntzak aurkezteko aukerarik onena da. Ohikoa denez, euskal kulturaren liburu eta disko adierazgarrienak azokaren datak aprobetxatuz argitaratu ohi dira.

Zenbait **zinema-erakustaldi** ere badaude: garrantzitsuenak Donostiako Zinemaldia da.

- **Donostiako Nazioarteko Zinemaldia**. Munduan diren nazioarteko goi-mailako zinema-erakustaldi urrietako bat da. 2005ean, 53. edizioa egin zen.
- Donostiako **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**.
- Bilboko Zine Dokumental eta Laburmetraiaren Nazioarteko Zinemaldia (**Zinebi**).
- **Biarritzeko Zinemaldia**; Latinoamerikako zinemaren espezializatua.

Nafarroan, aipagarriak dira uda osoan egin ohi diren **Nafarroako Jaialdiak**. **Danza a Escena Festibala** eta Lizarrako **Antzinako Musikaren Astea**. Principe de Viana erakundeak Nafarroako Gobernuko kultura-jarduerak guztiez arduratzen da.

Iparraldeari dagokionez, bertako erakunde publikorik ez dagoenez, 1990an talde kultural askoren ahaleginen ondorioz sortu zen eta instituzioen partaidetza duen Euskal Kultur Erakundea (EKE) artxibategi kolektiboa arduratzen da kultura-ondareaz eta kreatibitateaz, eta ikerkuntzaz eta trukaketaz. Zenbait programa antolatzen ditu, besteak beste, Hizkuntza, Kantuetan, Ondare...

Kulturari dagokionez, 70ko hamarkadan sortutako **Seaska** ikastolen sarea da aipagarriena. laguntza ofizialik ez izan arren hazten dihardu etengabe. **Udako Euskal Unibertsitatea** ere Iparraldean sortu zen, eta demokraziarekin, Hegoaldera zabaldu zen. 80ko hamarkadan, **Pizkundea** sortu zen, helduak euskaraz alfabetatzeko.

Musika Hamabostaldia Kursaallean.
Kursaal Rafael Moneoren lana da.
Donostia.

8.9. Herri-kultura

Herri-kulturaren erritoak eta ospakizunak etnografiaren ikerketa-arloaren parte dira.

8.9.1. Azokak, herri-kirolak eta jokoak

Azokak

Arestian, nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-azokak, topalekuak ziren baserriarrentzat eta arrantzaleentzat, zeren bertan salerosten baitzituzten merkantziak. Gaur egun, elikagai bikainen eta artisautza anitzen erakusketak dira. Mota askotakoak daude eta herri eta hiri guztietan egin ohi dira, batzuetan herriko jaiak direla aprobetxatuz.



Hona hemen Euskadin egin ohi diren azoka tradizioletako batzuk: **Ordiziako Azoka**, Idiazabalgo gaztaren gune nagusia da, urteko asteazken guztietan egiten da, baina ospetsuena iraileko Nekazaritza Azoka da, zeren bertan egiten baita gazten lehiaketa famatua; **Gernikako Azoka** urriko azken astelehenean egin ohi da eta bertan, jai-giro ikusgarrian, lurraldeko nekazaritza-produktuen maila neurtzen da; **Santo Tomas** azoka, Donostian eta Bilbon egin ohi da abenduan. 1462az geroztik, Baionan, Eguen Santuan, **pernilaren jai**a egiten da. Gernikan eta Tolosan, astero, azoka interesgarriak egin ohi dira.

Euskal kirolik ezagunena nazioartean zesta-punta edo jai-alai da.

Kirolak eta jokoak

Jokoei dagokienez, garrantzitsuenak **euskal pilotako** modalitateei dagozkienak dira (esku-pilota, zesta, errebotea, erremontea, pala...). Zesta eta pala nazioartera zabaldu dira (AEB, Latinoamerika, Filipinak...); 1879an hasi ziren traineruen eta trainerillan **estropadak**; soka-tira (aurka aritzen diren bi taldek sokaren bi muturretatik tiratzen dute) ohikoa da beste herrialde batzuetan ere.

Edozein gizartetan ohikoak direnez aparte, indarrean eta lehiaketan oinarritzen diren **herri-kirolak** egin ohi dira. Izan ere, kirol horietako asko, kirol bihurtutako baserriko ohiko lanetan egin ohi ziren erronkak dira. Lehiaketa-erronka anitzak eta baietz-ezetz esanda egin ohi diren apustuak herri-kulturaren parte dira.

Herri-kirolak oso anitzak dira: aizkora-jokoa; sega-jokoa; harri-jasotzea; gizon-probak, idi-probak edo asto-probak; txingeroatea; palanka; ahari-topeka; artzain-txakurren lehiaketan, normalean euskal artzain-txakurrek (1995ean, Euskal Artzain Txakurra ofizialki onetsi zen, eta bi aldaera ditu: Gorbeiakoa eta lletsua) edo Pirinioko txakurrek parte hartzen dute (aipagarrienak Oñatiko eta Uharte-Arakilekoa dira); artilemoztea; Aratzuriko txerri-lasterketa; laia-lasterketak (Gares, Artaxona) edo aitzur-jaurtiketa (Martzellako "la rabiosa").

Futbol-zaletasun handia dago. Talde profesional garrantzitsuak daude (Athletic, Bilbon, Real Sociedad, Donostian, Deportivo Alaves, Gasteizen eta Osasuna, Iruñean). Athletic eta Añorga nesken taldeak Espainiako txapeldun izan dira zenbait aldiz. **Ziklismoak** eta pilotak ere zale ugari dituzte, eta hainbeste ez bada ere, **saskibaloiak** (Gasteizko Baskonia taldea da garrantzitsuenak), eskubaloiak (Iruñeko San Antonio eta Irungo Bidasoa taldeak Europako txapeldunak izan dira) zale asko dituzte. Praktikari dagokionez, mendigoizale asko dago eta ziklismoa eta maratonia ere asko egin ohi dira.

Iparraldean, Miarritzeko Olympique Errugbi-taldea lau aldiz izan da Frantziako txapeldun, Top 16an.

Katalunian bezala, Euskadin ere selekzio nazionalak aldarrikatzen dira, modalitate anitzeko nazioarteko txapelketetan parte hartu ahal izateko.

Herri-kirolen jatorria itsasoan eta base-rrian egiten ziren edo diren jarduerak dira.

Trainerua eta aizkolariak.



Nazioarteko lehiaketetan parte hartze-ko bertako selekzioak izatea, euskal gizarte oso zabalduta dagoen aldarrikapena da.



Olentzero.



Urtarrilaren 20 egun handia
Gipuzkoako hiriburuan: Donostiako
danborrada.



Marijaia, Bilboko jaien
ezaugarria.



8.9.2. Herri-aisialdia eta jaiak

Asteburuetan, herri eta auzoetan, ohikoa da paseatzera edo lagunekin tabernetan ardo batzuk hartzera eta pintxoak jatera ateratzea, hau da, koadrilarekin txikiteoa egitera.

Uda sasoi ona da Euskadin zehar bidaiatzeko, hondartzetara joan, mendietara igo eta jaiez, gastronomiaz eta ohiturez gozatzeko. Turismo bulego asko dago eta bidaiariak hantxe aurki dezake hotelei eta basa-etxeei buruzko informazioa.

Gabonetako oporretan, familiak gabonetako haur-parkeetara edo parke tematikoetara, edota Jesusen jaiotza erraldoiak ikustera joan ohi dira. Olentzeroaren desfileak edo Erregeen Kabalgata (urtarrilaren 5ean) ikustera ere atera ohi dira.

Jaiak

Euskal Herriko jairik ospetsuenak munduan Iruñeko **Sanferminak** eta Hemingway-k betikotu zituen hango entzierroak dira. Uztailaren lehen hamabostaldian egin ohi dira. Uztailaren 6ko eguerdiko 12etan hasten dira, udaletxeko balkoitik botatzen den txupinazoarekin, eta bederatzik egunean Iruñean jai-giroa ez da gelditzen. Entzierroak, korridak, berbenak eta jaialdiak izaten dira, San Ferminen prozesioarekin batera, eta gazteen lagunarteak, txarangak, konpartsak eta fanfareak jai-giroari eusteaz arduratzen dira.

San Martin Harria. Pirinioetan, 1375az geroztik, uztailaren 13an Hiru Behien Zerga ospatzen da. Errito honetan, Biarnoko Baretous Haranekoek Erronkariko Haranekoei hiru behi ematen diete, bi eskualdeen arteko bake-hitzarmena berritzeko eta guardiak izendatzeko. Gaur egun elkarren ondoan dauden haranetako anaiarteko jaiak dira.

Abuztuan ospakizun ugari daude. Hilaren 4an, Zeledon jaisten denean Gasteizko **Andre Mari Zuriaren jaiak** hasten dira. Aste berean, **Baionako jaiak** dira (Lehoi Erregea balkoira ateratzen denean hasten dira). Gero, **Donostiako Aste Nagusia** dator (ospetsua da nazioarteko su artifizialen lehiaketa) eta abuztuaren amaieran, **Bilboko Aste Nagusia** ospatzen da, Puri Herrerok diseinatutako Marijaia enblematikoaren jairako gonbidapen erakargarriarekin.

Hona hemen, egutegian apuntatu beharreko jai esanguratsuak: arrazoiak arrazoi, ikusgarriak dira, Irunen (San Matzialetan) eta Hondarribian egin ohi diren **Alardeak**, **Lekeitioko antzarrak** eta **Biasteriko** eta **Faltzesko** bigantxen entzierroak edota **Tafallako** zezenak.

Halaber, neguko jairik ere badago: Donostiako **Danborrada** eta bertako zein Tolosako **inauterietako** mozorroak, eta Santa Ageda bezperan, Euskal Herri osoan kalera kantatzera ateratzen diren abesbatzak.

Martxoaren lehen eta bigarren igandeetan, **xabieradak** egin ohi dira. Xabierko Gaztelura, hau da, Nafarroako patrioiaren jaiolkura egiten diren erromeria handiak dira. Jendea oinez joan ohi da Nafarroako herri guztietatik. Jai honen jatorria, kolera-epidemia zela eta Foru Diputazioak 1885ean egin zuen promesean datza.

Aste Santuan prozesioak egin ohi dira hiriburu guztietan eta herri askotan. Kofradiakideek balio handiko pausoak eraman ohi dituzte. Esanguratsuak dira Balmasedako (Bizkaian) eta Andosillako (Nafarroan) Pasio Biziak (antzezen horietan herriko jendeak parte hartzen du) eta Korellako prozesioak.

Sanferminak.
Iruñea.



Gastronomia

Euskal sukaldaritzak munduko ospetsuenetakoa da, tradiziozko sukaldaritzak zein sukaldaritzak berriak (euskal sukaldaritzak berria deritzon sukaldaritzak bilakatuak eta irudimentsuak) duten kalitatearengatik. Hiri eta herri ugarian hainbat jatetxe daude; batzuk janari onaren tenpluak dira eta Europa osoan ospetsuak diren sukaldariek: **Arzak, Subijana, Berasategi, Andoni Luis Aduriz, Arbelaitz, Aranbide, Canales** edo telebistaren bidez famatu bihurtu den **Argiñano**.

Tradiziozko sukaldaritzak kalitate bikaineko lehengaietan oinarritzen da; erraz egindako janariak izan ohi dira eta Arabako Errioxako edo Nafarroako ardo beltz edo gorriarekin, sagardoarekin edo Getariako edo Bakioko txakolinaz busti ohi dira.

Euskal **sukaldaritzak klasikoak** arraina egiteko oinarritzko lau saltsa eman dizkio nazioarteko sukaldaritzari: pil-pila ia zuria (bakailaoren gelatina), saltsa berdea (perrexila, berakatzak eta kipula), gorria bizkaikoa (piper txorizero lehorra) eta beltza (txibiaren tintaz egindakoa).

Sagardotegietan, ohiko menua honako hau da: bakailao-tortilla, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta errea eta Idiazabalgo gazta intxaurrekin. Edateko, jakina, sagardoa hartzen da. Txotx! esanda, kupelak zabaltzen dira, bezeroei sagardoa edatera gonbidatzeko. Sagardoaren gune nagusiak Astigarraga, Hernani eta Usurbil dira.

Juan Mari Arzak (eskuinean) eta Karlos Argiñano sukaldariak.



Euskal sukaldaritzak eta nazioartean duen ospe justifikatua produktu naturalik onenak hautatzean oinarritzen dira.




Txotx! Sagardoa kupeletik ateratzen.



Tabernetako barrak, askotan, jatetxe txiki apartak izaten dira.



Kakuetakako arroila (Zuberoa).



Bertizeko Jaurerriko esparru botanikoa. Baztan Ibarra (Nafarroa).



Donibane Lohizune (Lapurdi).



Parke, ibilbide eta pasealeku interesgarriak

Parke naturalek, biosferaren erreserbek eta natura-erreserbek, mendi-ibilbideak eta mendiak igotzeko aukera ematen dute. Euskal Herrian mendigoizaletasun handia dago.

Euskal Herriko bitxi ekologiko nagusiak, besteak beste, honako hauek dira: Gorbeia (Bizkaia eta Araba), Balderejoko (Araba) eta Urkiolako (Bizkaia) parkeak, Urdaibaiko Erreserba ikusgarria (Gernikan du zentroa) eta Aiako Pagoeta parke botanikoa (Agorregi burdinola barne). Horiez gain, honako parke hauek ere ez ditugu ahaztu behar: Urbasa -Urederra ibaiaren sorburuarekin-, Izki, Aralar, Bertiz, Entzia, Aizkorri eta Aiako Harriak, eta, batez ere, Bardeetako Munduko Biosferaren Erreserba (Nafarroan). Ilargikoaren antzeko paisaia tontor ikaragarriak ikus daitezke. Bertan abiazio militarren tiro-eremua dago.

Orografia anitzean zehar mendi-ibilbide ugari egin ohi dira. Aipatutako parkeez gain, Nafarroako iparraldeko haranak ere izugarri ederrak dira.

Baztan, eskualde-buru den Elizondo herriarekin, Pirinio atlantikoko haran ederra da. Ekialdeko haranak Zaraitzu eta Erronkari dira. Zaraitzu ibaiak moldatutako haranean Arbaiun eta Lumbier arrolak daude. Hirigunea Otsagi da. Otsagin, aterpeetan sartzeko gogoia ematen duten hamazortzigarren mendeko etxe ederrak daude. Erronkarin, Izaba, bertako kale bereziekin, laiotzean zehar Idoia Santutegirainoko ibilbide ederra hasteko edo Belaguako haraneraino hurbiltzeko gune egokia da.

Iparraldean ere, mendi-ibilbide ederrak daude. Iratiko Oihana (pagoz eta izeiz beteriko 17.000 hektarea) Orhi menditik ikus daiteke eta Aezkoa eta Zaraitzu haranak eta Iparraldeko haranak hartzen ditu. Belaguan zehar, Europako paisaia karstikorik ederrenetakoa zeharkatu ondoren (Larra), Auñamendi mendiak eta inguruko mendiek Biarno, Zuberoa eta Nafarroa lotzen dituzte. Zuberoan, Kakueta eta Holtzarte arrolak oso ederrak dira.

Kostaldean (Bizkaian, Gipuzkoan eta Lapurdin) ere ibilbide ugari daude. Paisaia ederrak (Gaztelugatxeko San Joan, Mundaka, Getariatik Zarautzeraino kostaldea, Hondarribiako Txingudiko badia...) edota arrantzaleen herri ikusgarriak daude (Zierbena, Santurtzi eta Algortako portuak, Plentzia, Ea, Bermeo, Mundaka, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba, Orio, Pasaia, Hondarribia eta, Iparraldean, Ziburu, Donibane-Lohizune eta Miarritze).

Urdaibaiko Biosfera Erreserba (Bizkaia).



Hiriburu eta hirietan bisitatzeko leku asko daude:

Erdi Aroko almendra forma duen **Gasteizko** hirigune historikoan, Katedrala, Kordoi etxea (XV mendekoa), Portaltoa, Anda dorrea –denak XIII–XVI. mendeetakoak–, eta beste muturrean, XVIII. mendearen amaierako multzoa: Arkillos arkupeak eta Justo Olagiblek diseinatutako Matxete Plaza.

Bilbon, Itsasadarrean, Atxuritik Euskalduna Jauregirainoko pasealeku berria dago. Calatravaren zubia eta Guggenheim Museoa bertan daude, eta Bilbo berriaren sinboloa da; industrioasteko Bilbo oinez, metroz edo tranbiaz egin daiteke, mundu globalizatuan.

Donostian, hiria ezagutzeko lekurik aipagarrienak honako hauek dira: Kutxagunea, portuko pasealekua, Akiarioa, Urgull Mendia eta Paseo Berria.

Iruñean, leku asko bisita daitezke denboran zeharreko bidaia eginez: estilo guztietako jauregiak (Nafarroakoa, Kondestablearena, Artzapezpikuarena...), Gazteluaren ingurua, La Taconera, estilo frantseseko parkea eta Planetarioa.

Iparraldean, hiriburuek, hau da, Baionak, Donibane–Garazik eta Maulek historia luzea eta edertasun berezia dituzte eta hango herriak bereziki xarmantak dira: Ainhoa, Ezpeleta, Ustaritz, Kanbo, Irulegi, Baigorri edota Atharratze.

Hegoaldeko **Iurralde**etako herrietan mota askotako pasealekuak daude.

Goi **Nafarroako** iparraldean leku interesgarriak bisita daitezke: Orbaitzetako eta Eugiko arma–fabrikak, Zangoza, Elizondo eta Elbeteko jauregiak –Arizkunenea, Beramundea...–, Arraiozoko Zubiria eta Jauregizar edota Donatariako Jauregiko edo Olkozeko dorreak. Nafarroako erdialdean, Lizarra, Gares, Zirauki, Uxue edota Tafallako hiriguneak eta Irunberriko XIII. mendeko gaztelua eta eliza bikainak, Artaxoako uztarria eta Radako gotorleku hesitua ikus daitezke, eta Erriberan, Tuteran.

Araban, ikusgarriak dira: Biasteriko monumentu–multzoa, Antoñanako hesien hondarrak, Erdi Aroko dorre eta gazteluen sarea (Mendozako Gaztelua), dorretxeak, ermitak eta harresiak. Proposamen bereziak dira, batzuk abangoardiako arkitekturarekin, Añanako Gatzagako Bailara Gazia edota upategi historikoak (Remelluri, Palacio, Marqués de Riscal, Ysios edo Primicia) Bastidan, Eltziegion edo Goardian.

Bizkaian, lekurik aipagarrienak honako hauek dira: Elorrioko edo Durangoko hirigune barrokoak, Gernikan, gerra ostean berreraikitako aldeko monumentuak (Moore eta Chillidaren artelanak daude elkarren ondoan), Juntetxea eta museoak daude.

Atentzioa deitzen du XX. mendeko Meaztegi ezker aldeko meatze–herriko hirigintzaren eta “neovasco” edo ingeles estiloko Neguriko, eskuin aldeko, burgesiaren jauregien artean dagoen kontrastea. Enkartazioetan, Abellanedako monumentu–multzoak Erdi Aroko ukitua mantentzen du, eta Portugaleteko eta Areetako itsas pasealekuek, ordea, lehenbiziko industrializazio burgesiaren aisiarako lekuak gogorarazten dizkigute.

Gipuzkoan, Aiako Pagoeta parkeko Agorregiko burdinolen eta erroten bidez, manufakturen garaietara itzuliko gara. Lenbur Eskualdeko Museoa, Mirandaola Burdinolan (Legazpin), XVIII. mendeko burdina lantzeko industria zehatz–mehatz irudikatzen da; halaber, galdategia, errota eta meatzea ere badaude.

Aipagarriak dira Hondarribiako edo Segurako Erdi Aroko hirigune historikoak eta Oñati eta Bergarako hirigune barrokoak.

Gasteizko almendra, Erdi Aroko hiri–egitura.



Erriberri (Nafarroa).



Elantxobe (Bizkaia).



9. EUSKADIKO BALIABIDE ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Administrazioek baliabideanitz dituzte hiritarrei arreta esakintzeko. Batzuk eskubideak bideratzeko eta betebeharrak betearazteko dira, eta, beste batzuk, premiak asetzeko eta gerta daitezkeen desorekak arintzeko dute helburu. Halaber, Autonomiako, probintziako eta tokiko Administrazioek beharrezko dokumentazioa eskuratzeko, eskaeraren bat egiteko edo espediente edo auziren baten egoera zein den jakiteko bideak eman behar dituzte.

Zerbitzuak berariazko eskumenak dituzten Jaurlaritzako, Diputazioetako edo Udaletako sailek eta Autonomiako Erakunde Publikoek eskaintzen dituzte.

9.1. Eusko Jaurlaritzari dagozkion baliabideak eta zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzak honako sail hauen arabera antolatzen ditu dagozkion eskumenak:

- Lehendakaritza.
- Lehendakariordetza.
- Ogasun eta Administrazio Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Osasun Saila.
- Kultura Saila.
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
- Herri Lan eta Garraio Saila.
- Nekazaritza eta Arrantza Saila.

9.1.1. Lehendakaritza eta Lehendakariordetza

Lehendakaritza Sailak, lehendakaria buru izanik, Eusko jaurlaritza zuzentzen du, eta Europar Batasuneko eta erbesteko euskaldunei dagozkien baliabideak kudeatzen ditu. Halaber, arlo anitzeko erakundeen partaidetzaz, kanpoko ekintzako estrategiez eta Euskadiko ordezkaritza sareaz (Brusela, Madril, Paris, Txile, Argentina eta Mexiko) arduratzen da. Gaurko euskal gaiei buruzko ikerketak egiten ditu, plan bereziak garatzen ditu eta emakumeen aukera-berdintasuna sustatzen du.

Emakunde sail honetan dago eta emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzeaz arduratzen da, Euskadiko politika,

ekonomia, kultura eta gizarteari dagozkion bizitzako alderdi guztietan. 2005ean, Eusko Legebiltzarrak, epe labur eta ertainean eragin garrantzitsuak izango dituen Berdintasunaren Legea onesti zuen.

Lehendakariordetza Gobernuaren arlo guztiak koordinatzen ditu. **Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala** (EHAO) herritarrei erabakien berri emateko oinarritzko tresna da. Aldizkari horrek, Eusko Legebiltzarraren planak ere badakartza.

9.1.2. Ogasuna eta Administrazioa

Herrialdeko ekonomiaz arduratzen da. Euskadiko Aurrekontu Orokorrak diseinatzen ditu, eta, besteak beste, zerga-sistemaz edo finantzazio publikoaz arduratzen da. Horrez gain, Euskal Estatistika Institutua (EUSTAT) ere sail honetan dago. EUSTAT-ak euskal gizarte eta ekonomiari dagozkien alderdi guztiei buruz egin ohi diren inkestak egiteaz eta hedatzeaz arduratzen da.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) Administrazioari langileen hautaketaz eta prestakuntzaz eta administrazio publikoetan erabili ohi den euskararen normalizazioaz arduratzen da.

9.1.3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Hezkuntza-sistemak, hezkuntzarako eskubidea eta umeen etxetik lekuri hurbilenean plaza bermatzen ditu. Hezkuntza doanekoa da 3-18 urte bitartean eta nahitaezkoa 6-16 urte bitartean. Ikastetxea familiek hautatzen dute. Hezkuntza- eta hizkuntza-eredua elebiduna da (euskaraz eta gaztelaniaz) eta bi hizkuntzen pisua desberdina da D, B eta A ereduetan. Ereduok berrikusten ari dira, gaur egun (ikus 6.3 puntua).

Hezkuntza hainbat mailatan banatzen da:

- **Haur-hezkuntza.** 0-6 urte. Ez da derrigorrezkoa eta bi ziklotan banatzen da: 0-3 urte eta 3-6 urte.
- **Lehen hezkuntza.** 6-12 urte. Derrigorrezkoa eta doanekoa eta hiru ziklotan banatzen da. Ziklo bakoitzak bi ikasturte ditu: 1. zikloa 6-8 urte, 2. zikloa 8-10 urte, 3. zikloa 10-12 urte. Ziklo horietako batean behin baino ezin da errepikatu.
- **Bigarren hezkuntza.** Derrigorrezkoa 12-16 urte bitartean. Maila bakoitzean urtebete gehiago egon daiteke eta 18 urtera arte egon daitezke eskolan. Ikasgai guztiak gaindituta, bigarren hezkuntzan graduatuaren titulua lortzen da. Titulu horrekin Batxilergoa edo Maila ertaineko Prestakuntza Zikloak egin daitezke.

Ajuria Enea, Lehendakaritzaren egoitza.



Eusko Jaurlaritzaren eraikina, Bilbon.



• **Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza.** Borondatezkoa da. Bi lerro ditu aukeran:

– **Batxilergoa.** Bigarren hezkuntzan graduatua deritzon titulua izan behar da batxilergoa egiteko eta lau modalitate daude (Arteak, Natur eta Osasen Zientzia, Tecnología, Giza eta gizarte-zientziak), musikako eta dantzako batxilergoaz gain. Bi ikasturte dira eta amaitzen denean Unibertsitatera eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetara joan daiteke.

– **Maila Ertaineko Lanbide Heziketa Espezifikoa.** Bigarren hezkuntzako graduatuaren titulua behar da edo sarbide-proba egin behar da. Iraupen aldakorrekoa da: ikasturte eta erdi eta bi ikasturte bitartean.

Gero, Unibertsitateko, Estola Politeknikoetako edo Estola Profesionalakoko goi-mailako ikasketak daude. Xehetasun gehiago (batez ere inmigranteentzat), jo www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net orrialdera eta, han, ikasle inmigranteak atala kontsultatu.

Helduen etengabeko hezkuntzan (EEH) euskarazko eta gaztelaniako klaseak ematen dira 18 urte baino gehiago dituztenentzat.

Ikastetxe guztietan, matrikulatzeko izapideak egiteko informazio guztia lor daiteke. Informazio gehiago lor daiteke Lurralde bakoitzeko Hezkuntza Ordezkaritzetan. Araban (San Prudentzio 18, beheko solairua. 01.005 Gasteiz. Telefonoa 945-017200); Gipuzkoan (Andia 13, 20004 Donostia. Telefonoa 943-022850) eta Bizkaian (Kale Nagusia 85, 48.001 Bilbo. Telefonoa 94-4031000).

Bestalde, Espainiako Gobernuaren hiru azpiordezkaritzen Hezkuntza edo Atzerriko Unitateetan informazioa lor daiteke eta jatorrizko herrialdeetan lortutako tituluen homologazioa lortzeko kudeaketa egiten has daiteke.

9.1.4. Herrizaingoa

Herrizaingoa Saila euskal errepideetako trafikoaz, hauteskundeetako emaitzez, larrialdien kudeaketaz, Ertaintzaz eta Euskadiko Polizia Akademiaz arduratzen da. Larrialdietarako 112 telefono-zenbakia Herrizaingoa Sailak kudeatzen du.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ere sail honen mende dago.

9.1.5. Industria, Merkataritza eta Turismoa

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren web-orrian, enpresei eskainitako laguntzak eta Eusko Jaurlaritzako laguntza guztiak biltzen dituen **Delfos Gida** eskura daitezke. Eraldaketarako Baltzua (**SPRI**) eta turismoaren sustapena ere sail honetara atxikita daude.

Haren esku daude **Energiaren Euskal Erakundea** eta honako plan hauek: **Lehiakortasuneko, Zientzia eta Teknologikoa eta Informazioaren Gizartekoa**. Kontsumoaren atalean kontsultak eta erreklamazioak egin daitezke.

9.1.6. Etxebizitza eta Gizarte gaiak

Etxebide (euskal etxebizitza zerbitzua) bana-banako harrera egiten duen erakundea da. Bertan, etxebizitza eskatzen duten guztiek izena eman dezakete eta martxan dauden sustapenei buruzko informazioa eta etxebizitza eskuratzeko edo zaharberritzeko laguntzak jaso ditzakete.

Inmigrazioko Zuzendaritzaren titularra da eta honako eginkizun hauek ditu:

1. Inmigrazioari dagozkion ekintzak planifikatzea eta horri buruzko **arauen proiektuak** egitea.
2. Inmigranteen integrazio soziala lortzeko eta babes sozialeko sistemetan sartzeko ekintzak eta neurriak proposatzea.
3. Estatuarekin eta beste Administrazio Publikoekin koordinazioa lortzeko mekanismoak eta instrumentuak proposatzea, inmigratioari dagokionez, Gobernu Lehendakariordetzaren kalterik gabe.
4. Biztanle hartzaileen sentsibilizaziorako neurriak proposatzea eta burutzea eta elkarketarako eta kultura arteko ekintzak bultzatzea.

Halaber honako diru-laguntza hauek ere badaude: erakunde lokalentzako daude, inmigranteak integartzeko eta ondo hartzeko programak eta jarduerak garatzeko; kultura artekotasuna bultzatzeko; inmigrante atzerriarrak integartzeko programak dituzten irabazteko asmorik gabeko Erakunde pribatuentzako; inmigratioari buruzko prestakuntza lortzeko ikastaroak eta mintegiak antolatuzko; gizarteratzeko prozesuan bakarrik dauden gazte atzeritarrei laguntzeko.

Besteak beste, bi programa garatzen dira. Lehenbizikoa HELDU programaren bidez, EAEko ia udalerrri guztiak sare bidez konektatuta daude. Aldez aurretik Udaleko Zerbitzu Sozialetan ordua eskatu gabe, atzeritarrei eta dokumentazioa lortzeari buruzko laguntza soziojuridikoa ematen da.

Bigarrena BILTZEN programa da. Hezkuntzari eta bitartekaritza intelektualari buruzko programa da, Erkidegoan jarduten du, kulturen arteko elkarbizitza sustatzeko.

Escola-jaia.



Etxebideko etxebizitzaren sustapena.



Gizarte Zerbitzuei dagozkien baliabideak bilatzeko, web-orriko honako atal hauek erabil daitezke: Gizarteratzea, Boluntarioak, Pertsona nagusiak, Familia, Emakumea, Drogamenpekotasuna eta Minusballiatuak. Halaber Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza ere badu.

9.1.7. Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza

Sail honetako interneteko orrietan, **Justizia Administrazioaren** funtzionamenduari buruzko informazio anitz lor daiteke. Erregistro Zibileko web-orrian zenbait izapide egin daitezke; adibidez, ezkontza-, jaiotza- edo heriotza-agiriak eskatu. **Giza Eskubideen Zuzendaritza** sail honen mendekoa da.

Egilan Lana sustatzeko baliabidea da. Egilan langileen lanaz eta prestakuntzaz arduratzen da Langai izeneko tresnaren bidez. Langai zerbitzua, lana eskaintzen duten enpresentzat zein lan bila dabiltzan langileentzat da.

Hobetuz, Etengabeko Lanbide Prestakuntzarako Euskal Fundazioa Euskadin lanean ari diren pertsonen prestakuntzaz arduratzen da. Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak lana sustatzeko eta lan-prebentziorako zereginez arduratzen da: segurtasuna, higiena, ingurumena eta osasuna.

9.1.8. Osasuna

Osakidetza da Euskal Osasun Zerbitzuaren izena. www.euskadi.net orri orokorraren barruan dagoen Osakidetzaren web-orrian osasun-zerbitzuen antolaketari buruzko informazioa lor daiteke: ospitaleak, lehen mailako arreta, hezkuntza, osasun-teknologia, farmakozaintza eta osasun mentala... HIESA-ri, medikamentu generikoei eta erreferentzia-prezioei buruzko informazioa ere lor daiteke.

9.1.9. Kultura

Kultura-kreazioaz, -produzioaz eta -hedapenez eta hizkuntza-politikaz arduratzen da. Hurrengo urteetarako kultura-politika, 2004an onartu zen **Kulturaren Euskal Planaren** arabera da. **EITB** euskal irrati-telebista ere, sail honen barruan dago.

Kultura Sailaren web-orrian, Autonomia Erkidegoan egin ohi diren kultura-jarduera guztiak aurki daitezke (antzerkia, dantza, musika, erakusketak, zinema, literatura...). Halaber, laguntzei eta berriei buruzko informazioa eta Euskadiko liburutegietako liburu-funtsak kontsultatzeko zerbitzua daude.

Halaber, **Gazteaukera** atari tematikoak gazteentzako gai praktiko-koen informazioa ematen du.

HABE, Helduan Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren mende dago eta euskalduntzeko eta alfabetatzeko prozesuei buruzko zerbitzuak eman ohi ditu. Euskara ikasteko eta inmigranteen hizkuntzetara itzultzeko zerbitzuak ere eskaintzen ditu. **Elebide** Herri Administrazioetako hizkuntza-eskubideez, normalizazioaz eta euskara sustatzeaz arduratzen den zerbitzua da.

9.1.10. Ingurumena eta Lurraldearen Antolakuntza

Ingurumena eta Lurralde Antolakuntza Sailak lurraldearen eta dagozkion baliabideen arazoizko erabilera kudeatzeaz arduratzen da, ingurumena babesteari dagozkion politikekin bateratuz.

Sail honen web-orrian Euskadiko kartografiaren kudeaketarako eta horri buruzko informazioa lortzeko baliabideak daude eta lurralde-plan partzialari eta Cities Proiektuari buruzko informazioa jaso daiteke. Cities Proiektuaren helburua sare global bikaina sortzea da.

Ingurumenari buruzko hezkuntza-programa ere badago, **Aztertu** programa, alegia. Programa horren helburua ingurumena zaindu beharraz ohartzea da. Umeentzako eta elkarreentzako programa da, batez ere.

9.1.11. Garraioak eta Herri Lanak

Errepide, tren, aireportu, ur-saneamendu eta merkataritza- eta kirol-portuen egituraketei dagozkien baliabideak eta proiektuak ezagutzeko, Garraio eta Herri Lan Sailean arakatu behar da. Sail honek Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea garatzen du.

9.1.12. Nekazaritza eta Arrantza

Nekazaritza eta Arrantza Sailean nekazaritzari eta arrantzari dagozkion baliabideak kudeatzen dira. Sail honetan honako gai hauek lantzen dira: nekazaritza eta abeltzaintza, arrantza, nekazaritza-elikagaien politika, naturaren babesa, landa-garapena, nekazaritza-prestakuntza eta estatistikak.

Nekonet-ek lehen sektoreari dagokion informazio guztia biltzen du, eta gai horri dagozkion eduki eta baliabideak eskuratzeko bideak ematen ditu.

Kadaguako korridoreko obrak (Bizkaia).



Osakidetzaren osasun-zentroa.



9.2. Autonomia Erkidegoko beste baliabide batzuk

Euskadin, zerbitzu garrantzitsuetako bat **Arartekoa** deritzon erakundea da. Arartekoa Euskadiko Herri Defentsaria da. Erakunde independentea da eta dohaineko zerbitzua ematen du.

Arartekoaren xedeak honako hauek dira:

- Administrazio Publikoen aldetik abusurik, arbitrariotasunik, diskriminaziorik, akatsik edo zabarkeriarik egon den ikertzen du.
- Autonomiako, lurraldeetako edo udaleko instituzioen okerren baten ondoriozko arazoak konpontzea.
- Komunitatearen onurarako hobekuntzak gomendatzea.

Erakunde honetara eskutitz bidez, pertsonalki edo Internet bidez bidal daitezke kexak. Arartekoaren web-orrian, **adin txikikoentzako** lotura dago. Web horretan, umeen eskubideak biltzen dira. Ordezkaritzak ditu Euskadiko hiru hiriburuetan.

Gazteentzako baliabideak Euskadiko **Gazte Informazio eta Dokumentaziorako Sarean** biltzen dira, hain zuzen, erakunde horren zentroetan eta Eusko jaurlaritzaren web-orrian. Besteak beste, honako arlo hauek kontsulta daitezke: lana, hezkuntza, ikastaroak, lehiaketak, jarduerak, jardunaldiak eta sariak.

Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu-atarian laguntzak, lehiaketak eta lizitazioak biltzen dira. **On-line** zerbitzu guztietarako loturen bidez Internet erabil daiteke eta hainbat baliabide aurki daitezke. **On-line egin** loturan, Internet bidez egin daitezkeen administrazio-izapide guztiak daude.

9.3. Foru eta udal baliabide eta zerbitzuak

Foru administrazioek, biztanleenganako hurbilekoak direnez, baliabideen eta laguntzen zerbitzuak dituzte.

9.3.1. Kultura, Kirolak, Gazteria eta Euskara

Biztanleentzako eskaintza eta zerbitzu gehien eskaintzen dituen Lurralde Historiko bakoitzeko Administrazioetako arloetako bat da. Lurralde bakoitzean finantzatzen edo babesten diren **jarduera kulturei** buruzko eta lehiaketa publiko bidez eskaintzen diren jarduera kulturei buruzko informazioa ematen du. Maileguan eman daitezkeen dokumentuen funtsak eta liburutegiak ere badituzte. Eskumena duten artxibategi eta museoek buruzko informazioa ere ematen du.

Diputazioek, kirola sustatzeko lan garrantzitsua egin ohi dute, bai kirol federatuari, bai **eskola-kirolari** dagokienez. Bestalde, aisialdirako eta denbora-pasarako zerbitzuak ere eman ohi dituzte.

Arabako Gazteriaren Erakundeak, Bizkaiko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Gazteriaren Zerbitzuak Euskadiko Gazte Planean dihardute lanean. Plan horretan, era koordinatu eta integralean, gazteen egoerari dagozkion aurre egiteko jardueri aurre egiten zaie. Hainbat alderdiri buruzko informazioa eman ohi dute: lana, lehiaketak, jarduerak, bekak, elkartzea sustatzea, aisialdiko jarduera orokorrak, gazte-aterpetxeak, eta abar.

Kirol-jolasak eskolan.



9.3.2. Gizarte Ongizatea

Gizarte-zerbitzuetarako baliabideak eskaintzen dituzten sailek izen desberdinak dituzte: Bizkaian, **Gizartekintza Saila** deitzen da; Gipuzkoakoa, **Gizartekintza Departamentua** da, eta Araban, **Gizarte Ongizaterako Saila** deitzen da, **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearena**.

Zerbitzu hauetarako leiho bakarreko sistema erabili ohi da, inmigranteentzako gai garrantzitsuak kudeatzeko: erroldatzea, laguntza soziojuridikoa, laguntza ekonomikoak, etab.

Pertsona nagusien bizi-baldintzak hobetzeko baliabideak honako hauek dira: diru-laguntza bidezko bidaiak, telealarma (botoi bat sakatuz, larrialdi-zerbitzuekin kontaktatzen da), eguneko egoitzak, zaharren egoitzak, aldi baterako egonaldiak, pertsona minusbaliatuentzako etxerik etxeko laguntza...

Garraibide egokitua.



Umeentzako baliabideei dagokienez, tutore bidez eskolaratzeko eta egoitzetan edo familietan hartzeko programa osagarriak daude, umeei ingurune egonkorra eta segurua emateko.

Minusbaliatuentzako baliabideak honako hauek dira: osasun-laguntza eta zerbitzu farmazeutikoa, lekualdatzeagatiko eta garraioetarako diru-laguntzak, egoitza-zerbitzuak (eguneko arretarekin edo arretarik gabe) eta egoitza publikoetan aldi baterako egonaldiak egiteko programak.

Emakumeen promozio eta integrazio sozial eta laborala ere lurraldeetako zein udaletako administrazioen esku daude. Berariazko laguntzak eskaini ohi dira: laguntza psikologikoa, larrialdiak, aholkularitza juridikoa, familia bitartekaritza eta **tratu txarren biktimentzako** emakumeei ostatu ematea. Gizarte- eta familia-portaeran arazoak dituzten gizonezkoentzako tratamendu-programak ere badaude.

9.3.3. Ekonomia eta Nekazaritza

Administrazioak eskaintzen dituen baliabide ekonomiko eta laboralak, lan egonkorra sortzeko programa zehatzen bidez bideratzen dira, lurralde bakoitzeko garapen iraunkorra bilatzeko asmoz.

Hona hemen zenbait adibide: Araban enpresei prestakuntza emateko laguntzak eta ETE-en lehiakortasuna hobetzeko programak daude. Bizkaian, ekimen berriak sustatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko programak daude. Bestalde, Gipuzkoan, artiautza-sektorea sustatzeko programak eta laguntzak eta Eekintzaileei eta mikroenpresei laguntzeko programa daude.

9.3.4. Ogasuna eta Garraioak

Euskal Finantza Kontseilu Nagusiak baliabide ekonomiko erabilgarriak banatu ohi ditu. Esapiniako estatuko Gobernuari dagokion kupua ordaindu ondoren, diputazioen eta Jaurlearitzaren artean, lurralde bakoitzari dagokiona erabakitzen dute.

Garraioei dagokienez, probintzia barruko bidaiariei eman ohi zaien laguntza da aipagarriena. Biztanle gehienak hiriburuetan bizi direnez eta zenbait linea pribaturi ibilbide batzuk egitea interesatzen ez zaienez, bide horiek lurraldeko administrazioen diru-laguntzen bidez kudeatzen dira, batez ere Araban, zeren udalerrri txiki eta apartatu asko baitaude.

9.3.5. Lurraldeen beste zenbait baliabide

Udaletako zerbitzuetako bat hiritarren laguntzarako telefonoa da. Udalerrri bakoitzak dagokion telefono-zenbakia du, eta Irunen, Gasteizen eta Bilbon funtzionatzen du. Zerbitzu horren bidez, udalari buruzko informazioa jaso daiteke, kexak bidera daitezke...

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurraldeetako aldizkariak, erabakiak, deialdiak, diru-laguntzak eta dipitazioei eta udalei buruzko gainerako informazioa dakartzate.

9.3.6. Udal baliabideak

Udal baliabideak garrantzitsuak eta anitzak dira, eta hiritarrei laguntzeko lehen auzialdia dira. Hemen ezin dugu baliabideen zerrenda egin, baina oinarrizko premia guztiez arduratzen direla esan behar da.

Eusko Jaurlearitzako gela barrualdea Lakuan. Gasteiz.



9.4. Erakundeen helbide interesgarriak

9.4.1. Eusko Jaurlaritzaren helbideak

Lehendakaritza

Navarra, 2
01007 Gasteiz (Araba)
Tel.: +34 945 017 900

www.euskadi.net Jaurlaritzaren web orokorraren bidez, Eusko jaurlaritzako Sail guztietako eta diputazioetako web-orriak erabil daitezke.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 018 000

Justizia, lan eta Gizarte Segurantza Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 019 083

Osasun Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 019 163

Kultura Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 018 000

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 018 000 - +34 945 019 712

Herri Lan eta Garraio Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 019 858
www.euskadi.net/medio_ambiente

Nekazaritza eta Arrantza Saila

Donostia-San Sebastián, 1-Lakua
01010 Gasteiz • (Araba)
Tel.: +34 945 019 995
www.nekanet.net

Halaber honako sail hauek ere Lakuan daude:

Lehendakariordetza

Tel.: +34 945 018 000

Ogasun eta Herri Administrazio Saila

Tel.: +34 945 018 175

Herrizaingo Saila

Tel.: +34 945 018 755

Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

Tel.: +34 945 018 236

Hezkuntza Saila

Tel.: +34 945 018 000

9.4.2. Aldundien helbideak

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Probintzia plaza, z/g • 01001 GASTEIZ
Tel.: 945 181818 • www.alava.net

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako plaza, z/g • 20004 DONOSTIA
Tel.: 43 482111 • www.gipuzkoa.net

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gran Vía, 25 • 48009 BILBO
Tel.: 94 4068000 • www.bizkaia.net

9.4.3. Hirietako udaletxeen helbideak

GASTEIZKO UDALA

Espainia plaza, 1
01001 GASTEIZ
Tel.: 945 161100
www.vitoria-gasteiz.org

BILBOKO UDALA

Ernesto Erkoreka plaza, 1
48001 BILBO
Tel.: 94 4204200
www.bilbao.net

DONOSTIKO UDALA

Ijentea, 1
2003 DONOSTIA
Tel.: 943 481000
www.donostia.org

9.4.4. EUDEL-en (Euskal Udalerrien Elkartearen) helbidea

Ensanche plaza 5-1 esk. 48009 BILBO
Tel.: 94 4231500
www.eudel.es

9.4.5. Arartekoaren helbideak

ARABA

Prado, 9
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18
Fax: 945 13 51 02

BIZKAIA

Albia Eraikuntza
San Vicente, 8 - Planta 11
48001 Bilbo
Tel.: 944 234 409
Fax: 944 241 844

GIPUZKOA

Askatasunaren Etorbidean, 26-4º
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88
Fax: 943 42 72 97

9.4.6. Inmigranteak babesteko sare publikoaren helbideak

Udaletan, inmigranteak babesteko sare publikoa dago (RABM). Inmigranteak ondo hartzeko eta gizarteratzeko programak aztertzeko eta diseinatzeko koordinatzen diren udal-erakundeen multzoa da. Inmigranteak babesteko eta haiei babesa eta zerbitzuak emateko udal-erakundeen gizarte-zerbitzuetako sare nagusiko zeharkako programak ditu eta esparru asko ukitzen dituzte: osasuna, etxebizitza, hezkuntza, enplegua, gizartean partehartzea, etab. Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren -Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigratio Zuzendaritzaren- artean hitzartutako programa da. Zerbitzu hori eskaintzen duten udalak honako hauek dira:

GIPUZKOA

Donostiako Udala
Urdaneta,13 • 20006 Donostia
Tel.: 943 48 14 00 – Faxa: 943 48 14 14
www.donostia.org

Irungo Udala
Urdanibia plaza • 20304 Irun
Tel.: 943 64 92 96 – Faxa: 943 64 94 17
www.irun.org
saludsociales@irun.org

Eibarko Udala
Plaza Unzaga, z/g • 20600 Eibar
Tel.: 943/ 20 68 45 / 943/ 20 15 25
Faxa: 943 70 07 11 / 943 20 09 68
www.eibar.net

Pasaiako Udala –
San Juan,118 • 20110 Pasaia
Tel.: 943 34 40 34 / 943 34 41 32
Faxa: 943 51 54 47
www.paisvasco.com/pasaia

ARABA

Gasteizko Udala
Pza. España,1 • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 16 11 00 – Faxa: 945 23 27 97
www.vitoria-gasteiz.org

BIZKAIA

Bilboko Udala
Gran Vía nº4-2.solairua • 48001 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 94 420 42 00 / 94 420 45 00
Faxa: 94 446 44 98 / 94 44 66 049
www.bilbao.net

Barakaldoko Udala
Herriko Plaza,1 • 48901 Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94 478 91 90 – Faxa: 94 478 91 99
www.barakaldo.org

Getxoko Udala
Martikoena,16 • 48992 Getxo (Bizkaia)
Tel.: 94 466 01 30 – Faxa: 94 466 01 33
gizartez@getxo.net
www.getxo.net

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Elkargoa
Maloste,2 • 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
Tel.: 94 625 51 22 • Faxa: 94 625 64 70

Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoa
Aita Elorriaga,4 BS • 48100 Mungia (Bizkaia)
Tel.: 94 615 55 51 / 94 615 55 64
Fax: 94 674 24 54

Ermuako Udala
Marques de Valdespina, z/g • 48260 Ermua (Bizkaia)
Tel.: 943 17 63 22

Lea Artibaiko Amankomunazgoa
Patrokua Jauregia-Xemeingo Etorbidea,13
48270 Markina-Xemein (Bizkaia)
Tel.: 94 616 90 68 – Faxa: 94 616 9 2 78
www.lea-artibai.org

Espainiako Gobernuaren Lurraldeetako Gobernu Ordezkaritzak, atzerritarrentzat eta hezkuntza tituluak homologatzeko

ARABA

OFICINA DE EXTRANJEROS
Gasteiz. Olaguibel, 11
Teléfono: 945 20 95 26

AREA FUNCIONAL DE ALTA INSPECCION DE EDUCACION
Gasteiz. Olaguibel, 1
Teléfono: 945 75 93 51

AREA FUNCIONAL DE TRABAJO Y ASUNTOS SOCIALES
Gasteiz. General Álava,10
Teléfono: 945 75 94 12

GIPUZKOA

OFICINA DE EXTRANJEROS
Donostia. José M^a Salaberria, s/n.
Teléfono: 943 44 98 00

AREA FUNCIONAL DE TRABAJO Y ASUNTOS SOCIALES.
Donostia. Plaza de Pio XII, 6
Teléfono: 943 98 90 00

BIZKAIA

UNIDAD DE EXTRANJERÍA.
BILBO. Elcano, 10
Teléfono: 94 450 90 04

DEPENDENCIA PROVINCIAL DEL AREA FUNCIONAL DE TRABAJO Y ASUNTOS SOCIALES.
BILBO. C/ Gran Vía, 50- 2º
Teléfono: 944 50 94 13



Iturriak eta bibliografia

Eusko Jaurlaritzak eta hainbat erakunde publiko eta pribatuk eskaintzen dituen honako Baliabide Ofizial hauek daude:

- Oinarrizkolaguntza-materialak: www.hiru.net (Euskojaurlaritzako hezkuntza Saila)
- Eusko jaurlaritzaren web-orria: www.kultura.ejgv.euskadi.net. 2003ko Kulturaren Euskal Planerako txosten guztiak dakartza.
- Kultura Saila, "III. inkesta soziolinguistikoa" eta 2001eko mapa soziolinguistikoa". Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 2005 (www.euskara.euskadi.net)
- Nafarroako www.navarra.es eta www.navarra.com web-orriak, nafarroako historiari, ekipamenduei eta jaiei buruzko gaietarako.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru diputazioen web-orriak: www.alava.net; www.gipuzkoa.net; www.bizkaia.net.
- Bertsozale Elkarteen web-orria.
- Eusko jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren inmigranteentzako baliabide-gida.
- Lehiakortasun Foroa, Competitividad empresarial e innovación social: bases de la estrategia y líneas de actuación. Eusko jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, 2005.
- Nafarroako Gobernua: Sedes reales de Navarra. Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzua. Iruñea, 1993.
- Kultura Saila-Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalen Liburutegi Publikoak. Estatistika Txostena, 2001. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Gasteiz, 2003.
- Kultura Saila-Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Museoak eta Bilduma Museografikoak. Estatistika Txostena, 2002. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Gasteiz, 2005.
- Inmigratioaren Euskal Behatokiaren Aldizkaria, Inmigratioaren Panoramika. Zenbait ale 2004 -2007,
- Eustat, Euskal Urtekari Estatistikoa-Anuario Estadístico Vasco. Eusko jaurlaritza, 2005 eta 2007.

Argitalpen honen bidez, iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunerako asmoen batura den euskal errealitate konplexuaren azalpen txiki bat egin nahi izan dugu.

Donostiako Aquariuma.

- wikipedia. org. web-orria.
- Euskal Kultur Erakundearen web-orria: www.eke.org

Entziklopediak eta liburu kolektiboak eta orokorrak

- Kulturaren Euskal Kontseilua eta Kultura Saila. *Kulturaren Euskal Plana*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua. Gasteiz, 2004 eta www.kultura.ejgv.euskadi.net
- Eusko Ikaskuntzaren Kongresuko Aktak. I. eta II. liburuak. Eusko Ikaskuntza 2001.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba (arg), *Gran atlas histórico del mundo vasco*. El Mundo del País Vasco. Bilbao, 1994.
- AGUIRREAZKUENAGA, Joseba (arg), *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*. (6 liburu), Lur, 2005.
- BAZAN, Iñaki (zuz), *De Aitor a Tubal. Historia de Vasconia*. La esfera de los libros. Madril, 2002.
- "Bidegileak" bilduma. Eusko jaurlaritzako Lehendakaritza Idazkaritza eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 1994.
- HAIZEA SAENZ, José Antonio (koord), Ama Lur. *Geografía física y humana de Euskal Herria*. (5 liburu), Lur, 1999.
- VVAA, *Cultura Vasca (II)*. Erein. Donostia, 1978.

OHARRA: erabili den gainerako bibliografia zabala ez da aipatzen, zeren zehatz-mehatz azaltzen baita Ramon Zalloren liburu honetan: *"Euskal Herria gaur. Kultura, historia eta gizarte aniztasunaren eta ezagutzaren aroan"*. Alberdania. Irun 2006.

Gaztelugatxeko San Joan.
Bermeo (Bizkaia)





Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

978-84-457-2865-9 PSP: 6 €

